


Abel Camacho

Irakurriz ikasi

2. argitarapena



Udako Euskal Unibertsitatea

IRAKURRIZ IKASI

IRAKURMENA ETA IDAZMENA LANTZEKO

MATERIALAK

UEU

© Abel Camacho

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-020-3

Lege-gordailua: BI-2947-01

Imprintategia: RGM, Bilbo

Azaleko diseinua: Iñigo Ordozgoitia

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D 48005 BILBO telf. 94-6790546
e-mail: argitalpenak@ueu.org www.ueu.org

Zabaltzen: Portuetxe 88, 20018 DONOSTIA

AURKIBIDEA

Sarrera.....	7. or.
Edukiak	11. or.
1. Ikasturtea hasi da.....	17. or.
2. Hogeita hamazortzi.....	21. or.
3. Zer jan behar dugu?.....	25. or.
4. Telebista-ereduak	29. or.
5. Bidezko merkataritzaren alde.....	35. or.
6. Droga sintetikoen nahaste-borrasteak	41. or.
7. Aita bananduak.....	47. or.
8. Euskararen bide luzea.....	53. or.
9. Petras txostena.....	59. or.
10. Ikuttu nion, ikuttu nion.....	65. or.
11. Internet. Beste ikuspuntua.....	71. or.
12. Airearen kutsadura.....	77. or.
13. Zein dira zure idazteko ohiturak?.....	83. or.
14. Ikasleen nahasmendu psikologikoak.....	89. or.
15. Paragrafoz paragrafo.....	95. or.
16. Informazioa aurrera	99. or.
17. Umeak.....	105. or.
18. Printzesak eta marinelak.....	111. or.
19. Zerk kezkatzen zaitu?.....	115. or.
20. Ozono-geruza, babesean ere zuloa.....	121. or.
21. Azterketak	125. or.
22. Tabakoa	131. or.
23. Futbola eta doping-a.....	137. or.
24. Entziklopedia etorkizunean.....	143. or.
Zenbait ariketaren ebazpen-orriak.....	149. or.

SARRERA

1. ZER DA IRAKURRIZ IKASI?

Esku artean duzun liburua ez da euskara ikasteko beste metodo bat, hau da, egunez egun gelara eramateko prest izango duzun unitate didaktikoen segida.

Bestelakoa da *Irakurriz Ikasi*-ren asmoa: irakasleari aukerako materiala eskaintzea, ikasgelan planteatuko dituen ohiko jarduera eta ariketen osagarri izan nahi duena. Irakasleak dituen joera metodologikoak dituela, zenbait unetan bere programazioan txertatzeko moduko materiala izan nahi du honek. Honela, bada, material irekia eta bestelako jarduerekin bateragarria izan nahi du. Azken batean, irakurmena eta idazmenaren lanketarako markoa eskaini nahi izan dugu. Irudia, edozein kasutan, irakasleek eta ikasleek margotu beharko dute, beren interes, gustu eta beharren arabera. Hau dela eta, garrantzi handikoa iruditzen zaigu azpimarratzea liburu hau ez dela hurrenez hurren eta ikas-unitatez ikas-unitate erabiltzekoa, unean uneko egoera eta behar jakinei erantzutegoa baizik.

Irakurriz Ikasi HEOK-ek (Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Kurrikulua) zehazten duen 3. mailari dagokion material-sorta da. Edonola ere, beste hainbat arlotan ere erabilgarri suerta daiteke; baina, oro har, 900 bat ordu jaso dituzten ikasleekin erabiltzekoa izango da.

2. NOLAKOA DA IRAKURRIZ IKASI?

Material-sorta honen interesgune nagusia hizkuntza idatziaren lanketa da, ezbairik gabe. Bereziki bi alderdiri heldu nahi izan diegu:

1. Idatzitakoaren ulermena.
2. Idatzizko ekoizpena.

Unitate didaktikoetako ariketak hizkuntza idatziaren lanketan fokalizatuta badaude ere, ez dute, esan bezala, jarduera itxiak izan nahi: irakasleak aurrean dituen ikasleak dituela, egokien irizten dion moduan jarraipena emateko modua posibilitatzeko ahalegina egin dugu.

Gure helburua hizkuntzaren erabiltzaile trebeak lortzea izanik, euskarazko hedabideetan agertzen zaigun euskara erreala islatu dugu. Horrela, liburuan zehar idatzizko testu errealen erabilera didaktikoaren aldeko apustu garbia egin dugu, dituzten zailtasun eta arauetako kontraesan guztiekin, baina baita beren aberastasun eta aniztasunarekin ere. Hori dela-eta, testu gehienak moldatu gabeak dira, argitara eman ziren bezalakoxeak.

Aipatzekoa ere bada, ikasgelan erabiltzeko materiala dela batez ere: elkarlanean eta elkarreraginean ikasteko estrategietan oinarritzen dira ia ariketa guztiak. Edozein kasutan, ikasleek beren kasa ikasteko modua ere izango dute. Honetarako, ikastunitateen hasieran fokua edo garrantzikoena zer den izango dute agerian. Bestalde, zereginen kontsigna argiak eskaintzen dira, bai eta zenbait ariketaren ebazpen-orriak ere.

Edozein kasutan, material-sorta honen ekarri nagusia alderdi estrategikoan aurkituko dugu: planteatzen diren jardueren bitartez, ikaslearen prozesu kognitiboak mesedetu nahi izan ditugu. Honela, ikaskuntzaren ikuspegi konstruktibistaren baitan, ikasleak lehendik dakien horretan oinarritzen dira jarduerak. Irakur- eta idatz-estrategiei buruz hausnarketa egitera bultzaturik, estrategia zehatzak aurkeztu eta lantzea proposatzen da gero. Beraz, estrategia metakognitiboek erabateko garrantzia hartzen dute ikaskuntza-prozesuan, zeren ikasleak kontzienteki aztertu beharko baitu nola ikasten ari den, hortik aurrera nola hobe dezakeen erabakitzeke.

3. UNITATE DIDAKTIKOEN DISEINUA

Batetik bestera alderik izan badaiteke ere, gehienetan honako egitura eta ezaugarri hauek dituzte unitate didaktikoek:

- Gai baten inguruan taiututako unitateak dira
- Gaia girotu eta ikasleen aurre-ezagutzak aktibatzeke galdetegitxoak edo zeregin laburra
- Irakurtzean / idaztean dituzten estrategiei buruzko galdetegia
- Euskarri nagusia: idatzizko testua
- Ulermena edo idazmena garatzeko ariketak
- Diskurtsoa eta gramatika lantzeko ariketak
- Ekoizpenerako tartea: mintzamina / idazmina

4. HELBURUEN ZEHAZTAPENA

Honako helburu hauek izan ditugu gogoan:

A. Ulermenerako prozedurak

Idatzizko testu eta ariketen bitartez, ulermena garatzeko estrategia eta prozedura zehatzak aurkeztu eta landu nahi izan ditugu bereziki, hizkuntza bera lantzeko teknika eta ariketak albo batera utzita.

B. Ekoizpenerako prozedurak

Mintzamenari bi alderditatik heltzen zaio:

- batetik, ikasleek elkarlanean aritu beharra izango dute, interakzioa bultzatuz,
- eta bestetik, unitate didaktikoen amaieran galdetegi, eztabaidarako puntuak zein bestelakoak agertuko dira sarritan. Ariketa hauen helburua erroreen prebentzioa eta gutxienerako ahozko komunikazio-estrategien aurkezpena / garapena izango da.

Dena dela, gogoratu mintzamina eta ahozko hizkuntzaren lanketa ez dela material honen xede nagusia.

Idazmenari dagokionez, idazketa-prozesua garatzeko ariketez gain, diskurtsoaren analisiari ere ematen zaio garrantzia.

C. Ikas-estrategiak

Idatziaren ulermena edo ekoizpena garatzeko prozedurez gain, ikasten ikasteko estrategiak ere planteatzen dira:

- Irakurtzean / idaztean dituzten ohitura, modu edota helburuez hausnarketa egitera bultzatu nahi ditugu ikasleak.
- Irakur- eta idatz-estrategia zehatzak proposatu eta landuko dira.
- Irakurtzeko / idazteko autonomiaren premia azpimarratzen da.

D. Diskurtsoaren analisisia eta gramatika

Hainbat dira diskurtsoa aztertzerako etorriko diren ariketa eta teknikak. Honako hauek dira, besteak beste, aurkeztu eta landu nahi izan ditugun puntuak:

- Testuingurua eta osagaiak: hartzailea, erregistroa...
- Idatzizko testuen ezaugarriak: koherentzia, kohesioa...
- Koherentziarako baliabideak: tema/remaren garapena, paragrafoaren unitatea...
- Bereziki testu-mota hauek: argudioa, azalpena eta narrazioa
- Hainbat gramatika-egitura

ERABILITAKO TESTUAK ETA EGILEAK

- ◆ Lontxo Oihartzabal: "Ikasturtea hasi da". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-9-24
- ◆ Idurre Eskisabel: "38". *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-5-21
- ◆ Elena Corrales: "Zer jan behar dugu?". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-1-14
- ◆ Jose Inazio Ansorena: "Telebista-ereduak". *Euskaldunon Egunkaria*, 1994-3-23
- ◆ Joxerra Zabala: "Bidezko merkataritzaren alde". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-10-13
- ◆ Martin Barriuso: "Droga sintetikoaren nahaste-borrastea". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-7-27
- ◆ Amaia Vazquez: "Aita bananduak". *Euskaldunon Egunkaria*, 1995-3-2
- ◆ Elhuyar: hainbat definizio. *Hiztegi Entziklopedikoa*
- ◆ Koldo Mitxelena: "Euskararen bide luze bezain malkarrak". *Euskararen liburu zuria*
- ◆ Jon Eskisabel: "Petras txostena". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-10-3
- ◆ Joxerra Garzia: "Ikuttu nion, ikuttu nion...". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-2-2
- ◆ Julio Gonzalez Abascal: "Internet. Beste ikuspuntua". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-11-8
- ◆ Allande Sokarros: "Airearen kutsadurak heriotza azkartu die ehundaka laguni". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-2-8
- ◆ I. Petxarroman: "Ikasleen nahasmendu psikologikoak". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-3-20
- ◆ Hainbat testu-pasarte. *UNESCOren Albistaria*
- ◆ Juan Luis Zabala: "Umeak". *Euskaldunon Egunkaria*, 1995-6-7
- ◆ Jone Larrañaga: "Printzesak eta marinela". *Euskaldunon Egunkaria*, 1995-5-9
- ◆ Jabier Agirre: "Umeen agresibitatea". *Argia*, 1997-4-20
- ◆ Iñaki Irazabalbeitia: "Ozono-geruza, babesean ere zuloa". *Jakin*, 81 zk.
- ◆ Peru C. Saban: "Azterketak". *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-5-29
- ◆ Florentino Alargunso: "Futbola eta doping-a". *Elhuyar, zientzia eta teknika*, 91 zk.
- ◆ Joxerra Aizpurua: "Entziklopedia etorkizunean". *Jakin*, 72 zk.

EDUKIAK

UNITATE DIDAKTIKOAK	ULERMEN-PROZEDURAK	EKOIZPEN-PROZEDURAK	IKAS-ESTRATEGIAK	DISKURTSOA
1 IKASTURTEA HASI DA 17. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurtzeko zenbait estrategia aurkeztea: predikzioak egitea, informazio jakin bat lortzeko irakurtzea, hitz ezezagunak testuinguruaren laguntzaz asmatzea... 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko interakzioa bultzatzea - Hitz egin aurretik, zenbait erroreren prebentzioa egitea 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa-prozesuaren osagaiei buruz hausnarketa egitea - Autonomiaz irakurtzen trebatzea - Hipotesiak formulatzea - Eginiko hipotesiak baieztatu edo ezeztatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Gai berberari buruzko bi ikuspegi nola eman daitezkeen aztertzea
2 HOGEITA HAMAZORTZI 21. or	<ul style="list-style-type: none"> - Testuaren informazio orokorra aurkitzea - Hitz ezezagunen esanahia inferitzea testuinguruaren bidez - Hitz berri batek beste ezagun batekin duen lotura (ate – atezain) atzematea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko interakzioa bultzatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Nork bere irakurtzeko ohiturei buruz hausnarketa egitea - Nork bere irakur-estrategia okerrak atzeman eta zuzentzen saiatzea - Autonomiaz irakurtzen trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait testu-mota aurkeztea: azalpena, argudioa, narrazioa... - Testuaren tonua atzematea: serioa, ironikoa, kritikoa...
3 ZER JAN BEHAR DUGU? 25. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurri aurreko predikzioak egitea aurretikako ezagutzetan oinarrituz - Hitz ezezagunak, ulerkuntzarako klabeak ez badira, albo batera uzten ikastea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko interakzioa bultzatzea - Ahoz iritzia adieraztea 	<ul style="list-style-type: none"> - Hipotesiak formulatzea - Eginiko hipotesiak baieztatu edo ezeztatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Definizioak irakurtzen trebatzea - Erregistro formala: teknikoa
4 TELEBISTA-EREDUAK 29. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurri bitarteko hipotesiak egitea, testuan ematen den informazio berriari oinarrituz - Mezua eraikitzen trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahoz iritzia adieraztea - Hitz egin aurretik, zenbait erroreren prebentzioa egitea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntzaren planifikazioa: teknika eta eginbide eraginkorrenak ezagutzea - Ulermenaren prozesua nola gertatzen den ulertzea - Irakurtzean zenbait erabaki hartzea bultzatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Argudioa
5 BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDE 35. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakur-estiloak aurkeztea: <ol style="list-style-type: none"> 1. nahi gabe egiten dena, 2. irakurketa azkarra (gainirakurketa eta xehea) 3. irakurketa intentsiboa eta, 4. irakurketa estentsiboa 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko interakzioa bultzatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Nork bere irakurtzeko ohiturei buruz hausnarketa egitea - Ikaskuntzaren planifikazioa: teknika eta eginbide eraginkorrenak ezagutzea eta negoziatzea - Irakur-helburuaren arabeko estiloa izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Azalpena
6 DROGA SINTETIKOEN NAHASTE-BORRASTEAK 41. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakur-estiloak: irakurketa azkarra <ol style="list-style-type: none"> 1. Gainirakurketa: testuaren gaia eta ideia nagusiak atzematea 2. Irakurketa xehea: informazio jakin baten bila 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko interakzioa bultzatzea - Gai gatazkatsu bai buruz adostasuna / ezadostasuna adieraztea - Parafraasiak erabiltzen trebatzea - Betelaneko formulak erabiltzea - Komunikazio-egoera batean beharko dituzten baliabide linguistikoak aurreikustea (baldintzazko egiturak...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntzaren planifikazioa: teknika eta eginbide eraginkorrenak ezagutzea - Elkarreraginean ikastea 	<ul style="list-style-type: none"> - Argudioa

7 AITA BANANDUAK 47. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakur-estiloak: irakurketa intentsiboa 1. Edukiaren aldetik: interpretazioa egitea 2. Formaren aldetik: hizkuntza aztertzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurritako testuaren mezua idatziz laburbiltzea - Komunikazio-egoera batean beharko dituzten baliabide linguistikoak aurreikustea (iritzia nola eman...) - Ahoz solaskideen erreakzioei erreparatzea: noiz hartu txanda, noiz utzi, besteek ulertu dutela ziurtatu... 	<ul style="list-style-type: none"> - Jasotako informazioaren kalitatea irizpide hartuta, eginiko laburpenak elkarki ebaluatzen trebatzea - Irakurte-prozedura proposatzea: 1. Lehenik irakurketa azkarra egin ideia nagusiak ateratze aldera 2. Ondoren, irakurketa intentsiboa burutu: 2.1. Edukia interpretatuz 2.2. Hizkuntzari erreparatuz 	<ul style="list-style-type: none"> - Argudioa
8 EUSKARAREN BIDE LUZEA 53. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakur-estiloak: irakurketa intentsiboa 1. Edukiaren aldetik: informazioa interpretatzea 2. Formaren aldetik: hizkuntza aztertzea - Gai ezagun bati buruz aurre-ezagutzak aktibatzea - Irakurritakoaren ebaluazioa egitea 	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako ikaskideei gai bati buruz daukaten informazioaren berri ahoz ematea 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa-teknika eraginkorrak ezagutzea: 1. Funtsezko informazioa atzematea 2. Funtsezkoa ez dena albo batera uztea - Zailtasun handiko testuen sintaxia hobeto ulertzen trebatzea: 1. Perpaus nagusiak eta menpekoak identifikatzen trebatzea 2. Perpaus nagusien subjektuak eta berauen aditzak seinalatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Erregistro teknikodun testuak irakurtzen trebatzea - Argudioa - Sintaxiaren lanketa
9 PETRAS TXOSTENA 59. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakur-helburuaren arabera estiloa aukeratu eta gauzatzea - Irakur-estiloak lantzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Jarria lantzea - Idatzi aurretik, planifikazioa egiten trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomiaren garapena mesedetzea - Irakurtzean zenbait erabaki hartzea bultzatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait osagai diskurtsibo lantzea (asmo komunikatiboa, testuingurua, testu-mota...)
10 IKUTTU NION, IKUTTU NION... 65. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa intentsiboa garatzea - Mezuaren interpretazioa egiten trebatzea - Mezuaren lotura kulturalak atzematea - Irakurritako testuaren asmo komunikatiboa zein den atzematea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskideen hitz egiteko txanda errespetatzen ohitzea - Besteek esan dutena ulertu duela eta norberari ere ulertu diotela ziurtatzen trebatzea - Adierazi nahi den mezua ondo zehazten trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskainitako adibideen bitartez gramatika-araua indutitzea - Mapa semantikoak zertan diren aurkeztea 	<ul style="list-style-type: none"> - Diskurtsoa beti ere homogenea ez dela konturaztea: testu-mota bat baino gehiago ager daiteke batera - Ustea adierazteko baliabideak: iritzi aditza
11 INTERNET. BESTE IKUSPUNTUA 71. or	<ul style="list-style-type: none"> - Egilearen asmo komunikatiboa atzematen trebatzea - Testuaren informazioa aztertzea: 1. Zein da oro har defendatzen den tesia? 2. Zein dira ikuspuntu honi egileak aurkajartzen dizkion argudioak? 	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarreraginean ikastea - Aurre-ezagutzen oinarrituta, gai baten idatzizko definizioa egitea - Jasoriko informazio berriari esker hasierako definizioa hobetzea (ikaskideek edo testuak emanikoa) 	<ul style="list-style-type: none"> - Testu baten asmoa zein den atzematea ulerkuntzarako gakoa dela konturaztea - Aurre-ezagutzen garrantziaz jabetzea - Jasoriko informazio berria norberaren ezagutzekin erlazionatu eta alderatzea - Informazio berria norberaren ezagutza-eskemetan txertatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Paragrafo-motak: definizioa - Testuaren asmo komunikatiboa - Testu-motak - Testu-egiturak
12 AIREAREN KUTSADURA 77. or	<ul style="list-style-type: none"> - Hitz berri batek beste ezagun batekin duen lotura (ate – atezain) atzematea 	<ul style="list-style-type: none"> - Arazo baten aurrean eragileak eta soluzio posibleak ahoz zerrendatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Lexikoa ikastean dituzten ohiturei buruz hausnarketa egitea - Ikasleak eduki berrien aurrean beren aurre-ezagutzetatik abiatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Lexikoaren sorkuntza-bideak ezagutzea: 1. Hitz mailegatuek 2. Hitz sortzaileak: aurrizkiak, atzizkiak eta hitz elkartuak

UNITATEAK	ULERMEN-PROZEDURAK	EKOIZPEN-PROZEDURAK	IKAS-ESTRATEGIAK	DISKURTSOA
13 ZEIN DIRA ZURE IDAZTEKO OHITURAK? 83. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurritako testu baten koherentzia ebaluatzea - Testu baten informazioaren garapena atzematea 	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait kontzeptu idatziz definitzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Idatz-prozesuaren osagaiei buruz hausnarketa egitea - Nork bere idazteko ohiturei buruz hausnarketa egitea - Nork bere idazketa-estrategia okerrak atzeman eta zuzentzen trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Testuen ezaugarriak eta unitate linguistikoak ezagutzea - Koherentzia: tema / rema jokia
14 IKASLEEN NAHASMENDU PSIKOLOGIKOAK 89. or	<ul style="list-style-type: none"> - Testu baten informazioaren garapena atzematea - Irakurritako artikulua alderdi diskurtsibotik ebaluatzen trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko interakzioa bultzatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Nork bere idazteko ohiturei buruz hausnarketa egitea - Testu-antolatzaileen funtzioa atzemandako gero zer-nolako informazioa datorren (kausa, adibidea...) inferitzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Testuen ezaugarriak: koherentzia eta kohesioa - Koherentzia eta informazioaren garapena: tema / remaren jokia - Kohesio-baliabideak: lokailuak eta testu-antolatzaileak
15 PARAGRAFOZ PARAGRAFO 95. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa intentsiboa garatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Emaniko baldintzak betetz, paragrafoak idaztea - Emaniko ebaluazio-irizpideei segituz, ikaskideen idazkiak zuzentzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Lankidetzaren garapena: elkarrekin zalantzak argitzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Koherentzia mesedetzen duten atalak lantzea - Paragrafoaren unitatea: ideia nagusia eta osagarriak - Ideia nagusiak garatzeko moduak aurkeztea
16 INFORMAZIOA AURRERA 99. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa intentsiboa garatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen modua emanik, paragrafoak idaztea - Emaniko ebaluazio-irizpideei segituz, ikaskideen idazkia zuzentzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Lankidetzaren garapena: elkarrekin zalantzak argitzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Koherentzia mesedetzen duten atalak lantzea - Informazioa garatzeko zenbait modu aurkeztea - Ideien garapenerako erabil daitezkeen zenbait testu-antolatzailea lantzea
17 UMEAK 105. or	<ul style="list-style-type: none"> - Idatzizko testu baten informazioaren garapena atzematen trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko ekoizpenaren zuzentasunean zentratzea - Iritzia ahoz adieraztea - Planifikazioa eginda, idazketa burutzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-egoera aurreikustea, beharko dituzten ideiak lehenagotik pentsatuta 	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa garatzeko zenbait modu aurkeztea - Iritzia adierazteko baliabideak - Zenbait osagai diskurtsibo lantzea (asmo komunikatiboa, testuingurua, testu-mota...)
18 PRINTZESAK ETA MARINELAK 111. or	<ul style="list-style-type: none"> - Idatziz informazioaren garapen kronologikoa atzematen trebatzea - Denbora-sekuentziak bereiztea 	<ul style="list-style-type: none"> - Idatziz, informazioaren garapen kronologikoa ematen trebatzea - Ahoz, jarioasuna lantzea 		<ul style="list-style-type: none"> - Denbora adierazteko testu-antolatzaileak - Narrazioen balio argudiatzaileak konturatzea - Harridura adierazteko baliabideak

19 ZERK KEZKATZEN ZAITU? 115. or		<ul style="list-style-type: none"> - Hitz egin aurretik, zenbait erroreren prebentzioa egitea - Idatzitakoa berrikusten trebatzea: <ol style="list-style-type: none"> 1. Besteen testuan informazioaren garapena eta kohesioa 2. Norberaren testuaren alderdi formala - Idatzi aurretik zenbait erabaki hartzera bultzatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ahoz auto-zuzenketa bultzatzea - Berrikusketaren beharraz jabetzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Azalpenezko testuetako ideien antolaketan trebatzea - Honako garapen-moduak lantzea: kausa-ondorioa, arazoa-konponbidea eta konparazio-antolaketa
20 OZONO-GERUZA, BABESEAN ERE ZULOA 121. or	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurritako testu baten hartzailea, erregistroa eta gaiaren nolakotasuna igartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio ezaguna berridaztea komunikazio-testuinguru berri batek ezarritako baldintzak errespetatuz - Idatzitakoaren berrikusketan trebatzea: testuaren edukia eta egitura 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakurriko den testuaren gaiak aurre-ezagutzak aktibatzea: dakitenetik abiatzea - Berrikusketaren beharraz jabetzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-testuinguruaren osagaiak: hartzailea, igorlea, berauen arteko harremana, hizkuntz erregistroa... - Erregistro formaleko lexikoa lantzea
21 AZTERKETAK 125. or	<ul style="list-style-type: none"> - Helburuaren arabera irakur-estiloa garatzea - Informazio jakin baten bila irakurtzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazioa: <ol style="list-style-type: none"> 1. Idatzi aurretik informazioa biltzea 2. Hainbat erabaki hartzera bultzatzea (asmo komunikatiboaren arabera) - Iritzia ahoz adieraztea 	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazio-aldiaren beharraz jabetzea - Ikaskuntzaren planifikazioa: teknika eta eginbide eraginkorrak ezagutzea eta negoziatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Idazkien egokitasuna: testuinguru, erregistroa... - Idazkien asmo komunikatiboak testu-mota, egitura, erregistro eta abarri eragiten diela konturatzea
22 TABAKOA 131. or		<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazioa: idatzi aurretik, zenbait erabaki hartzera bultzatzea <ol style="list-style-type: none"> 1. Asmo komunikatiboa zehaztea 2. Testu-mota aukeratzea 3. Egitura aukeratzea 4. Aurrekoaren arabera, informazioa aukeratzea - Idatzitakoaren berrikusketan trebatzea: alderdi formala 	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazio-aldiaren beharraz jabetzea - Idatzitakoaren berrikusketaren beharraz jabetzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Koherentzia lantzea: ideia-multzo zabala eskainita, planifikazio-aldian zehaztutakoaren arabera aukeratzea
23 FUTBOLA ETA DOPING-A 137. or	<ul style="list-style-type: none"> - Argudiozko testu baten tesia atzematea - Egilearen tesia defendatzeko erabilitako argudiaketa-mota atzematea 	<ul style="list-style-type: none"> - Gai bat ahoz azaltzea, argudiozko trataera emanez - Idatziko denaren planifikazioa egiten trebatzea - Idatziz, besteen argudioak arbuizten trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-zereginak elkarrekin burutzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Argudiaketaren egitura lantzea
24 ENTZIKLOPEDIA ETORKIZUNEAN 143. or	<ul style="list-style-type: none"> - Azalpenezko testu baten ideia nagusiak emanik, ideia osagarriak atzematea 	<ul style="list-style-type: none"> - Aldez aurretik zehaztutako pausuei jarraiki, idatziko laburpenak egiten trebatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Teknika eta eginbide eraginkorrak ezagutzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Idatziko laburpenen ezaugarriak lantzea: konposizio berria egin beharra, jatorriko testutik autonomia, koherentzia eta argia...

1 IKASTURTEA HASI DA

Unitate didaktiko honetan:


- **Nolako ezagutzak behar ditugu irakurtzeko?**
- **Ezagutzak izateaz gain, estrategiak ere behar ditugu**
- **Diskurtoaren ezaugarriak ezagutzeak ulertzen lagunduko digu**

GAIA: ESKOLA

IKASTURTEA HASI DA

1 ZER BEHAR DUGU IRAKURTZEKO?

- Irakurtzen dugunean nolako ezagutzak aktibatzen ditugu? Ezagutza linguistikoa aski al da irakurri ahal izateko? Errepara iezaiozue beheko eskemari:



- Egin dezagun, bada, honen guztiaren adibide bat.

2 ZER DAKARKIZUE GOGORA TESTUAREN IZENBURUAK?

- Segidan 1996ko irailaren 24an Lontxo Oihartzabalek Euskaldunon Egunkarian argitara emaniko testu bat irakurriko duzue. Gaia eskola-ikasturtearen hasiera dugu. Beste ezer baino lehen, gai hau aipatuta, burura zer datorkizuen komenta ezazue: saia zaitezte ideia bana ahoz adierazten.

IKASTURTEA HASI DA

- Aipatu dituzuen ideien artean, zein uste duzue agertuko dela testuan? Predikzioak egin itzazue.

ZEIN IDEIA AGERTUKO DA TESTUAN?

3 IRAKURRI BITARTEAN

- Honako oharrei egin kasu:

1. Ez galdetu ezer irakasle edota ikaskideei, hitz batzuk ezagutu barik ere testua uler baitaiteke.
2. Testuan bi kezka-mota aipatzen dira. Saia zaitetz behean eskatzen zaizun informazioa osatzen.

IKASLEEN KEZKAK	IRAKASLEEN KEZKAK

IKASTURTEA HASI DA

Eskolak ekin dio, urteroko ohiturari berrekinez, bere eginkizuna berriro bideratzeari. Egunkarietan, irrati-telebistetan ikasle berrien larridurak azpimarratu dizkigute lau haizetara egun osoan zehar etenik gabe. Eta egia da, txikientzako edo txikienetako askorentzako larritasunez eta estutasunez betetako eguna da, familiarekiko zilborrestea bat-batean eten beharrean aurkitu dira eta. Gertakari mina asko eta askorentzat. Bizitzako legea, ordea, gaurko gizartean.

Gutxi gogoratu gara, aldiz, irakasle asko eta askok egun hauetan bizi behar duten bestelako larridura-egoera batez. Irakatsi egin behar, eta bide batez hezi ere bai, eta egungo eskakizunetara jartzeko gai izango diren ala ez inolako ziurtasunik ez. Irakatsi beharrekoak alde batetik: ugariak eta oso izaera ezberdineko edukiak. Lehengo eskola-moduetan ohitutako gurasoen

eskakizunean zama neketsua: seme-alabek gauza asko ikas ditzaten nahi dute, ikasi beharreko hori gero zertarako baliagarri izango zaien argi ez badute ere. Ez da txantxetako zama.

Irakasteko modu berrietara jarri beharra bestetik. Konstruktibismoa aipatzen da hitzetik hortzera eskoletako eremu guztietan. Eduki asko ikasteak baino garrantzi handiagoa duela ikasten ikasteak azpimarratzen duen ikuspegi horixe. Eta hori nola irakasten den ikasi ez duen (irakatsi ere ez diogu irakatsi eta) irakasle ugari eskoletan barrena. Irakaste-ohiturak, askorentzat urte luzeetako ohiturak aldatu beharrak zalantza, urduritasuna, kezka eta beldurra eragiten ditu. Giro horretan lan egin behar duen irakaslearentzat ez da txantxetako kezka ikasturte hasi berria. Kontuan hartzekoa da hau guztia ere.

(moldatua)

4 IRAKURRI OSTEAN

➤ Egin itzazue honako lan hauek:

1. Bikoteka lan eginez, saia zaitetzte ulertu ez dituzuen hitzak edota egiturak elkarri azaltzen.

2. Zuzen ezazue irakurri bitartean eginiko ariketa: zein dira ikasleen kezka? Zein irakasleenak?
3. Hasieran eginiko predikzioak egiazko gertatu al dira? Zein ideia agertu da eta zein ez?

5 NOLAKOA IZAN ZEN ZURE LEHEN EGUNA?

➤ Komenta itzazue ondokoak denon artean:

1. Egun hauek gogoratzen al dituzu?
 - Eskolara joan zinen lehen aldia?
 - Institutura joan zinen lehen aldia?
 - Unibertsitatera joan zinen lehen aldia?
 - Euskaltegira joan zinen lehen aldia?
2. Nolako inpresioa hartu zenuen?
3. Zertan aldatu da oraingo eta zure garaiko irakaskuntza? Zertan jarraitzen du berdin?
4. Zein dira gaur egungo hezkuntza-sistemaren gabeziak? Zertan hobetu behar luke?
5. Zein dira gaur egungo hezkuntza sistemaren alde onak? Zertan hobetu da azken urteotan?
6. Nolakoa izan behar luke zure irakasle idealak? Aipa itzazue ezaugarriak

ADIZU!

- Kontuz ibil zaitez honako errore hauekin:
 1. GOGORATU eta honelako aditzekin –(e)LA atzizkia ahaztea.
 2. *Txikitan nintzela* bezalako erroreak: *txikitan*, huts-hutsez, edo *txikia nintzela*.
 3. Iraganeko gertaerak kontatzean ondo ezberdindu aditzaren aspektua. Adib.: *joaten zen / joan zen* edo *joan behar zuen / joan behar izan zuen*
- Erabil itzazu denbora zehazteko testu-antolatzaileak, Adib.: lehenik, bigarrenik, harrez gero, artean...

2 HOGEITA HAMAZORTZI

Unitate didaktiko honetan:

- **Irakurtzean dituzun ohiturei buruzko hausnarketa egingo duzu**
- **Albo batera utzi irakur-estrategia okerrak!**
- **Irakurtzean testuinguruak duen garrantziaz jabetuko zara**
- **Testuinguruak gaia hobeto ulertzen laguntzen digu !**

HOGEITA HAMAZORTZI

1 NOLA IRAKURTZEN DUZU?

- Nola irakurtzen duzu normalean? Nolako estrategiak erabiltzen dituzu? Ariketa egin aurretik, bete ezazu galdetegi txiki hau bakarka, eta honetaz gogoeta egiteko modua izango duzu.

1. Nire ama-hizkuntzan testu-mota guztiak irakurtzeko gai naiz.
2. Nire ama-hizkuntzan edozein testu-mota irakurrita ere, den-dena ulertzen saiatzen naiz.
3. Testu bateko hitz guztiak ezagutu ezean, ez dago ulertzerik.
4. Ezagutzen ez ditudan hitzak ez dira beti ulerkuntzarako oztopo.
5. Testuinguruak hitz ezezagun baten esanahia argitzen lagun dezake.
6. Atzizkiak ezagutu eta erlazionatzeak zenbait hitzen esanahia ulertzeko balio dezakete.
7. Hiztegi bat ondoan ez dudala, ez naiz ezer irakurtzeko gauza.
8. Hitzez hitz irakurtzen dut, den-dena ulertu nahian.
9. Hitzez hitz edota esaldika baino, hobe da paragrafoka irakurtzea, honela testuaren esanahi globalari hobeto erreparatzen baitiot.

ADOS	AURKA

- Taldeka jarrita, konpara itzazue erantzunak eta, beraz, dituzuen irakur-estrategiak. Zeini deritzozue eraginkorrago? Zeini ez? Zer dela eta?

2 IRAKURRI, BAINA GALDETU BARIK!

- Idurre Eskisabelek 1997ko maiatzaren 21ean *Euskaldunon Egunkarian* argitaratu emandako testua bakarka irakurri behar duzu, hiru lan dituzula:

1. Testuaren gai nagusiaz eta informazio orokorraz jabetzea.
2. Testuaren ezaugarriak atzematea: zein testu-mota den eta nolako tonuan idatzita dagoen.
3. Ezagutzen ez dituzun hitz guztiak azpimarratzea. Ez galdetu inori esanahia, azpimarratzearekin nahikoa da eta. Gero landuko dugu hiztegia!

TESTUAREN GAIA

TESTU-MOTA	TESTUAREN TONUA
<ul style="list-style-type: none"> • Azalpena (gairen bati buruzko datuak eta informazioa ematen dituena) • Argudioa (egileak gairen bati buruz bere iritzia defendatzeko idatzitako testua) • Narrazioa (gertaerak edo pasadizoak kontatzen dituen testu-mota) • Instrukzioa (tresna edo prozesuren baten funtzionamendua deskribatzeko) • Deskribapena (leku, egoera edo pertsonaren baten nolakotasuna ematekoa) • Aurre motetako bat baino gehiago bil ditzake. Zeintzuk? 	<ul style="list-style-type: none"> • Serioa • Barregarria • Neutroa • Ironikoa • Kritikoa • Objektiboa • Subjektiboa • Exageratua • Zinikoa • Dramatikoa • Aurreko tonuetako baino gehiago nahas ditzake. Zeintzuk?

38

Goiko horixe zenbaki magikoa da, emakumeontzat bederen. Ez da lotoa irabazteko zenbaki giltzarria, ezta loteriaren zozketa berezietako amaiera ere... Askoz ere miraritsuagoa da.

Ez zaretela zenbaki horren eragin terapeutikoez ohartu? Lasai, nik ere orain dela gutxi erreparatu diot. Ia-ia kasualitatez, baina aurkikuntza handia izan da. Joan den astean gertatu zen, aspaldiko partez arropa erosteko asmoz oso izen modakoa duen denda batera sartu eta hantxe egin nuen topo 38arekin. Hain zuzen ere, horixe zen denda horretan saltzen zuten arropa tailarik handiena. 38 zenbakidun praka pare batekin probalekura sartu, eta ezin. Izerditan blai eta ezin prakak izterretatik gora sartu. Baina ez nuen etsi: prakak bi eskuekin oratu eta izugarritzko jauzia eman nuen. Eta orduan bai, sartu ziren ipurdia estaltzeraino.

Hori bai, edozein mugimendu egitea eragozten zidaten, eta nire ipurtaldeak txerri-hesteetan ondo estututako odolki guria ematen zuen. Borrokaldiaren eraginez probalekutik arnasestuka atera nintzenez, saltzaile fin eta pinpirinak pena handiz begiratu ninduen. Ni bai neska errukiorra, 38an sartu ezin!

Hasieran, denda horretakoa kasu isolatua zitekeela pentsatu nuen eta horrexegatik ikerketari ekin nion. Modako dendaz denda ibili naiz, eta 38a dute askotan tailarik handiena (40a batzuetan). Gainera probalekutik idi-pareek baino ahalegin handiagoa eginda ateratzean, penaz begiratu naute saltzaile fin eta pinpirin guztiek.

Hortik dator nire erabakia. Gose greba mugagabeari ekin diot 38ari irabazi arte. Horrela saltzaile fin eta pinpirinek ez naute gehiago erruki aurpegiz begiratuko. 38a edo hil! (anorexiaz bada ere).

3 IRAKURRI OSTEAN

- Lehenik eta behin, komenta itzazue denon artean testuaren gai nagusia eta ezaugarriak (testu-mota eta tonua). Honezkero, bakarka zaudela, ekar itzazu azpimarratutako hitzak beheko eskema honetara. Saia zaitetz horien esanahia asmatzen testuinguruaz baliatuz.

HITZA	ESANAHI POSIBLEA

4 HIPOTESIAK EGIAZTATZEN

- Egiazta itzazue eginiko hipotesiak: irakasleari galdetu edota hiztegian begiratu. Uste baino hitz gehiago ulertzen dituzuela ikusiko duzue!

5 ONDORIOAK

- Itzul zaitetz berriro ariketa honen lehenbiziko puntura eta konpara itzazu hasierako erantzunak ariketa egindakoan atera dituzun ondorioekin. Zure irakurtzeko estrategiak aldatu behar al dira? Esaldika barik, ba al dakizu paragrafoka irakurtzen? Hitz ezezagun guzti-guztiek oztopatzen al dute testuaren ulermena?

3 ZER JAN BEHAR DUGU?

Unitate didaktiko honetan:

- **Irakurri aurretik, predikzioak egingo dituzu**
- **Eginiko hipotesiak jasotako informazio berriari esker baieztatu ala ezeztatuko dituzu**

GAIA: ELIKADURA

ZER JAN BEHAR DUGU?

1 IRAKURRI AURREKO HIPOTESIAK

- Segidan Elena Corralesek 1996ko urtarrilaren 14an *Euskaldunon Egunkarian* argitaratu emandako artikulua irakurriko duzu. Testuaren helburua zenbait janari-mota azaltzea da. Bertan, beraz, lau janari-motaren ezaugarriak azalduko ditu. Zure ezagutzan oinarrituta, zer izan litezkeen definitzen saiatuko zinateke? Bikoteka jarrita, egin itzazue hipotesiak beheko eskemaren bitartez! (Kontuan har ezazue era honetako predikzioak egiteak geroko irakurketa erraztuko dizuela)

ZUEN USTEZ, ZER DIRA...?	
ELIKAGAI NATURALAK	ELIKAGAI BIOLOGIKOAK
ELIKAGAI INTEGRALAK	ELIKAGAI TERAPEUTIKOAK

2 IRAKURKETA

- Orain irakur ezazu testua, baina zure helburua elikagai horiek benetan zer diren konprobatzea eta bikoteka eginiko hipotesiak baieztatzea ala ezeztatzea izango da. Hitzen bat ulertu ezean, ez galdetu inori. Saia zaitez testuinguruaz baliatzen esanahia asmatzeko.

ZER JAN BEHAR DUGU?

Gaur egun elikagaiei buruzko kezka handia dago. Kontsumitzailea, ordea, nahasita dabil produktu naturala, integrala eta biologikoa zer den ez dakielarik, edo elikagai terapeutikoei buruz hitz egiten zaiolako.

ELIKAGAI NATURALAK

Naturan ekoizten diren landare edo animalia jatorriko substantzia jangarriei esaten zaie. Haragia, fruta, lekadunak eta arrautzak, esaterako, elikagai naturalak dira. Hauetariko zenbaitek substantzia narritagarriak edo toxikoak, kafearen kafeina eta ardoaren alkohola kasu, edukitzen dituzte. Ardoa eta kafea, beraz, kantitate txikitari hartu behar ditugu nahiz eta substantzia naturalak izan.

Kafea (*Coffea arabica*) mikrodositan hartuz gero nerbio sistema kintzen duen sendabelar bihurtzen da.

Elikagai bat naturala den neurrian geure barne sistemarekin bateragarria izango da. Elikagaiak adulteratzen edo desnaturaltzen direnean, ordea, ez da hala gertatzen. Alegia, produktu dietetiko bat ez da inoiz osasungarria, zeren desnaturalizazioa burutzeko (adibidez, kafea deskafeinatzeke) erabili ohi diren prozesu kimikoei produktu toxikoak izaten baitituzte. Hori dela eta, kafe deskafeinatuak, kaferik ez (edo oso gutxi) eduki arren logalea kentzen ez diguten baina intoxikatzen gaituzten produktu kimikoak edukitzen ditu.

ELIKAGAI INTEGRALAK

Elikagai bat integrala da osorik kontsumitzen denean, hots, bere zati jangarri guztiak dauzkalarik kontsumitzen denean. Beraz, ogi integralaz eta arroz integralaz gain bere azala (ez oskola) eta guzti jaten den edozein elikagai ere bada integrala. Adibidez, intxaurreak, mandarinak, oilaskoa, eta baita arkumea edo txerria ere, bere erraiak, odola etab. aprobeztatzen badira.

Zeintzuk dira elikagai integralak kontsumitzearen abantailak?

Giza gorputzak edozein substantzia metabolizatzeko elementu babesleak behar ditu, hots, bitaminak eta mineralak. Elikagaiak birfintzen direnean osagai horiek galdu egiten dira eta, ondorioz, gabezia sortzen da. Izan ere, gaur egun askok eta askok bitamina-komplexuak, burdin xarabeak, gari hozia edo magnesio pilulak hartzen dituzte.

Adibide gisa, xaguetan gari garaua osorik (integrala) jaten dute, baina hau birfintzen denean irin zuri bihurtzen da eta orduan ez dute jaten. Honek pentsarazi beharko liguke, ezen gaur egungo populazioaren %90etik gora irin birfinduaren kontsumitzaile baita.

ELIKAGAI BIOLOGIKOAK

Nola beren ongarriztapenean hala beren ondorengo prozesaketan produktu kimikorik erantsi gabe ekoizten diren haiek dira.

Ongarri kimikoak XX. mende hasieran hasi ziren eskuarki erabiltzen, potasio, nitrato moduan. Hauek erabiltzearen ondorioz ekoiztutako elikagaiek bolumen handiagoa hartzen dute. Honen arrazoiak potasioak efektu espantsibo indartsua duela da. Produktu kimiko honek magnesioaren zurgapenean ere du eragina. Horregatik, ongarririk kimikoez kultibatutako barazki edo fruitu bat tamaina handiagokoa izan ohi da, eta gainera, zapore gutxiago, ur gehiago eta estraktu lehor gutxiago izaten du aipatutako ongarririk erabili gabe kultibatzen denak baino. Maiz askotan, zaporerik gabeko tomate edo sagarrak aurkitzen ditugu edo, baita ere, haragi xamurreko baina zaporegabeko oilaskoak.

Eta honi guztiari, pertsona bakoitzak urtero kontserbatzaile, koloratzaile, azidifikatzaile, antioxidatzaile eta halakoen artean kontsumitzen dituen 4 edo 5 aditibo kiloak erantsi behar dizkiogu!

ELIKAGAI TERAPEUTIKOAK

Elikagaiak nutrienteen batuketa baino gehiago dira. Hots, azenarioa ez da soilik bere baitan dauzkan karbohidrato, zuntz, bitamina, etab...

Elikagai bat terapeutikoa izan dadin bere sodio/potasio erlazioak geure barne inguruneak duenaren ahalik eta antzekoena izan behar du. Horrela, balantzea, homeostasia, oreka lortzen da eta hori osasuna da. Elikagai bat oso diuretiko (esparragoak, adib.) edo oso proteiko (arrautzak) baldin bada eta gaisoari desoreka bat zuzentzeko ematen bazaio, botika sintomatiko baten antzera funtzionatuko du: desoreka zuzenduz baina balantzerik sortu gabe.

Puntu han esentziala da dietaz terapia egin nahi denean. Arlo honetan hutsune handia dago gaur egun, bai medizina alopatikoan eta baita dietetika klasikoan ere. Tratamendu jakin bat aplikatzea espezialisten kontua da. Irakurleari zera gomendatzen diogu: erosketak egiten dituen elikagai naturalak, integralak eta biologikoak aukera ditzala.

3 HIPOTESIAK BAI EZTATU ALA EZEZTATU

- Testua irakurri duzuela, jar zaitezte bikoteka berriro eta konproba ezazue zertan asmatu duzuen eta zertan ez.

ZER DIRA BENETAN...?	
ELIKAGAI NATURALAK	ELIKAGAI BIOLOGIKOAK
ELIKAGAI INTEGRALAK	ELIKAGAI TERAPEUTIKOAK

4 ZER JANGO ZENUKE ORAIN?

- Jatea gure kulturaren osagai nagusietako bat omen da. Zuri, baina, zer gustatzen zaizu eta zer ez? Egizu gustuko jakien zerrendatxoa. Hau egindakoa, taldeka jarri eta zeuen gustuen berri emango al diozue elkarri?

GOGOKO JAKIAK	GOGOKO EZ DITUZUNAK

- Komenta itzazue puntu hauek:



1. Egia al da dietaren araberako osasuna izan ohi dugula?
2. Zertan da dieta orekatua? Zer jan behar genuke eta zer ez?
3. Elikagai naturalak, biologikoak... zer deritzezu honelakoei?

4 TELEBISTA-EREDUAK

Unitate didaktiko honetan:

- **Ulermena nola gertatzen den hausnartuko duzu**
- **Irakurri bitarteko predikzioak egiten arituko zara**


GAIA: TELEBISTA

TELEBISTA-EREDUAK

1 NOLA GERTATZEN DA ULERMENA?

- Beheko eskeman irakurriaren ulermena nola garatzen den laburbildu nahi duen eskema aurkituko duzu. Kontuan har ezazu urrats guztiak ez direla beti ordena berean gertatzen. Gainera, geure ama-hizkuntzan inkontzienteki garatzen ditugun prozesuak dira. Ezagutu eta euskaraz ere erabil itzazu!

ULERMENAREN PROZESUA



2 ZER USTE DUZU?

- Komenta itzazue honako puntu hauek:

1. Behar baino denbora luzeago ematen ote dugu telebistaren aurrean?
2. Ba al dakigu telebista ikusten, hau da, gogoko ditugun saioak aukeratu eta interesik ez dutenak albo batera uzten?
3. Nolako eragina du telebista hainbeste orduz ikusteak? Kaltegarria ote da? Zergatik?

3 IRAKURRI BITARTEKO HIPOTESIAK

- **Segidan Jose Inazio Ansorenak (Mirri pailazoa) *Euskaldunon Egunkarian* argitaratu emandako iritzi-artikulu baten hasierako zatia irakurriko duzu (1994-3-23). Zenbait testu-pasarteren amaieran galdera batzuk aurkituko dituzu. Saia zaitez bakarka erantzuten, eta gero komenta itzazu alboko ikaskidearekin.**

TELEBISTA-EREDUAK

Mafaldak bere txiste batean, honela galdetu zien eskolako umei: «Aparteko zomorroa al naiz ba telebistatik ez edukitzeagatik?». Eta erantzun borobil eta dudarik gabekoa eman zioten berehala haien begiek: baietz.

1. Paragrafoaren lehen zatia irakurrita, txistearen zein amaiera (erantzuna) espero zenuen? Asmatu duzu?
2. Sarrera irakurrita, nola segituko du artikuluak, hau da, zein ideia etorriko da orain?
3. Zein trataera egingo du gaiaz? Telebista dela eta zein jarrera defendatuko duela uste duzu?
4. Bikoteka komentatu aurreko puntuak.

Azterketa soziologikoez garbi azaldu dute. Mendetako tradizioak galdu edo makaldu diren urte hauetan, ohitura berri eta ondo errotua sortu da: telebistari begira egotea. Etxe gehienetan, automatikoki, erabakirik hartu gabe, ordu jakin batzuetan (bazkal ondoren, afal ondoren, lehenago...) telebista pizten da. Eta beste askotan ez da kasik inoiz itzaltzen. Umerik bada, oraindik gutxiago.

1. Paragrafo honetan garatu duen ideia aurreikusi edo asmatu al duzu?
2. Telebista kritikatu ote du segidan?
3. Bikoteka komentatu.

Zaharrek kontatuta dakit. Garai batean, direla berrogeita hamar urte edo, automobila gidatzeko baimena modu errazean lortzen zen: Estatuaren bulego ofizial batean eskaera egin, hainbeste diruz ordaindu eta akabo. Ez zen ikastaldirik

behar, ezta azterketarik ere.

Gure egunetan zailago jarri dute kontua. Azken batean automobila torpedo baten antzekoa izan daiteke, oso arriskutsua. Eta gure agintariek erabaki asko hartu dituzte: nolako azterketak, eta nolako ikasketak egin azterketa aurretik, pertsonaren adinaren arabera zenbatean behin berritu behar diren baimenak, multak eta kontrolak errepideetan, gazte eta umeentzako trafiko arauak ezagutarazteko kanpainak eskoletan, komunikabideetan, eta abar.

Eta arriskutsuak diren edo izan daitezkeen beste arlo askotan ere tankera bereko neurriak ezarri dizkigute: tabakoa, alkohola, drogak...

1. Aurrekoa irakurrita, nolako ondorioa ateratu nahi duela iruditzen zaizu? Zer proposatu edo iradokiko du artikuluak?
2. Bikoteka komentatu.

Orain telebista zein arriskutsua izan daitekeen ere konturatzen hasiak gara. Isil-misilka, txirrina jo gabe etxean sartu eta ustekabean eta pijamaz jantzita, harrapatzen gaituen etsaia bihurtzen ari da telebista. Eta audientzien borroka abiatu zenetik gainera, etsai amorratua, kupida eta lotsarik gabekoa. Zer egin behar da etsai honen aurrean? Orain gutxi Aita Santuak arazo askotarako balio dion kontseilua eman du: abstinentzia, «Telebista familiaren etsaia da. Onena itzaltzea». Ez da aholku txarra. Baina honetan ere inork gutxik jarraituko

dionez, beste bideak aipatzea ona izango da.

1. Artikuluak nola segituko zuen asmatu al duzu?
2. Orain zein bide uste duzu proposatuko duela?
3. Bikoteka komentatu.

Eskoletan irakatsi behar da telebista ikusten. Gai sakona da eta askotarako bide ematen duena. Txikitandik eta urtero-urtero landu beharreko arloa. Eta astero bere denbora eskaini behar zaio honi.

1. Bide hau asmatu al duzu?
2. Besterik proposatuko duela uste al duzu?

Telebista guztiek izan beharko lukete etika kodea eta hori betetzen den ala ez neurtzeko erakunderik ere antolatu beharko litzateke.

Eta telebista guztiek beraiek, tabako paketeetan egiten den bezala, gastigatu beharko lituzkete ikusleak (Ez zigortu. Hori maiz egiten dute) eta egunero hainbat aldiz gogorazi telebista gehiegi ikustea

kaltegarria dela, ikusten den bitartean tonto-tonto eta etengabe jatea txarra dela, onena programa zehatzetara jotzea dela eta ez besterik gabe egunero eta pentsatu gabe botoia sakatzea... Alegia, gaur egun egiten dutenaren kontrakoa juxtu-juxtu.

1. Asmatu al duzu?
2. Nola amaituko da artikulua?

Behar bada, inori autobonboa irudituko zaio. Baina Txirri, Mirri eta Txiribitonen kanta batek oso ondo adierazten du hau dena:

1. Aurreko guztia irakurrita, zein izango da kantaren mezua?

Klikla, klikla / piztu telebista. / Klakli, klakli / telebista itzali. / Telea ikusteko / baina ez tontotzeko. / Egin ezazu aukera: / ez ikusi sobera. / Lagunekin ibili / maiz samar irakurri / programa onak hautatu / eta ez hipnotizatu.

4 TELEBISTA-SAIORIK IKUSIENAK

➤ Zein dira azken boladan ikusle gehien duten telebista-saioak? Kalitate hobereenekoak al dira? Zein dira txarrak baino txarragoak? Taldeka zaudetela, egin ezazue telebista-saioen sailkapena:

SAIO IKUSIENAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

SAIO NAZKANTEENAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

SAIO ONENAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

ADIZU!

- Sailkapena egiteko baliabide linguistikoak beharko dituzue. Honako hauei errepara:
 1. Superlatiboekin sarri gertatzen den nahasketa hau: *ikusiena / ikusiagoa*.
 2. *On* hitzaren konparazioa *hobe* litzateke, ez **hobeago*.
 3. *-egi* eta *-ago* atzizkiak ere sarritan nahasten dira.
 4. Berdintasuna adieraztean, *bezain* eta *beste* partikulak nahastu ohi dira.
- Komunikazioa arintzeko keinuak ere beharrezkoak dira.
- Zeure ideia adieraztean zailtasunen bat baduzu, laguntza eskatu ikaskideei: Adib.: “...zera, nola deitzen da...?”
- Adierazi nahi duzun ideia atera ezinean bazabiltza, parafrasia zein bestelako erreferentziak egin daitezke.

5 BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDE

Unitate didaktiko honetan:

- **Eguneroko bizitzan zertarako irakurtzen dugun pentsatuko duzu**
- **Irakurtzean dugun helburuaren arabera, modu edo estilo zehatza aukeratzeko dugula konturatuko zara**
- **Irakur-estilo ezberdinak ezagutuko dituzu**

GAIA: BIDEZKO MERKATARITZA

BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDE

1 ZERTARAKO IRAKURTZEN DUZU?

- Zertarako irakurtzen duzu normalean? Beti irakurtzen al duzu helburu berberarekin? Helburuaren arabera irakur-estiloa izaten al duzu? Ariketa egin aurretik, bete ezazu galdetegi txiki hau bakarka eta honetaz gogoeta egiteko modua izango duzu.

1. Zer eta zertarako irakurtzen dudan arabera, modu bat ala bestea aukeratzen dut.
2. Irakurtzen dudanean, nire helburua beti izaten da antzekoa: den-dena ulertzea eta ñabardura guztiei erreparatzea.
3. Modu ezberdinetan irakurtzen ditut, adibidez, aldizkari bat, sukaldaritzako errezeta bat edota azterketa baterako apunteak.
4. Irakurle ona, asmoaren arabera irakur-estilo jakin bat aukeratzen dakiena da.

ADOS	AURKA

- Hona hemen irakur-estiloak eta helburuak laburbildu nahi dituen eskema laburra. Lehen zutabea, zein testu eta nolako egoeratan zehaztekoa, alegia, hutsik utzi dugu. Beteko al zenuke? Nahi izanez gero, bikoteka egin.

ZEIN TESTU IRAKURRIKO GENUKE HONELA?

Zein testu / zein egoera?	Nola irakurri (estiloa)	Zertarako (helburua)
	1. Nahi gabekoa	1. Irakurketa inkontzientea da: ikusi eta irakurri aldi berean gertatzen direlako.
	2. Irakurketa azkarra	2. Irakurleak nolako testua den jakin nahi du, baina oso azkar irakurriz.
	2.1. Gainetik irakurri	2.1. Testua zeri buruzkoa den jakiteko irakurketa.
	2.2. Zerbaiten bila irakurri	2.2. Testuan informazio konkretu bat bilatzeko irakurtzea.
	3. Arretaz irakurri	3. Testutik informazio oso zehatza eskuratu nahi du irakurleak: testuak zer dioen jakin nahi du, baina baita nola dioen ere.
	4. Atseginez irakurri	4. Irakurleak atseginez eta plazerrez irakurtzen du.

2 ZER DAKIZUE GAI HONETAZ?

➤ **Komenta itzazue honako puntu hauek ahoz:**

1. Ezagutzen al duzue elkartasuneko produktuak saltzen dituen dendarik?
2. Zer saltzen dute denda horietan?
3. Inoiz ezer erosi al duzu horrelakoetan?
4. Zertarako dira horrelako ekimenak?
5. Munduko merkataritza justua al da?

3 IRAKURTZEKO MODU EZBERDINAK

➤ ***Euskaldunon Egunkarian 1996ko urriaren 13an argitara emandako artikulua hau irakurriko duzue segidan. Edonola ere, behean zerrendatzen diren urratsei jarraitu beharko diezue.***

Estiloa	Helburua	Denbora
1. Nahi gabe egiten dena	Ez dago irakurtzeko arrazoi kontzienterik.	Segundo bakar batzuk, oso arin.

➤ **Galdera hauei erantzun:**

1. Zein da testuaren titulua?
2. Zein da egilea?
3. Zein izango da egileak aurkeztuko duen gai nagusia?
4. Zenbat paragrafo edo atal nagusi ditu testuak?

Estiloa	Helburua	Denbora
2.1. Gainetik irakurri	Testua nolakoa den jakin nahi dugu, arin-arin irakurriz.	Bizpahiru minutuz

➤ **Bila ezazu testuari buruzko informazio orokorra:**

1. Zein da gaia?
2. Ahal izanez gero, ideia nagusiak azpimarratu

➤ **Kontura zaitetz askotan ideia nagusia paragrafoaren hasieran doala.**

Estiloa	Helburua	Denbora
---------	----------	---------

2.2. Zerbaiten bila irakurri Testutik informazio jakin bat lortu nahi dugu. Hiruzpalau minutuz

➤ **Galdera hauei erantzuna eman:**

1. Zein eratako produktuak ari dira gehienbat komertzializatzen?
2. Horrelako zenbat denda dago gaur egun Europan?
3. Zein hiritan zabaldu zen lehen denda? Zein urtetan?
4. Zer gertatu da jateko ohiturekin orokorrean?
5. Zein dira produktuak komertzializatzeko erabilitako markak?
6. Zenbat erakunde ari dira gurean *bidezko merkataritzan* lanean?

Estiloa	Helburua	Denbora
---------	----------	---------

3. Arretaz irakurri Testutik informazio jakina eskuratu nahi dugu, formari erreparatuz eta ideien interpretazioa eginez. Bost minutuz

➤ **Galdera hauei erantzuna eman:**

1. Nolako sufrimendua dago eguneroko kafetxoaren atzean?
2. Zergatik dakar miseria kakaoaren murrizteak?
3. Zein da *bidezko merkataritzak* ustez dakarren beste kontzientzia hori?
4. Zergatik dira elkertasunezko dendak gaur egungo ordena ekonomikoaren alternatiba?
Zertan da, bada, ordena ekonomiko hori?
5. Komertzio arruntarekin konparatuta, zer hobetu behar du *bidezko merkataritzak*?

BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDE

Denda alternatiboek elkartasuneko produktuak eskaintzen dituzte

Nondik dator kafea? Zein egoeratan bizi dira kakao edo te produktoreak? Ordaintzen dugun dirutik zenbat gelditzen zaie pertsona horiei? Askotan ez dugu ezagutzen eguneroko kafetxoaren atzean dagoen sofrimendua, edo txokolatea egiteko erabiltzen den kakao kantitatea murrizteak dakarren miseria. Galdera hauei erantzuteko eta gai honen inguruan beste kontzientzia bultzatzeko *bidezko merkataritza* sortu da, Gobernu Kanpoko Erakundeen (GKE) lana zabaltzen duen ekimen bat.

Poliki-poliki denda mota berri bat sortzen ari da, bai Euskal Herrian bai inguruko herrietan: elkartasuneko dendak dira, eta horietan saltzen diren produktuak Hirugarren Munduko produktoreei zuzenean erositakoak dira, hau da, multinazionaletatik aparte. Horren helburua Hegoaldeko – hau da, munduaren *hegoaldeko* – produktore eta nekazariei prezio egokiak ordainduz, oinarritzko segurtasuna ematea da. Era horretan, konpentsazio ekonomiko justua lortzen dute pertsona horiek, munduko merkatuen aldaketetatik kanpo.

Produktoreek bizimodu duin bat izateko adina izan dezakete horrela. Eta ez da gutxi, kontuan hartzen badugu produktu askoren salneurriaren aldaketek askotan gosea eta pobrezia sortzen dutela. Lehengaien prezioak aldakorregiak izaten dira, eta ustekabeen jausten dira sarritan. Nolabait, denda horien bidez, gaur egungo ordena ekonomikoaren aurrean alternatiba txiki bat eskaintzen saiatzen da mugimendu berri hau.

Bidezko merkataritza izenarekin ezagutzen den aktibitate hau gero eta indar handiagoa ari da hartzen. Datuek ondo erakusten dute joera honen garrantzia:

1994. urtean bakarrik bidezko merkataritzaren salmentak 200 milioi *ecu*-koak izan ziren (32.200 milioi pezeta edo 1,3 miliar libera inguru). Produktu horiek 44 herriako 800 produktore-erakundeen bidez eskuratu ziren. Gutxi gorabehera bost milioi pertsonari lagundu zaie.

Une honetan Europa osoan hiru mila denda daude, gehienak sareetan elkarturik. Horrekin batera, produktu horiek 30 merkatu kate konbentzionaletan banatzen dira. Zabalkunde hau 27 urteren buruan lortu da, lehenengo denda 1969. urtean ireki baitzen Holandako Breukele hirian.

Dena den, zifra baikorrak izan arren, alde handia dago oraindik komertzio arruntarekin konparatuz gero. Gehienbat, sare honen bidez zabaltzen direnak artisautzako produktuak dira, eta janari jakin batzuk: batik bat kafea, txokolatea, tea, rona, marmelada... Denda guztiak EFTA izeneko erakundearen antolatzen dira (Bidezko Merkataritzaren Erakunde Europarra), eta hiru marka erabiliz komertzializatzen dira: Transfair, Max Havelaar eta FairTrade. Beste kasu batzuetan, Hegoaldeko herriek berek komertzializatzen dituzte produktuak kanal hauek erabiliz.

Hego Euskal Herrian dagoeneko badaude horrelako dendak martxan. Esate baterako, ondoko talde hauenak: Bizkaiko Rezikleta (Erletxe poligonoa. 5. pabilioia. 48960-Galdakao. 94-4571447 telefonoa); Iruñeko Emaus Traperuak (San Martin kalea 5. 948-126678 telefonoa); Donostiako Traperuak (Bizkaiko pasealekua 13, 943-470826 telefonoa). Merezi du hauetara hurbiltzea laguntzeko prest bazaude.

Joxerra Zabala

6 DROGA SINTETIKOEN NAHASTE- BORRASTEA

Unitate didaktiko honetan:

- **Testu baten irakurketa
azkarra egingo duzu:**
 - 1. Gaietik irakurriko duzu**
 - 2. Informazio jakin baten
bila irakurriko duzu**

GAIA: DROGAK

DROGA SINTETIKOEN NAHASTE-BORRASTEA

1 ZUK ZER USTE DUZU?

➤ **Taldean zaudetela, arin-arin, komenta itzazue honako puntu hauek:**

1. Nola definituko zenuke *droga* kontzeptua? Zer dira drogak?
2. Drogak betidanik existitu dira. Zer dela eta dute horrenbesteko gaitzespena gaur egun?
3. Drogak legalizatu behar ote lirateke? Zergatik?
4. Gurean alkohola droga legala den bitartean, herri arabiarretan debekatuta dago. Zein dira legalak / ilegalak izateko arrazoiak?

2 IRAKURRI AURRETIK

➤ **Erantzun iezaiezue galdera hauei bikoteka jarrita.**

1. Irakurriko duzuen artikulua egilea Martin Barriuso deitzen da. Ezagutzen al duzue?
2. Martin Barriuso *Bizitzeko, Drogak Askatzearen Aldeko Plataformako* kidea da. Ezagutzen al duzue plataforma hori? Ezagutu ez arren, zeren aldeko ekimena egingo duela uste duzue?
3. Artikuluak, beraz, zer defendatuko du?
4. Nolako aldea dago droga sintetikoaren eta diseinuzkoen artean?

3 GAINETIK IRAKURRI

➤ **Orain testua azkar irakurri behar duzu (iturria: *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-7-27) baina aurreko atalean egin dituzuen predikzioak egiaztatu ala ezeztatzeke. Ez duzu zehaztasun handirik jaso behar. Behekoak baino ez.**

1. Zer defendatzen du artikulua?
2. Nolako aldea dago droga sintetikoaren eta diseinuzkoen artean? Bete ezazu beheko eskema:

DROGEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK	
DISEINUZKO DROGAK	DROGA SINTETIKOAK

DROGA SINTETIKOEN NAHASTE-BORRASTEA

Droga kontuetan beti gertatzen da berdin. Arazoak benetan hasi baino lehen, adituak larri-larri agertzen zaizkigu, geroak ekarriko dituen desastreak iragarri eta gizartea horren aurrean mobilizatzen deituaz. Ostean, informazio kanpainak hasten dira, benetako informazioa inondik ere ez dela ageri. Segituan, edo aurrekoarekin batera, neurri errepresiboak ezarri edo areagotu egiten dira. Eta azkenean benetako arazoak datoz, hasieratik ekidin nahi omen zirenak, alegia. Horrela gertatu zen *droga gogor* deituak izan zirenekin eta horixe bera ari dira egiten sintesizko drogekin, droga hauek zer eta nolakoak diren jende gutxi dakien arren. Eta beste inork baino gutxiago komunikabideetan hain berritsu azaltzen den hainbat aditu eta arduradun politikok. Ondorioz, jakina, astakeria galantak irakurtzeko parada ematen digute.

Hasteko, diseinuzko drogak eta droga sintetikoak oraindik bereizten ere ez dakite askok. Nahaste horiek komunikabideetako hizkera kutsatu eta gizartera zabaltzen da. Baina kontzeptu biek ez daukate zerikusirik. Diseinuzko droga, izenak dioen bezala, propio eta nolabait neurritan sortutako sustantzia da: ezaugarri jakin batzuk bilatzen dira eta horretara bideratzen da ikerketa. Askotan, debekua, urritasuna edo efektu txarren bategatik ezin erabil daitekeen beste droga ezagun bat ordezkatzeko sortzen da. Adibide ezagunena metadona dugu. Hitler-en garaian Alemanian sortua, blokeoa zela eta lortzeko zaila zen morfina ordez erabiltzeko, hain zuzen. Droga sintetikoak, laborategian sintesi kimikoz lortzen direnak dira, naturan – landare batean, adibidez – ematen den lehengai batetik abiatu beharrik gabe. Hemen alarma piztu duena, MDMA edo *estasia* sintetikoa da baina inola ere ez diseinuzkoa, laborategi farmazeutiko batean kasualitatez aurkitu zuten eta.

Kasualitatez aurkitu eta gutxi ezagutu, hori da droga sintetikoen errealitatea. Duela 30 bat urte, Shulgin doktore amerikarra hasi

zen MDMAren efektuak eta ondorioak aztertzen. Bi hamarkada beranduago, oraindik behar bezain ezaguna ez zenean, eta tratamendu psikiatrikorako aplikazioan aurrerapausu interesgarriak ematen ari zirelarik, estasia debekatu egin zen. 1987az geroztik, guztiz galerazita dago. Ikerketa zientifikoak ere oso mugatuta daude, animaliekin besterik ezin daitezkeela egin. Honek ezjakintasun ikaragarria ekarri du: ez dago ez psikiatryan, ezta ondorioen azterketan ere, aurrerapausurik ematerik. Egindako esperientzia bakarrak animaliekin egin dira, baina lortutako emaitzek ez dute apenas bailorik, pertsoneri aplikatzerik ez dago eta. Inork ez dauka argi zein ondorio eduki dezakeen estasia luzaroko kontsumitzeak. Beno, baten batek bai. EAEko Droga-menpekotasun Kontseiluak badaki. Zehatz-mehatz ez dakiten arren, ziur daude ondorioa «larria, arriskutsua eta atzerazina dela». Hain informazio fidagarri eta zalantzagabeko honen iturria ez dute aipatzen, baina bertoko sasiadituren batek hankapetik atera duen inpresioa daukat. Eta bertoko baten hankapekoa ez bada, seguru kanpoko *jakintsuren* bati kopiatu diola astakeria hori. Aurreikuspenak egitera ere ausartzen dira, estasiak ekarriko dituen gaitz psikiatrikoak nolakoak izango diren esplikatu.

MDMAri buruz, dena dela, badakigu zerbait seguru: Legearen barruan egon zen bitartean, hogeit hamar inguru, ez zen mundu osoan hildakorik bat bera ere gertatu haren kontsumoagatik, ez zen adikto edo menpekorik deskubritu eta ez zen osasun ondorio txarrik antzeman. Legetik at jarri zutenean hasi ziren hildakoak, merkatu beltzak ekarritako adulterazioaren eskutik. Dena dela, deigarria da hain kontsumo handia duen sustantzia adulteratu honek zein heriotza gutxi ekarri duen, botiketan saltzen den hainbat eta hainbat sustantziarekin konparatuta eta leporatzen zaion hainbat heriotza oso zalantzazkoa dela oharturik. Oraingo gutxi agertu da adiktoa dela aitortuta, baina gehiago izango direlako susmoa daukat. Ez da

harritzekoa, zerbaitek adikzioa dakarrela komunikabideetan behin eta berriz errepikatuz gero, azkenean adiktoak agertzen baitira, sustantzia adiktiboa ez izan arren. Gainera, Hiritarren Segurtasunerako Legean leku publikoetan drogak edukitzea edo kontsumitzeagatik aurreikusitako isunak barkatuak izateko modu bakarra adikzioaren aurkako tratamendua hartzea dela kontutan hartuta, gero eta jende gehiagok onartuko du engantxatuta dagoela, ez bakarrik estasiarekin, baita hiru mila urtetan adiktorek sortu ez duen kalamuarekin ere. Ehun edo berrehun mila pezeta ordaintzetik libratzeko bidea adiktoa zarela onartzea bada, asko pasatuko dira uztaitik. Hala ere, oraingo errepresioa nahikoa ez denez, antza *neurri koerzitibo* gehiago mahairatu dute. Betikoa.

Beste leku batzuetan benetako informazio kanpainak egiten dira, gaurregun dakiguna azalduz edota, estasia hartzea erabakiz gero, zer den kaltegarria eta zer komenigarria erakutsiz. Hau da,

kontsumoa hor dagoela jakinda, behintzat, ez dadila osasunaren kalterako izan. Holandan, hogeitahogerekoen truke, diskategietako sarreretan pilulak momentuan analizatzeko zerbitzua eskaintzen dute osasun erakundeek, baita propio prestatutako anbulantzia jarri ere. Baina Herbehereak herri atzeratua dira, denok dakigunez, eta han egindakoak ez omen du honako balio. Hango gazteak ez dira pozoinduta hiltzen, hemengoak ez bezala, baina hilotzen batek, noizean behin, alarma sozialari eutsi eta gure agintari txit argien kanpainei jaramon handiagoa egiten laguntzen du. Inor hilko edo gaisotuko ez balitz, «droga sintetikoak hartuta ezer gertatzen ez delako mitoa» haustea eta gizartean hain beharrezkoa duten alarma piztea ezinezkoa litzateke. Eta hori kaltegarria litzateke, ezta?

Martin Barriuso
Bizitzeko, Drogak Askatzearen Aldeko
Plataformako kidea
(moldatua)

4 INFORMAZIO JAKIN BATEN BILA

➤ **Berriro irakurri testua baina orain behean eskatzen zaizun informazioa jasotzeko bakarrik. Alde batera utzi gainerako informazio eta datu guztiak.**

1. Nolako prozesua deskribatzen du testuak droga kontuetan?
2. Nolako izenaz ezagutzen dugu MDMAD?
3. Noiz debekatu zuten estasia?
4. Medikuntzako zein alorretan ari ziren estasia erabiltzen?
5. Noiz hasi ziren estasiak sorturiko hilketak gertatzen? Zergatik?
6. Leku publikoetan drogak eduki edo kontsumitzeagatik, legeak ba ote du zigorrik?
7. Kalamuak adikziorik sortzen al du?
8. Zer egiten dute Holandako diskoteketako sarreretan?

5 LEGALIZAZIOARI BAI ALA EZ?

- Taldeka zaudetela, zerrenda itzazue zuen ustez drogen legalizazioak ekar litzakeen abantailak eta kalteak. Gero, komenta ezazue egindakoa denon artean.

LEGALIZAZIOAREN ABANTAILAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

LEGALIZAZIOAREN KALTEAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____

ADIZU!

- Ustezko egoera dela, baldintza adierazi beharrea izango zarete behin baino gehiagotan. Erabil itzazu honako baliabide hauek:

1. -z gero: erreal zain irreal izan daiteke.
2. -(z)era : erreal zain irreal izan daiteke.

- Hitzen bat gogoratzen ez baduzu, saia zaitez konparazio edo deskribapenez ideia hori adierazten, baina ez isildu edo ez utzi denbora gehiegi pasatzen.

- Halaber, ideia nagusiak errepikatu edo laburtu ahal dituzu, pentsatzeko denbora hartuz.

- Erabil itzazu betelaneko formulak (*zera da, horixe esan nahi nuen, bada...*) pentsatzeko behar duzun denbora irabazteko.

7 AITA BANANDUAK

Unitate didaktiko honetan:

- **Testu bat arretaz irakurriko duzu**
 - 1. Edukiari edo mezuari erreparatuko diozu**
 - 2. Formari edo hizkuntzari ere erreparatzeko modua izango duzu**

GAIA: DIBORTZIOA ETA UMEAK

AITA BANANDUAK

1 IRAKURKETA AZKARRA

- **Hona hemen Amaia Vazquezek 1995eko martxoaren 2an *Euskaldunon Egunkarian* argitara emandako testu labur bat. Arin-arin irakur ezazu, gaia eta ideia nagusiak identifikatze aldera.**

AITA BANANDUAK

Aita izan berria den batekin hizketan ari ginela separazioari buruz, semea berarekin batean eramango lukeela aipatu zidan bera bananduz gero, legeak kontrakoa dioten arren. Solasaldi honek aita separatuen elkarteak ekarri zidan gogora, elkarte horien erreibindikapenetan arazo legalez gain etikoarekin ere topo egiten dugulako hain zuzen ere. Jabe naiz aita hauek oraindik eta zoritxarrez, gutxiengo bat ordezkatzeko dutela aitatasun arduratsuen aldarrikapenean, baina ezin dute baztertuak izan ikuspegi etikotik begirata. Esan nahi baitut, heziketaren eremuan aitatasunaren zeregina bere lekuan jartzen saiatzen ari gara gero eta indar haundiagoz, aitei mezu garrantzitsuak zuzentzen zaizkie dagozkien ardurak har ditzaten, eta ezin da ukatu bestetik, gizon batzuek, oso jabetuta daudelarik, aukeratzen dutela aita izatea, lekarzkiokoen ondorio guztiak barne.

Beraz, eta guzti horregatik separazio baten aurrean ez da hain erraza izaten seme-alaben zaintza nori eman behar zaion jakitea, batipat, adin bat dutenetik aurrera. Auzi honetan legeak eta emakumeok ere ulerkorragoak behar dugu izan, aitok beren seme-alabekin duten egunerokotasuna galdu egiten dute eta latza izan behar du ondorioz, afektibitate eta sentimendu ikuspuntutik bederen, horri uko egiteak. Dena den, garbi dago, bestaldetik, auziok gogoragoak izaten direla era egokian banantzen ikasi ez dugunez egun, eta helduen borroketan seme-alabak bestea mintzeko tresnatzat erabiliak izaten direnez. Horregatik, gaitzago gertatzen zaigu maiz, aita hauek seme-alabak beraiekin izateko adierazten duten nahia eta gogoa sinestea. Egiazko istorio honetan, ordea, aitok eta amok elkar konprenitzea beste erremediorik ez dugu, horretara behartuta gaude. Egin ditzagun ahaleginak, hortaz!

2 IDATZIZKO LABURPENA

- **Bakarka zaudela, egizu irakurritako artikulua laburpentxo bospasei lerrotan. Hau egindakoan, elkarri pasa laburpenok eta adostu laburpenean agertu beharreko gutxieneko informazioa. Laburpena egiteko, zein ideia ziren beharrezkoak eta zein utz zitezkeen albora?**

3 ASTIRO IRAKURRIZ: EDUKIARI ERREPARATU

- **Irakur ezazu berriro testua baina astiro-astiro, planteatzen zaizkizun galderoi erantzuteko asmoz. Galdera hauen bitartez egileak zer esan nahi duen interpretatzen saiatuko gara. Gogora ezazu, bestela ere, askotan ez dagoela erantzun bakarra, asko eta asko subjektiboak baitira. (Testua zatikatu dugu beste era batean)**

Aita izan berria den batekin hizketan ari ginela separazioari buruz, semea berarekin batean eramango lukeela aipatu zidan bera bananduz gero, legeak kontrakoa dioen arren.

Solasaldi honek aita separatuen elkartea ekarri zidan gogora, elkarre horien erreibindikapenetan arazo legalez gain etikoarekin ere topo egiten dugulako hain zuzen ere. Jabe naiz aita hauek oraindik eta zoritxarrez, gutxiengo bat ordezkatzan dutela aitatasun arduratsuen aldarrikapenean, baina ezin dute baztertuak izan ikuspegi etikotik begiratuta.

Esan nahi baitut, heziketaren eremuan aitatasunaren zeregina bere lekuan jartzen saiatzen ari gara gero eta indar haundiagoz, aitei mezu garrantzitsuak zuzentzen zaizkie dagozkien ardurak har ditzaten, eta ezin da ukatu bestetik, gizon batzuek, oso jabetuta daudelarik, aukeratzen dutela aita izatea, lekarzkiekeen ondorio guztiak barne.

Beraz, eta guzti horrengatik separazio baten aurrean ez da hain erraza izaten seme-alaben zaintza nori eman behar zaion jakitea, batipat, adin bat dutenetik aurrera. Auzi honetan legeak eta emakumeok ere ulerkorragoak behar dugu izan, aitok beren seme-alabekin duten egunerokotasuna galdu egiten dute eta latza izan behar du ondorioz, afektibitate eta sentimendu ikuspuntutik bederen, horri uko egiteak.

Dena den, garbi dago, bestaldetik, auziok gogoragoak izaten direla era egokian banantzen ikasi ez dugunez egun, eta helduen borroketan seme-alabak bestea mintzeko tresnatzat erabiliak izaten direnez.

Horrengatik, gaitzago gertatzen zaigu maiz, aita hauek seme-alabak beraiekin izateko adierazten duten nahia eta gogo sinestea. Egiazko istorio honetan, ordea, aitok eta amok elkar konprenitzea beste erremediorik ez dugu, horretara behartuta gaude. Egin ditzagun ahaleginak, hortaz!

1. Zein legeri egiten dio erreferentzia?
2. Zer gertatu ohi da seme-alaben zaintzarekin dibortzio-kasuetan?
3. Semea eraman dezakeela uste duzu?
4. Zer lortu nahi dute elkarre hauek?
5. Zer da aitatasun arduratsua?
6. Zein dira arazo etiko horiek?
7. Nolako mezuak bidaltzen zaizkie, bada?
8. Nolako ondorioak ekar liezazkioke aita arduratsua izateko erabaki horrek?
9. Legeak eta emakumeak ez ote dira ulerkorrak aita separatuekin?
10. Nolako ondorioak ekar ditzake seme-alaben zaintza galtzeak?
11. Zer da era egokian banantzea?
12. Benetan erabiltzen dira umeak beste ezkontidea mintzeko?
13. Zein da egileak mahairatzen duen zalantza auzi honetan?
14. Zer proposatzen du ondorio moduan?

4 ASTIRO IRAKURRIZ: FORMARI ERREPARATU

➤ Testuan zenbait egitura azpimarratu ditugu. Erantzun iezaiezu galderoi:

Aita izan berria den batekin hizketan ari ginela separazioari buruz, semea berarekin batean eramango lukeela aipatu zidan bera bananduz gero, legeak kontrakoa dioen arren.

Solasaldi honek aita separatuen elkarteak ekarri zidan gogora, elkarte horien erreibindikapenetan arazo legalez gain etikoarekin ere topo egiten dugulako hain zuzen ere. Jabe naiz aita hauek oraindik eta zoritxarrez, gutxiengo bat ordezkatzeko dutela aitatasun arduratsuaren aldarrikapenean, baina ezin dute baztertuak izan ikuspegi etikotik begiratuta.

Esan nahi baitut, heziketaren eremuan aitatasunaren zeregina bere lekuan jartzen saiatzen ari gara gero eta indar haundiagoz, aitei mezu garrantzitsuak zuzentzen zaizkie dagozkien ardurak har ditzaten, eta ezin da ukatu bestetik, gizon batzuek, oso jabetuta daudelarik, aukeratzen dutela aita izatea, lekarzkioken ondorio guztiak barne.

Beraz, eta guzti horrengatik separazio baten aurrean ez da hain erraza izaten seme-alaben zaintza nori eman behar zaion jakitea, batipat, adin bat dutenetik aurrera. Auzi honetan legeak eta emakumeok ere ulerkorragoak behar dugu izan, aitok beren seme-alabekin duten egunerokotasuna galdu egiten dute eta latza izan behar du ondorioz, afektibitate eta sentimendu ikuspuntutik bederen, horri uko egiteak.

Dena den, garbi dago, bestaldetik, auziok gogorragoak izaten direla era egokian banantzen ikasi ez dugunez egun, eta helduen borroketan seme-alabak bestea mintzeko tresnatzat erabiliak izaten direnez.

Horrengatik, gaitzago gertatzen zaigu maiz, aita hauek seme-alabak beraiekin izateko adierazten duten nahia eta gogoia sinestea. Egiazko istorio honetan, ordea, aitok eta amok elkar konprenitzea beste erremediorik ez dugu, horretara behartuta gaude. Egin ditzagun ahaleginak, hortaz!

1. Zein funtzio betetzen du *-(e)LA* horrek?
2. Zein funtzio betetzen du *-z gero* egiturak? Horretaz aparte, zein funtzio bete ditzake?
3. Ondo erabilia al dago *-pen* atzizkia hitz horretan?
4. Zein da *ezin* partikularen erregimena? Transitiboa ala intransitiboa?
5. Zer esan nahi du egitura horrek?
6. *Ekarri* aditzak zein esanahi du hemen? Berridatz ezazu esaldi hau aditz konposatua erabiliz.
7. Nola idazten da orain *guzti horrengatik*?
8. Nola idazten da orain *batipat*?
9. Ondo erabilia al dago plural hurbila esaldi honetan?
10. Eman itzazu *maiz* hitzaren bi sinonimo.
11. Ondo al dago erabilia plural hurbila?

5 EZTABAIDARAKO ZENBAIT PUNTU

➤ Denon artean zaudetela, komenta itzazue honako puntu hauek:

1. Ezer entzun duzue aita bananduen elkarteari buruz? Zer nahi dute aita hauek? Zer aldarrikatzen dute? Horien aldarrikapenei zuzen al deritzezu?
2. Bananduz gero, nori legokioke, zure ustez, seme-alaben zaintza, aitari ala amari?
3. Separazioetan umeak beste bikotekidea mintzeko tresna gisa erabiliak omen dira. Horrela behar al du izan? Nola ekidin daiteke arazo hau?
4. Amek hobeto zaindu ote dezakete umea? Zergatik?
5. Almudena Grandes idazlearen personaietako baten esanetan "*ama-sena hiltzaile-sena bezalakoa da; izan dezakezu ala ez*". Zer deritzozu honi?
6. Nolako arazoak izan ditzakete dibortziazatutako gurasoen seme-alabek?
7. Maitasuna ez bide da betirakoa. Beraz, honetara ohitu behar genuke, gerora zer gerta daitekeen pentsatzen hasi gabe.
8. Inorekin bizitzen hastetik hiruzpalau urtetara, elkarrekin bizi izaten ohitu gaitezke. Edozein kasutan, maitasuna dagoenik ezin esan liteke.

ADIZU!

- Iritzia emateko baliabideak beharko dituzu:
1. -(e)LA, -(e)NIK atzizkiak zuzen erabiltzen saia zaitez.
 2. Erabil itzazu adostasuna / ezadostasuna adierazteko esamoldeak (*neu ere horretan nago, ezetxean nago, agian bai, baina...*).
- Komunikazio-egoera batean garrantzitsua da solaskidearen erreakzioei ere erreparatzea. Har itzazu kontuan ondorengoak:
1. Aukera ezazu parte hartzeko unerik egokiena.
 2. Kontura zaitez solaskideek noiz eskatzen dizuten hitza.
 3. Besteek ulertu dizutela ziurtatu (*Bai...? Ados? Ulertzen?*)

8 EUSKARAREN BIDE LUZEA

Unitate didaktiko honetan:

- Ezein testu irakurri aurretik, aurre-ezagutzen garrantziaz konturatuko zara
- Arretaz irakurriko duzu
- Zailtasun handiko testuak hobeto ulertzeko estrategiak ezagutuko dituzu
- Irakurriaren ebaluazioa egingo duzu

ORIA

EUSKARAREN BIDE LUZEA

1 IRAKURRI AURRETIK

➤ **Taldeka zaudetela, komenta itzazue honako puntu hauek:**

1. Nor izan zen Lutero? Zelako mugimendua eragin zuen?
2. Zer dakizue protestantismoaz?
3. Zer izan zen Kontrarreforma? Nork eragin zuen?
4. Zeintzuk izan ziren euskaraz argitaratu ziren lehen liburuak?

➤ **Taldeak deseginda, emaiozue elkarri komentatutakoaren berri.**

2 AURRE-EZAGUTZEN GARRANTZIA

- **Sarritan irakurtzen ari garen testuaren ulermena oso zaila gerta dakiguke. Arrazoi posible bat, besteak beste, delako testu horren gaia ez ezagutzea izan daiteke, gure aurre-ezagutzak mugatuak izatea, alegia. Aurre-ezagutza hauek testua hobeto ulertzea ekar dezakete edo, bestela, testuaren ulermena zeharo oztopatzea. Geroago irakurriko duzuen testuaren ulermena errazteko, irakur itzazue arin-arin Elhuyarren *Hiztegi Entziklopedikoa* delakotik ateratako pasarte hauek.**

ERREFORMA: Europan Eliza protestanteak sortarazi zuen mugimendu erlijiosoa (XVI. m.). Erreforma hasieran Luther-en lana izan bazen ere, Zwingli eta Bucer-en bidez Alemaniatic kanpora hedatu zen. Herri frankofoetan Kalbin izan zen aldaketa erlijioso horren buru. Honen eraginez, Suitza eta Frantzia protestantismo berri bat zabaldu zen. Mugimendu hau Polonian, Bohemia, Hungaria eta Britainiar irletara iritsi zen (erreforma anglikanoa). Ondorioz, protestantismoaren barruan hiru talde desberdin ziren: luteranismoa, kalbinismoa eta anglikanismoa.

JOANNES LEIZARRAGA: euskal idazle lapurtarra (1506- 1601). Apaiz katolikoa zen, baina Joana III.a Albretekoa erregina protestante bihurtu zenean, berekin eraman zituen hainbat eta hainbat kristau, eta Leizarraga ere protestante bihurtu zen. Pabeko kontzilioan erreginak Itun Berriaren itzulpena eskatu zion Leizarragari dotrina zabaldu ahala izateko. Horrela *Iesus Chist Gure Iaunaren Testamendu Berria* (1571) argitaratu zuen. Leizarraga da lehen euskal prosalaria.

KONTRARREFORMA: Erreforma protestantearen aurka, Eliza katolikoak burututako erreforma-mugimendua (XVI. m.). Trentoko kontzilioan hasi (1545-1563) eta ehun bat urte iraun zuen. Fede katolikoa indartzeko eta Eliza katolikoan zeuden gehiegikeriak galarazteko ahalegin handiak egin zituzten. Mugimendu hau jesuiten ordena berriaren laguntzaz garatu zen eta protestantismora aldatutako Europako eskualdeen birkonkista katolikoa antolatzen saiatu zen.

JOANA III.a ALBRETEKOA: Nafarroako XXXVIII. Erregina (1555-1572). Kalbinismoa zabaltzeko asmoz, Joannes Leizarragari Testamendu Berriaren euskarazko itzulpena egiteko agindu zion.

- **Argitasunik eman al dizuete aurreko testutxoek? Informazio honekin eta lehenago zuen artean komentatutakoarekin hobeto ulertuko ahal duzue Mitxelenaren artikulua!**

3 AZKAR IRAKURRI

➤ **Segidan 1985ean EGako azterketa batean irakurriaren ulermena ebaluatzeko erabili zen testua irakurriko duzue. Har itzazue kontuan honako hauek:**

1. Aurreko atalean jasotako informazioaz baliatu.
2. Zailtasun handiko testua da. Beraz, arin-arin irakur ezazue lehen kontaktua izateko. Identifika itzazu gaia eta ideia nagusiak.

EUSKARAREN BIDE LUZEA

Euskaldunek, administralgo eta kultur erakunde ospetsurik ez zutela, irabazpide mardulik eskaintzen ez zuen hizkuntza bizitzen –nahiz hiltzen– utzi baino areago –ideietan beretan ere– egingo ez zukeen politikarik gabe ere zirela, erlijioan aurkitu zuten laguntza moduko zerbait osoki eta sustraietaraino kristautu zirenetik. Mende haietan, haatik, Batikano II kontziliara arte bezalaxe, Mendebaldean, Ekialdeko Elizan ez bezala, ameskaria zen nazio hizkuntzaz eginiko liturgia. Gisa honetako aukera XVI. mendean etorri zen, Erreforma protestanteaz. Egia esan, ez da gerra ondoko urteotan faltatu, Joana Albretekoak eraginda Leizarragak eta laguntzaileek burutu zuten lanean oinarriturik zera asmatu nahiz ibili denik, nolako mesedea zatekeen hizkuntzarentzat alegia, protestantismoa gure artean erroztatu izan balitz: egungo galesak, irlandesarekin parekatuz, aski irudi argia ematen du izan zitekeen baina izan ez zen harena. Damurik, baldintza irrealetan sostengatzen diren honelako arrazoibideek (alegia egia balizkoan funtsatzen direlakoek) hutsa balio dute, baldin eta endelegua zorrozteko eta erudizioa erakusteko ez bada. Zailagoa zen erlijio erreformatua gure artean nagusitzea, Felipe II.aren eskualdeetan batez ere, errepublika sozialista popularraren etorrera, txikitxoan bihurrikeriekin Kaiserraren semea baino jasankorragoak ez diren Estatu Batu eta laguneri begi aurrean lur berean gertatzea baino. Honetan denok bat gatozela uste dut.

Hala ere, kalbinismoaren hedadura, eginahal huts bihurtua, hizkuntzaren

aldekoa izan zen, erantzun katolikoa bultzatu zuelako besterik ez balitz ere. Orduantxe hasi ziren gure eliz gizonak herri hizkuntzazko katekesiaz arduratzen; edota hobeki esan, haien interesa eta kezka, 1600.etik aurrera, anartean ametsetakoak ziren gailurretaraino heldu zen. Hizkuntzaren historiako balio handiko agiriez gainera, hitz neurtu askoren artean, hitz lauezko eredu zor diegu literaturan, gaur bertan ere argi emaile bortitza. Eredu honen egoslekua XVII.eko Lapurdi loratsuan bilatu behar da, Axular gorengo dugula, mugimenduaren iturburuari oso hurbil.

Jakina denez, eredu honek bere eragina izan zuen, handia gainera, mugaz honako idazleen artean, giputz eta bizkaitarren artean eskierki, XVIII eta XIX.eko lehen partean, Larramendiren eskolatik hasita; baino istorio hau aski aipatua dugu honez gero. Diogun ere orduantxe errotu zela egundaino ezagutu dugun erlijiojera (dogma, moralak, elizkizunak eta arauak), eliz gizonetako zati batek herriarekin zituen harremanak, aldeak alde, zirela bide. Harreman hori nahiko argi ikusten da hizkuntzaren aldetik, luzaroan erlijio iskribuak predikuekin batean izan baitira prosaren gidari bakarrak. Egia esan, Araba eta Nafarroa Garaiko zenbait tokitan eliz gizonak herri mintzairari horren atxikiak ez ziren susmoa izan daiteke.

K. Mitxelena: «Euskararen bide luze bezain malkarrak», *Euskararen liburu zuria*

4 LEHEN PARAGRAFOA BILUZTU

➤ **Irakur ezazu arretaz lehen paragrafoa eta identifika itzazu aditz nagusiak eta berauen subjektuak. Horretaz gain, bestelako aditzak eta subjektuak ere seinatu.**

1. Ez irakurri hitzez hitz, esaldika eta paragrafoka baizik.
2. Lehenik eta behin bila ezazu aditz nagusia, eta gero saia zaitetz subjektua topatzen.
3. Kontura zaitetz aditz nagusi honen menpean zenbait esaldi egon daitekeela.

Euskaldunek, administralgo eta kultur erakunde ospetsurik ez zutela, irabazpide mardulik eskaintzen ez zuen hizkuntza bizitzen –nahiz hiltzen– utzi baino areago –ideietan beretan ere– egingo ez zukeen politikarik gabe ere zirela, erlijioan aurkitu zuten laguntza moduko zerbait osoki eta sustraietaraino kristautu zirenetik.

1. Zein da aditz nagusia?
2. Eta subjektua?
3. Azpimarra ezazu erlatiboa.
4. Bi gerundio daude. Zeintzuk dira?

Mende haietan, haatik, Batikano II kontzilia arte bezalaxe, Mendebaldean, Ekialdeko Elizan ez bezala, ameskaria zen nazio hizkuntzaz eginiko liturgia.

5. Zein da aditz nagusia?
6. Eta subjektua?

Gisa honetako aukera XVI. mendean etorri zen, Erreforma protestanteaz.

7. Zein da aditz nagusia?
8. Eta subjektua?

Egia esan, ez da gerra ondoko urteotan faltatu, Joana Albretekoak eraginda Leizarragak eta laguntzaileek burutu zuten lanean oinarriturik zera asmatu nahiz ibili denik, nolako mesedea zatekeen hizkuntzarentzat alegia, protestantismoa gure artean erroztatu izan balitz:

9. Zein da aditz nagusia?
10. Eta subjektua?
11. Zein da baldintzazko perpausa (baldintza /ondorioa)? Zein aspektu darabil?
12. Azpimarra itzazu gainerako aditzak eta berauen subjektuak.

egungo galesak, irlandesarekin parekatuz, aski irudi argia ematen du izan zitekeen baina izan ez zen harena.

13. Zein da aditz nagusia?
14. Eta subjektua?
15. Zeren irudia ematen du egungo galesak?

Damurik, baldintza irrealetan sostengatzen diren honelako arazoibideek (alegia egia balizkoan funtsatzen direlakoek) hutsa balio dute, baldin eta endelegua zorrozteko eta erudizioa erakusteko ez bada.

16. Zein da aditz nagusia?
17. Eta subjektua?
18. *Baldin eta (...)* ba- egitura baldintzazko perpausa dela badirudi ere, zein egiturarekin berridatziko zenuke?

Zailagoa zen erlijio erreformatua gure artean nagusitzea, Felipe II.aren eskualdeetan batez ere, errepublika sozialista popularraren etorrera, txikitxoan bihurrikeriekin Kaiserraren semea baino jasankoragoak ez diren Estatu Batu eta laguneri begi aurrean lur berean gertatzea baino.

19. Zein dira konparazioaren bi terminoak? Zer ari da konparatzen?
20. Zein da Kaiserraren semea?

Honetan denok bat gatozela uste dut.

21. Zein da aditz nagusia?
22. Eta subjektua?

5 SOBERAKO INFORMAZIOA EZABATZEN

- **Konturatuko zinenez, pasarte bakoitzean menpeko esaldi asko agertzen da. Zure lana, orain, informazio garrantzitsuenari baino ez erreparatzea izango da. Honetarako, testuaren funtsezko informazioa ez den guztia ezabatu eta mamia bakarrik jasotzen ahaleginduko zara.**

- | | |
|---|---|
| <p>Euskaldunek, administralgo eta kultur erakunde ospetsurik ez zutela, irabazpide mardulik eskaintzen ez zuen hizkuntza bizitzen –nahiz hiltzen– utzi baino areago –ideietan beretan ere– egingo ez zukeen politikarik gabe ere zirela, erlijioan aurkitu zuten laguntza moduko zerbait osoki eta sustraietaraino kristautu zirenetik.</p> | <p>1. Zein da funtsezko informazioa?
2. Ezaba ezazu gainerakoa.</p> |
| <p>Mende haietan, haatik, Batikano II kontziliara arte bezalaxe, Mendebaldean, Ekialdeko Elizan ez bezala, ameskaria zen nazio hizkuntzaz eginiko liturgia.</p> | <p>3. Zein da funtsezko informazioa?
4. Ezaba ezazu gainerakoa.</p> |
| <p>Gisa honetako aukera XVI. mendean etorri zen, Erreforma protestanteaz.</p> | <p>5. Zein da funtsezko informazioa?
6. Ezaba ezazu gainerakoa.</p> |
| <p>Egia esan, ez da gerra ondoko urteotan faltatu, Joana Albretakoak eraginda Leizarragak eta laguntzaileek burutu zuten lanean oinarriturik zera asmatu nahiz ibili denik, nolako mesedea zatekeen hizkuntzarentzat alegia, protestantismoa gure artean erroztatu izan balitz:</p> | <p>7. Zein da funtsezko informazioa?
8. Ezaba ezazu gainerakoa.</p> |
| <p>Egungo galesak, irlandesarekin parekatuz, aski irudi argia ematen du izan zitekeen baina izan ez zen harena.</p> | <p>9. Zein da funtsezko informazioa?
10. Ezaba ezazu gainerakoa.</p> |
| <p>Damurik, baldintza irrealetan sostengatzen diren honelako arazoibideek (alegia egia balizkoan funtsatzen direlakoek) hutsa balio dute, baldin eta endelegua zorrozteko eta erudizioa erakusteko ez bada.</p> | <p>11. Zein da funtsezko informazioa?
12. Ezaba ezazu gainerakoa.</p> |
| <p>Zailagoa zen erlijio erreformatua gure artean nagusitzea, Felipe II.aren eskualdeetan batez ere, errepublika sozialista popularraren etorrera, txikitxoan bihurrikeriekin Kaiserraren semea baino jasankorragoak ez diren Estatu Batu eta lagunen begi aurrean lur berean gertatzea baino.</p> | <p>13. Zein da funtsezko informazioa?
14. Ezaba ezazu gainerakoa.</p> |
| <p>Honetan denok bat gatzela uste dut.</p> | <p>15. Zein da funtsezko informazioa?
16. Ezaba ezazu gainerakoa.</p> |

6 IRAKURRIAREN EBALUAZIOA

➤ **Lehen paragrafoari dagozkion galderak dituzu behean. Irakur itzazu arretaz eta erantzuna eman. Kontura zaitetz testuko zenbait hitzen orde, sinonimoak agertuko direla galderetan.**

1. **Euskaldunek, kristautu zirenetik, erlijioan aurkitu zuten nolabaiteko laguntza.**
 - a) ez baitzuten erabaki administrazioan, kulturean eta politikan zer egin hizkuntzaren alde.
 - b) administrazio, kultur erakunde eta politikan konfidantzarik ez zutelako.
 - c) hizkuntza birpizteko ideiak baldin bazituzten ere, erabaki politiko zuzenik hartu ez zutelako.
 - d) ez baitzuten eskuartean hizkuntza bizitzen laga baino gehiago egingo zukeen politikarik.

2. **Gizaldi haietan, ostera, Sartaldeko elizan amets hutsa zen nazio-hizkuntzaz buruturiko liturgia.**
 - a) Makina bat ibili omen da Joana Albretekoak egindako idazlanei buruzko asmakizunetan.
 - b) Kristautasunaren mendean, batez ere Ekialdean, ameskeria zen nazio hizkuntzaz eginiko liturgia.
 - c) Batikano II kontzilia arte ez zen eliza osoan nazio hizkuntzaz egiten zen liturgiarik.
 - d) Mende haietan, eta Batikano II kontzilioa egin arte, Sartaldean bakarrik erabiltzen zen nazio-hizkuntza liturgian.

3. **Gerra ondoko urteotan, idazleak dionez,**
 - a) makina bat ibili omen da Joana Albretekoak egindako idazlanei buruzko asmakizunetan.
 - b) Zenbaiten ustez, protestantismoa Euskal Herrian sustraitu izan balitz onuragarri zatekeen euskararentzat.
 - c) Joana Albretekoak eraginda Leizarragak erroztatu zuen protestantismoa gure artean eta mesedegarri gertatu zen hizkuntzarentzat.
 - d) ez da faltatu, Leizarraga eta laguntzaileei jarraituz, protestantismoa gure artean erroztatu nahiz ibili denik.

4. **Idazlearen iritziz, balizkoan oinarritzen diren argudioek**
 - a) ez dute gaur ezertarako balio, adarra jotzeko ez bada.
 - b) endelegua zorrozteko eta erudizioa erakusteko ez ezik, beste zenbait gauzatarako ere balio dute.
 - c) mintzamina zorrozteko eta erudizioa erakusteko izan ezik, ez dute beste ezertarako balio.
 - d) adimena trebatzeko eta erudizioa erakusteko bakarrik balio dute.

7 GAINERAKO TESTU-ATALAK

➤ **Nahi izanez gero, irakur itzazu testuaren gainerako paragrafoak, baina antzera jokatzuz. Jarrai iezaezu honako urrats hauei:**

1. Ez irakurri hitzez hitz, esaldika eta paragrafoka baizik
2. Lehenik eta behin bila ezazu aditz nagusia, eta gero saia zaitetz subjektua aurkitzen.
3. Kontura zaitetz aditz nagusiaren menpean zenbait esaldi egon daitekeela.
4. Utz ezazu albo batera testuaren mezu nagusia ulertzeko beharrezkoa ez den informazioa.

9 PETRAS TXOSTENA

Unitate didaktiko honetan:

- **Zertarako irakurriko duzun erabakiko duzu**
- **Hartutako erabakiaren arabera, irakur-estilo jakin bat aukeratuko duzu**

GAIA: GAZTEAK

PETRAS TXOSTENA

1 TXOSTENAREN LABURPENA

- **1996ko urriaren 3an Jon Eskisabelek James Petras soziologo amerikarraren txosten bati buruzko artikulua idatzi zuen *Euskaldunon Egunkarian*. Hemen duzu artikulua laburpentxo bat.**

James Petras soziologo amerikarrak, Bartzelonan sei hilabete eman eta gero, *Guraso eta seme-alabak: langile espainiarren bi belaunaldi* izeneko txostena aurkeztu zuen CSICen. Lan honen arrazoietakoa bat, azken hamabost urteotan aurrera eramandako politika neoliberalaren ondorioak aztertzea izan zen. Bertan, gizartearen diagnostikoa egiteaz gain, langile gazteen eta beren gurasoen artean gertaturiko belaunaldi-haustura aztertu zuen soziologo kritikoa honek.

2 ZERTARAKO IRAKURRIKO DUZU ARTIKULU HAU?

- **Nola eta zertarako irakurriko zenuke artikulua hau? Aurreko laburpentxo irakurrita (nahi baduzu, emaiouzu begiradaxo bat testuari) erabaki ezazu zer eta zertarako irakurriko duzun. Kontuan har ezazu, helburuak eramango zaituela estilo batez ala bestez irakurtzera:**

A AUKERA Gai honek ez nau batere arduratzen. Beraz, gaintik irakurriko dut gutxieneko informazioa ateratzeko, baina bestelako interes eta ardurarik gabe.
Irakurri ahala, gerta daiteke, dena dela, artikuluari hasieran uste baino interesgarriago iriztea. Kasu horretan, arreta handiagoz irakurriko nuke.

B AUKERA Gaiak biziki arduratzen nau. Artikuluak eman ditzakeen datu guztiak arretaz irakurriko ditut.

C AUKERA Hain da gai zabala, ezen punturen bati edo besteri baino ez baitiot erreparatuko: hauetako baten bati, hain zuzen ere:

1. Gazteen egoera latza.
2. Guraso eta gazteen egoera laboralaren arteko ezberdintasunak.
3. Lanpostu finkodun gazteen portaerak.
4. Behin-behineko lana duten gazteen portaerak.
5. Dependentsia familiarraren ondorioak Petrasen ustez.
6. Etorkizuneko proiektuak izateko aukerak.
7. Petrasen proposamena.

- **Aukeratutako helburuaren arabera, irakur-estilo jakin bat erabili beharko duzu. Honekin batera, irakurtzeko abiadura desberdina izango da. Hau guztia kontuan hartuta, ekin irakurketari!**

PETRAS TXOSTENA

Udaren hasieran *Ajoblanco* aldizkariak, James Petras soziologoak eginiko txostena argitaratu zuen ale monografiko batean. Txosten horretan, azken hamabost urteetan langile gazteen eta beren gurasoen artean gertaturiko belaunaldi haustura aztertu zuen Estatu Batuetako soziologoak. Egungo gazteen egoera latza – langabezia edo behin-behineko lana, etorkizuneko proiekturik eza – agerian utzi ondoren, zera azpimarratu zuen Petrasek: «Larriena da gazteek lanean duten izua. Erabateko intimidazioa da, benetako diktadura da».

James Petras Estatu Batuetako intelektual kritikoenetako bat da. New Yorkeko Unibertsitateko soziologoa, Noam Chomskyren kolaboratzailea izan da hainbat urtez – Chomsky ere aski ezaguna da EEBBtako Gobernuarekin duen jarrera kritikoa – . Sei hilabete eman zituen Bartzelonan, Ikerketa Zientifikoetako Zentro Nagusiak (CSIC) gonbidatuta, PSOEko Gobernuaren agintaldian aurrera eramandako politika neoliberalak izandako ondorioak aztertzeko. Lana osatzeko, datu estatistikoekin batera, Bartzelonako belaunaldi ezberdinetako zenbait langilerekin elkarrizketatu zen. Lana amaitutakoan, *Guraso eta seme-alabak: langile espainarren bi belaunaldi* izeneko txostena aurkeztu zuen CSICen, baina bertan jasotako emaitzak horren gogorak ziren, non ikerketa zentroak ez argitaratzea erabaki zuen.

Gazteen arazoa *Belaunaldi berria* izeneko kapituluak bildu du Petrasek. Bertan, gazteen eta euren gurasoen egoera laboralaren arteko ezberdintasunak azaldu ondoren, aldaketa horrek gazterian izan dituen eragin nagusiak jaso ditu Petrasek, eta ikuspegia benetan negatiboa da. Hiru hitzetan laburbil liteke Petrasek egungo gazteriaz egin duen soslai orokorra: kontsumista, indibidualista eta pasiboa. Goazen zatika.

BELAUNALDI BERRIA

Langile gazteen eta nagusien artean dauden ezberdintasunak azalduz hasten da Petras. Bere iritziz, gure gurasoen familiek jasan behar izan zituzten arazo ekonomikoak ez dira gaur egungo gazteen kasuan agertzen, eta egonkortasun ekonomikoa eta geografikoa bermatuta dute. «Emigrazioaren antzinako

fenomenoak ez dira errepikatzen. Seme-alabek ez dute eskola uzten behar ekonomikoarengatik: eskola uzteko arrazoi arruntena asperdura, porrot eskolarra edo dibertimendurako dirua irabazteko gogoia izaten da. Gurasoen aldean, belaunaldi mimatua da (famiaren barnean)» dio soziologoak. Dena den, lan merkatuan sartzeko orduan, egungo gazteek zailtasun handiagoak dituzte euren gurasoek izan zituzten aldean. Hori da Petrasek antzematen duen ezberdintasunik handiena. Gurasoak enplegua zabaltzen ari zen tardofrankismoaren garaian sartu ziren lan merkatuan; gazteek, ordea, «erregimen neoliberalaren pean» egin dute, eta horrek ekarri du gazte gehienak «epe laburreko kontratudun langileak izatea. Kasu gehienetan gutxieneko soldata edo are gutxiago kobratzen dutenak. Enplegua lortzeko *zoriona* izan dutenak behin-behineko langileak dira, kasu gehienetan *txandakatuak* izango direnak: berriak edo kanporatuak, baina oso gutxitan egingo dituzte langile finko». «Zatiketak sortzen dira lanpostu finkoa lortzen duten gazteen eta behin-behineko lana edo langabezian dauden gazteen artean», dio Petrasek. «Lehenengoak *independizatzen* hasten dira, diru gehiago gastatzen dute eta harreman sentimental egonkorak hasteko moduan daude. Behin-behineko egoeran daudenek (gehienak) ezin dute hori egin; euren perspektibak sarrera erraz eta *irteera azkarreko* harremanetara zuzenduta daude. Laneko eskema, berriz, *sarrera zaila eta irteera azkarra* da».

Bestalde, auzoko kultura zibikoaren galerak «kontsumitzaile jarrera pribatua» bultzatu du, Petrasen arabera «Jaka beltzez, belarritakoez eta orrazkerez hornitutako rock merkantilizatuak *matxinada* itxurak azalarazten ditu, baina barrutik bizimodu kontsumista eta indibidualista ezkututzen du», dio argiro.

Hori guztia bilduta, ondorioak lazgarriak dira. «Gazte langileek beldurra diote enplegua galtzeari, sindikatueta sartzeari, eta lehian daude gainontzeko ebentualekin».

Behin-behineko langile gazteen egoera horrela laburbiltzen du Petrasek: «Ez dute segurtasunik enpleguan, eta apenas duten

erakunde kolektiborik edo babesik. Atomizatuta daude, enpresariaren aginduetara daude, honek Estatuaren babes legala baitu eta bere bidegabeko ekintzak babesten baitizkio».

«Beldurraren eraginez, uko egiten diote sindikatuetan sartzeari, edo sindikatu kolaborazionistetan sartuko dira, eta benetan *afiliatzen* badira, euren partaidetza ezkutatu egiten dute», dio Petrasek. Halaber, «behin-behineko langile gutxi azaltzen diete elkartasuna lankideei. Ebentualen artean lehia eta deskonfiantza sentimendua dago»

ENPLEGU FINKOA

Petrasen ustez, langile gehienak ez daude gustura beren lanarekin, identifikazio gutxi dute fabrikarekin edo batere ez langile klasearen kulturarekin. «Enplegu *finkoaren* lorpenak behin-behineko langileen jarrera konformista-konsumista berresten du. Familiatik, auzotik edo lagunengandik klase perspektibarik jaso izan gabe, gazte langile finko asko ideologia indibidualistara makurtu dira: *Neure buruari soilik begiratzen diot*».

Beldurrak «murriztu du langile finko askok grebetan parte hartzeko konpromezua», Petrasek dioenez. Halaber, erreferentzia sindikalik gabe gelditu dira gazteak. «Bi sindikatu nagusiak (behintzat beren buruzagitzak) asimilatuak izan dira proiektu neoliberaleran. Erreferentzia sindikalik ezean, gazte langileen gehiengoak irtenbide indibidualetara jo du eta gutxi batzuek sindikatu minoritario erradikalagoetara».

BIZI ZIKLOA

Lan egoera zailak bultzatuta, gazteek gero eta beranduago uzten dute gurasoen etxea. Horren eraginak ere azaltzen ditu Petrasek txostenean, «Dependentzia familiar luzeak ikuspegi sozial konformista sortzen du, gauzak dohainik lortzeko ideiak zapuzten du pentsamendu kritikoa edo ekintza. Dependentzia familiar luzeak infantilizazioa eta pasibitatea bultzatzen du».

Ondorioz, etorkizuneko bizitza proiekturik izateko aukerak asko murrizten zaizkie gazte gehienei. «Behin-behinekotasuna bizimodu bilakatzen da», dio Petrasek. «Eskaintzeko gutxi dagoenez gutxi eskatzen da: gau on bat, une gozo bat auto baten atzealdeko aulkian eta agur bat goizetik. Euren gurasoek etorkizuneko planak egiten zituzten bitartean, behin-behineko langile gazteek etorkizunari buruz pentsatzeari uko egiten diote eta oraindirako bizi dira».

Laburpen gisa, politika neoliberalaren aldaketarekin batera, gazteen heziketa maila hobetzea proposatzen du Petrasek.

«Funtsezkoa da gazteak balore soziokultural berrietara hezitzea. Deskontentu pribatuaren eta errealitate sozialaren arteko harremanak sakonki ulertzen laguntzen duten baloreak. Eta ulertzea lanaren eta borroka kolektiboen eguneroko esperientzia sozialek oinarria jartzen dutela gizartearen, Estatuaren eta lanaren ikuspegi sozial alternatibo izateko».

3 IRAKURRI OSTEAN

➤ **Irakur-helburu bera aukeratu duzuenak taldean jarri, eta aztertu itzazue honako hauek:**

1. Zenbat denbora eman duzue irakurtzen? Aukeratutako helburuaren arabera, egokia iruditu al zaizue denbora hori? Azkarrago ala astiroago irakurri behar ote zenuten?

2. A aukera egin duzuenentzat

- Testuak zeuen interesa piztu al du? Honela gertatu bada, irakur-helburua eta estiloa aldatu al ditzakezue?
- Zein informazio atera duzue? Taldekideen artean komenta ezazue.
- Irakurtzean izan dituzuen zailtasunak (hitzak, egiturak...) elkarrekin argitzen saia zaitetzte.

3. B aukera egin duzuenentzat

- Testuak gaiari buruz zeneukaten interesari erantzun dio? Erantzuna ezezkoa izan bada, irakurri bitartean helburua eta estiloa aldatu duzue?
- Zein informazio atera duzue? Komenta ezazue taldekideen artean.
- Zerekin egon zarete ados eta zerekin ez?
- Saia zaitetzte irakurtzean izan dituzuen zailtasunak (interpretazioa dela, hizkuntza dela) elkarrekin argitzen.

4. C aukera egin duzuenentzat

- Hasieran pentsatutako informazioari baino ez al diozue heldu, ala gehiago bilatu ote duzue?
- Irakurritako testu-zatiak zeuen interesa piztu al du?
- Zein informazio atera duzue? Komenta ezazue taldekideen artean.
- Saia zaitetzte irakurtzean izan dituzuen zailtasunak (hitzak, egiturak...) elkarrekin argitzen.

4 NOLAKOAK DIRA GAZTEAK?

- **Adieraz ezazue denen artean Petrasen baieztapenetako zeinekin zaudeten ados eta zeinekin aurka. Saia zaitetzte arrazoiak ematen.**

ALDE	ADIZUE!
1.	➤ Ariketa honen helburua ahozko jarioa lantzea da. Beraz, saia zaitetzte arin samar hitz egiten.
2.	
3.	
AURKA	ADIZUE!
1.	➤ Errespetatu ezazue beste ikaskideen txanda. ➤ Kausa adierazteko baliabideak erabili beharko dituzue. Hauen kontura zalantzarik al duzue? Hasi aurretik, ikaskide edo irakaslearekin argitu.
2.	
3.	

5 GAZTEAK GARA, GAZTE!

- **Nahi izanez gero, orain duzu gazteei buruz idazteko aukera. Irakurtzean bezalaxe, idaztean ere erabakiak hartu behar dira hasi aurretik, geroagoko lana errazago suerta dadin. Beheko puntuak erabaki!**

ZEIN DA ZURE...?

<i>ASMO</i> <i>KOMUNIKATIBOA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Petrasekiko adostasuna adieraztea. - Petrasekiko desadostasuna adieraztea. - Ideiaren baten kontura ñabardura adieraztea. - Petrasen diagnostikoa zure herriko / zonaldeko gazteen egoerarekin alderatzea. - Petrasen diagnostiko eta proposamenaren argitan, gazteen egoerari eragin nahi diozu, zenbait jarrera eta jokaera aldatzeko saioa eginez. - Besterik. Zein?
<i>HARTZAILEA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Egunkari edo aldizkariren bateko <i>Irakurleak mintzo</i> delako atalera bidali nahi duzu eskutitza. Hango irakurleak, beraz. - Irakaslearen laguntzaz euskaltegiko gainerako ikasleei bidaliko diezu testu hau. Zure maila bereko pertsonak, beraz. - Udaletxeko Kultura sailera. Tratamendu formaleko hartzailea, beraz.
<i>TONUA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Serioa. - Neutroa. - Ironikoa. - Kritikoa. - Objektiboa. - Exageratua. - Besterik. Zein?
<i>TESTU-MOTA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Azalpena. - Argudioa. - Narrazioa. - Besterik. Zein?
<i>EGITURA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Pentsa ezazu arin-arin nolako ordenan adieraziko duzun informazioa.

9 PETRAS TXOSTENA

Unitate didaktiko honetan:

- **Zertarako irakurriko duzun erabakiko duzu**
- **Hartutako erabakiaren arabera, irakur-estilo jakin bat aukeratuko duzu**

GAIA: GAZTEAK

PETRAS TXOSTENA

1 TXOSTENAREN LABURPENA

- **1996ko urriaren 3an Jon Eskisabelek James Petras soziologo amerikarraren txosten bati buruzko artikulua idatzi zuen *Euskaldunon Egunkarian*. Hemen duzu artikulua laburpentxo bat.**

James Petras soziologo amerikarrak, Bartzelonan sei hilabete eman eta gero, *Guraso eta seme-alabak: langile espainiarren bi belaunaldi* izeneko txostena aurkeztu zuen CSICen. Lan honen arrazoietakoa bat, azken hamabost urteotan aurrera eramandako politika neoliberalaren ondorioak aztertzea izan zen. Bertan, gizartearen diagnostikoa egiteaz gain, langile gazteen eta beren gurasoen artean gertaturiko belaunaldi-haustura aztertu zuen soziologo kritikoa honek.

2 ZERTARAKO IRAKURRIKO DUZU ARTIKULU HAU?

- **Nola eta zertarako irakurriko zenuke artikulua hau? Aurreko laburpentxoaren irakurrita (nahi baduzu, emaiouzu begiradaxo bat testuari) erabaki ezazu zer eta zertarako irakurriko duzun. Kontuan har ezazu, helburuak eramango zaituela estilo batez ala bestez irakurtzera:**

A AUKERA Gai honek ez nau batere arduratzen. Beraz, gaintik irakurriko dut gutxieneko informazioa ateratzeko, baina bestelako interes eta ardurarik gabe.

Irakurri ahala, gerta daiteke, dena dela, artikuluarri hasieran uste baino interesgarriago iriztea. Kasu horretan, arreta handiagoz irakurriko nuke.

B AUKERA Gaiak biziki arduratzen nau. Artikuluak eman ditzakeen datu guztiak arretaz irakurriko ditut.

C AUKERA Hain da gai zabala, ezen punturen bati edo besteri baino ez baitiot erreparatuko: hauetako baten bati, hain zuzen ere:

1. Gazteen egoera latza.
2. Guraso eta gazteen egoera laboralaren arteko ezberdintasunak.
3. Lanpostu finkodun gazteen portaerak.
4. Behin-behineko lana duten gazteen portaerak.
5. Dependentsia familiarraren ondorioak Petrasen ustez.
6. Etorkizuneko proiektuak izateko aukerak.
7. Petrasen proposamena.

- **Aukeratutako helburuaren arabera, irakur-estilo jakin bat erabili beharko duzu. Honekin batera, irakurtzeko abiadura desberdina izango da. Hau guztia kontuan hartuta, ekin irakurketari!**

PETRAS TXOSTENA

Udaren hasieran *Ajoblanco* aldizkariak, James Petras soziologoak eginiko txostena argitaratu zuen ale monografiko batean. Txosten horretan, azken hamabost urteetan langile gazteen eta beren gurasoen artean gertaturiko belaunaldi haustura aztertu zuen Estatu Batuetako soziologoak. Egungo gazteen egoera latza – langabezia edo behin-behineko lana, etorkizuneko proiekturik eza – agerian utzi ondoren, zera azpimarratu zuen Petrasek: «Larriena da gazteek lanean duten izua. Erabateko intimidazioa da, benetako diktadura da».

James Petras Estatu Batuetako intelektual kritikoenetako bat da. New Yorkeko Unibertsitateko soziologoa, Noam Chomskyren kolaboratzailea izan da hainbat urtez – Chomsky ere aski ezaguna da EEBBtako Gobernuarekin duen jarrera kritikoaatik –. Sei hilabete eman zituen Bartzelonan, Ikerketa Zientifikoetako Zentro Nagusiak (CSIC) gonbidatuta, PSOEko Gobernuaren agintaldian aurrera eramandako politika neoliberalak izandako ondorioak aztertzeko. Lana osatzeko, datu estatistikoekin batera, Bartzelonako belaunaldi ezberdinetako zenbait langilerekin elkarrizketatu zen. Lana amaitutakoan, *Guraso eta seme-alabak: langile espainarren bi belaunaldi* izeneko txostena aurkeztu zuen CSICen, baina bertan jasotako emaitzak horren gogorak ziren, non ikerketa zentroak ez argitaratzea erabaki zuen.

Gazteen arazoa *Belaunaldi berria* izeneko kapituluak bildu du Petrasek. Bertan, gazteen eta euren gurasoen egoera laboralaren arteko ezberdintasunak azaldu ondoren, aldaketa horrek gazterian izan dituen eragin nagusiak jaso ditu Petrasek, eta ikuspegia benetan negatiboa da. Hiru hitzetan laburbil liteke Petrasek egungo gazteriaz egin duen soslai orokorra: kontsumista, indibidualista eta pasiboa. Goazen zatika.

BELAUNALDI BERRIA

Langile gazteen eta nagusien artean dauden ezberdintasunak azalduz hasten da Petras. Bere iritziz, gure gurasoen familiek jasan behar izan zituzten arazo ekonomikoak ez dira gaur egungo gazteen kasuan agertzen, eta egonkortasun ekonomikoa eta geografikoa bermatuta dute. «Emigrazioaren antzinako

fenomenoak ez dira errepikatzen. Seme-alabek ez dute eskola uzten behar ekonomikoarengatik: eskola uzteko arrazoi arruntena asperdura, porrot eskolarra edo dibertimendurako dirua irabazteko gogoia izaten da. Gurasoen aldean, belaunaldi mimatua da (famiaren barnean)» dio soziologoak. Dena den, lan merkatuan sartzeko orduan, egungo gazteek zailtasun handiagoak dituzte euren gurasoek izan zituztenen aldean. Hori da Petrasek antzematen duen ezberdintasunik handiena. Gurasoak enplegua zabaltzen ari zen tardofrankismoaren garaian sartu ziren lan merkatuan; gazteek, ordea, «erregimen neoliberalaren pean» egin dute, eta horrek ekarri du gazte gehienak «epe laburreko kontratudun langileak izatea. Kasu gehienetan gutxieneko soldata edo are gutxiago kobratzen dutenak. Enplegua lortzeko *zoriona* izan dutenak behin-behineko langileak dira, kasu gehienetan *txandakatuak* izango direnak: berriak edo kanporatuak, baina oso gutxitan egingo dituzte langile finko». «Zatiketak sortzen dira lanpostu finkoa lortzen duten gazteen eta behin-behineko lana edo langabezian dauden gazteen artean», dio Petrasek. «Lehenengoak *independizatzen* hasten dira, diru gehiago gastatzen dute eta harreman sentimental egonkorrak hasteko moduan daude. Behin-behineko egoeran daudenek (gehienak) ezin dute hori egin; euren perspektibak sarrera erraz eta *irteera azkarreko* harremanetara zuzenduta daude. Laneko eskema, berriz, *sarrera zaila eta irteera azkarra* da».

Bestalde, auzoko kultura zibikoaren galerak «kontsumitzaile jarrera pribatua» bultzatu du, Petrasen arabera «Jaka beltzez, belarritakoez eta orrazkerez hornitutako rock merkantilizatuak *matxinada* itxurak azalarazten ditu, baina barrutik bizimodu kontsumista eta indibidualista ezkututzen du», dio argiro.

Hori guztia bilduta, ondorioak lazgarriak dira. «Gazte langileek beldurra diote enplegua galtzeari, sindikatuetan sartzeari, eta lehian daude gainontzeko ebentualekin».

Behin-behineko langile gazteen egoera horrela laburbiltzen du Petrasek: «Ez dute segurtasunik enpleguan, eta apenas duten

erakunde kolektiborik edo babesik. Atomizatuta daude, enpresariaren aginduetara daude, honek Estatuaren babes legala baitu eta bere bidegabeko ekintzak babesten baitizkio».

«Beldurraren eraginez, uko egiten diote sindikatuetan sartzeari, edo sindikatu kolaborazionistetan sartuko dira, eta benetan *afiliatzen* badira, euren partaidetza ezkutatu egiten dute», dio Petrasek. Halaber, «behin-behineko langile gutxi azaltzen diete elkartasuna lankideei. Ebentualen artean lehia eta deskonfiantza sentimendua dago»

ENPLEGU FINKOA

Petrasen ustez, langile gehienak ez daude gustura beren lanarekin, identifikazio gutxi dute fabrikarekin edo batere ez langile klasearen kulturarekin. «Enplegu *finkoaren* lorpenak behin-behineko langileen jarrera konformista-konsumista berresten du. Familiatik, auzotik edo lagunengandik klase perspektibarik jaso izan gabe, gazte langile finko asko ideologia indibidualistara makurtu dira: *Neure buruari soilik begiratzeko diot*».

Beldurrak «murriztu du langile finko askok grebetan parte hartzeko konpromezua», Petrasek dioenez. Halaber, erreferentzia sindikalik gabe gelditu dira gazteak. «Bi sindikatu nagusiak (behintzat beren buruzagitzak) asimilatuak izan dira proiektu neoliberaleran. Erreferentzia sindikalik ezean, gazte langileen gehiengoak irtenbide indibidualetara jo du eta gutxi batzuek sindikatu minoritario erradikalagoetara».

BIZI ZIKLOA

Lan egoera zailak bultzatuta, gazteek gero eta beranduago uzten dute gurasoen etxea. Horren eraginak ere azaltzen ditu Petrasek txostenean, «Dependentzia familiar luzeak ikuspegi sozial konformista sortzen du, gauzak dohainik lortzeko ideiak zapuzten du pentsamendu kritikoa edo ekintza. Dependentzia familiar luzeak infantilizazioa eta pasibitatea bultzatzen du».

Ondorioz, etorkizuneko bizitza proiekturik izateko aukerak asko murrizten zaizkie gazte gehienei. «Behin-behinekotasuna bizimodu bilakatzen da», dio Petrasek. «Eskaintzeko gutxi dagoenez gutxi eskatzen da: gau on bat, une gozo bat auto baten atzealdeko aulkian eta agur bat goizetik. Euren gurasoek etorkizuneko planak egiten zituzten bitartean, behin-behineko langile gazteek etorkizunari buruz pentsatzeari uko egiten diote eta oraindirako bizi dira».

Laburpen gisa, politika neoliberalaren aldaketarekin batera, gazteen heziketa maila hobetzea proposatzen du Petrasek.

«Funtsezkoa da gazteak balore soziokultural berrietara hezitzea. Deskontentu pribatuaren eta errealitate sozialaren arteko harremanak sakonki ulertzen laguntzen duten baloreak. Eta ulertzea lanaren eta borroka kolektiboen eguneroko esperientzia sozialek oinarria jartzen dutela gizartearen, Estatuaren eta lanaren ikuspegi sozial alternatibo izateko».

3 IRAKURRI OSTEAN

➤ **Irakur-helburu bera aukeratu duzuenak taldean jarri, eta aztertu itzazue honako hauek:**

1. Zenbat denbora eman duzue irakurtzen? Aukeratutako helburuaren arabera, egokia iruditu al zaizue denbora hori? Azkarrago ala astiroago irakurri behar ote zenuten?

2. A aukera egin duzuenentzat

- Testuak zeuen interesa piztu al du? Honela gertatu bada, irakur-helburua eta estiloa aldatu al ditzakezue?
- Zein informazio atera duzue? Taldekideen artean komenta ezazue.
- Irakurtzean izan dituzuen zailtasunak (hitzak, egiturak...) elkarrekin argitzen saia zaitetzte.

3. B aukera egin duzuenentzat

- Testuak gaiari buruz zeneukaten interesari erantzun dio? Erantzuna ezezkoa izan bada, irakurri bitartean helburua eta estiloa aldatu duzue?
- Zein informazio atera duzue? Komenta ezazue taldekideen artean.
- Zerekin egon zarete ados eta zerekin ez?
- Saia zaitetzte irakurtzean izan dituzuen zailtasunak (interpretazioa dela, hizkuntza dela) elkarrekin argitzen.

4. C aukera egin duzuenentzat

- Hasieran pentsatutako informazioari baino ez al diozue heldu, ala gehiago bilatu ote duzue?
- Irakurritako testu-zatiak zeuen interesa piztu al du?
- Zein informazio atera duzue? Komenta ezazue taldekideen artean.
- Saia zaitetzte irakurtzean izan dituzuen zailtasunak (hitzak, egiturak...) elkarrekin argitzen.

4 NOLAKOAK DIRA GAZTEAK?

- **Adieraz ezazue denen artean Petrasen baieztapenetako zeinekin zaudeten ados eta zeinekin aurka. Saia zaitetzte arrazoiak ematen.**

ALDE	ADIZUE!
1.	➤ Ariketa honen helburua ahozko jarioa lantzea da. Beraz, saia zaitetzte arin samar hitz egiten.
2.	
3.	
AURKA	ADIZUE!
1.	➤ Errespetatu ezazue beste ikaskideen txanda.
2.	
3.	
	➤ Kausa adierazteko baliabideak erabili beharko dituzue. Hauen kontura zalantzarik al duzue? Hasi aurretik, ikaskide edo irakaslearekin argitu.

5 GAZTEAK GARA, GAZTE!

- **Nahi izanez gero, orain duzu gazteei buruz idazteko aukera. Irakurtzean bezalaxe, idaztean ere erabakiak hartu behar dira hasi aurretik, geroagoko lana errazago suerta dadin. Beheko puntuak erabaki!**

ZEIN DA ZURE...?

<i>ASMO KOMUNIKATIBOA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Petrasekiko adostasuna adieraztea. - Petrasekiko desadostasuna adieraztea. - Ideiaren baten kontura ñabardura adieraztea. - Petrasen diagnostikoa zure herriko / zonaldeko gazteen egoerarekin alderatzea. - Petrasen diagnostiko eta proposamenaren argitan, gazteen egoerari eragin nahi diozu, zenbait jarrera eta jokaera aldatzeko saioa eginez. - Besterik. Zein?
<i>HARTZAILEA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Egunkari edo aldizkariren bateko <i>Irakurleak mintzo</i> delako atalera bidali nahi duzu eskutitza. Hango irakurleak, beraz. - Irakaslearen laguntzaz euskaltegiko gainerako ikasleei bidaliko diezu testu hau. Zure maila bereko pertsonak, beraz. - Udaletxeko Kultura sailera. Tratamendu formaleko hartzailea, beraz.
<i>TONUA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Serioa. - Neutroa. - Ironikoa. - Kritikoa. - Objektiboa. - Exageratua. - Besterik. Zein?
<i>TESTU-MOTA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Azalpena. - Argudioa. - Narrazioa. - Besterik. Zein?
<i>EGITURA</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Pentsa ezazu arin-arin nolako ordenan adieraziko duzun informazioa.

10 IKUTTU NION, IKUTTU NION...

Unitate didaktiko honetan:

- Testu baten mezuaren interpretazioa egiten arituko zara
- Testu baten asmo komunikatiboa igarri beharko duzu

GAIA: SEXU-DISKRIMINAZIOA

IKUTTU NION, IKUTTU NION...

1 NOLAKO TESTU-MOTA DA?

- Irakur ezazu 1996ko otsailaren 2an Joxerra Garziak *Euskaldunon Egunkarian* argitara emandako testu hau. Kontura zaitetz bi testu-mota biltzen duela. Hauetako bakoitza zein den eta zer kontatzen duen zehaztuko zenuke?

TESTU-MOTA	ZER KONTATZEN DU?

IKUTTU NION, IKUTTU NION...

Utzidazue azkena kontatzen.

Hil ala biziko larrialdian da Lurra. Etsai gaizto ahalguztidun bat azaldu da, eta bazterrak birrintzea du jolasik gustokoena. Ez ote da aurre egin diezaiokeenik?

Bai, noski. Gure Heroiaren indarra, ordea, handia izanik ere, ez da aski etsai gaiztoa menderatzeko. Antzinako jakintsu azti moduko batek bakarrik dakien formula sekretua jakin beharra dauka, ezer egitekotan. Baina Aztia zelebre xamarra izan, eta ez dago errez hari dakiena ateratzen.

Bat-batean burua argitu zaio gure Heroiari, eta proposamen zehatza egiten dio aztiari: “Ea ba, konpontzen dugun. Entzuidazu: nesken aldizkariak emango dizkizut. Azaldu mesedez!”. Aztia azti izan, ordea, eta bere “ahalmenarekin neskak bainuan eta aldatzen ikusteko ahalmena” daukala erantzuten dio Heroiari. Ezezkoa, alegia.

Heroiak, indarra ezezik kemena ere sobera du, eta ez du etsitzen: “Nahiago duzu benetako emakumeen bularrak eta atzea ukitu?”, proposatzen dio Aztiari.

Heroiak badu seme bat, bera bezain indartsu eta kementsua. Haren baimena beharko du, Aztiari agindua betetzekotan: “Hi seme, hik daukak andregaia, ez duk? Sentitzen diat, baina utzi beharko diok neska apur bat ukitzen”.

Semea ezezkoan da tinko. Ataka horretan, aspaldiko neska lagun bat datorkio burura gure Heroiari. Emakumea hain gaztea ez izanik berdin izango ote liokeen galdetzen dio Aztiari. Eta honek “konforme, oraindik ondo baldin badago...”.

Horra gure Heroiak arazoa konpondu. Pozarren dago, eta apenas ezer ulertzen duen seme tentemusuari azaltzen dio bere poz erabatekoaren zergatia: “Ez mundua, Unibertso osoa salbatu ahal izango dugu bularrak apur bat ukitzen uztearren!”.

Semeak ez du kontua hain garbi ikusten, antza, eta hori guztia eraso sexuala ez ote den galdetzen dio aitari. Baina honek burua beste eginkizunetan dauka jadanik.

Honaino kontatu beharrekoa. Hitzez hitz aldatu ditut esaldiak eta ateraldiak: Nondik? ETB1eko *Dragoi Bola* izeneko marrazki bizidunetatik. Zehazkiago, aste honetako

astearteko ataletik, bederatziak eta laurden aldera. Heroia, noski, Son Goku entzutetsua.

Son Gokuk ontzat ematen duena ontzat emango dute hurrek, eta hark polit irizitakoari polit iriziko diote. Son Gokuk sexua (inoren sexua, kasu) modu horretan negoziatzeko erabiltzen ikasiz gero, alferrik

izango dira etxeko nahiz eskolako giza duintasunari buruzko sermoiak oro.

Arazoa, bistan da, nirea da. Nirea eta ni bezalako puritano estu eta ziztrin pare batena, gehien jota. Programak amaieraraino iraun zuen, bai, txori buruek bai-baitute txorakeria horiek baino zer zentsuratu hoberik.

2 INTERPRETA DEZAGUN TESTUA

➤ **Bikoteka jarrita, saia zaitzte testuaren zenbait konturen interpretazioa egiten.**

1. Zergatik erabili ditu egileak bi testu-mota (narrazioa eta argudioa) artikuluan berean?
2. Zein da artikulua izenburuaren arrazoa? Zer egiten dio erreferentzia izenburuak?
3. Egileak honakoa dio azken paragrafoan: *Programak amaieraraino iraun zuen, bai, txori buruek bai-baitute txorakeria horiek baino zer zentsuratu hoberik*. Nor dira txori buru direlako horiek? Zer zentsura dezakete, bada, bestela?
4. ETBk horrelako saioak zentsuratzea defendatzen ari da?
5. Badirudi Joxerra Garziak *zer ikusi hura ikasi* errefrauren esanahia defendatzen duela. Ados zaude honekin? Umeek horrela ikasten dute?
6. Nolako eragina izan dezakete horrelako marrazki bizidunek umeen heziketan?

3 TESTUAREN ASMOA

➤ **Egileak zer lortu nahi zuen testu honekin? Galdetegiari erantzun.**

- ✓ Emakumeen diskriminazioaren alde egin
- ✓ ETB kritikatu horrelako saioak programatzeagatik
- ✓ Emakumearen diskriminazioaren aurka egin
- ✓ Marrazki bizidun horien kalitateari buruz iritzia eman
- ✓ Iritzirik eman barik, zer gertatzen den komentatu

BAI	EZ

4 HARK POLIT IRITZITAKOARI...

➤ **Taldeka zaudetela, errepara iezaiezue honako esaldi hauei:**

1. Zuk zer deritzozu horri?

2. Hark polit irizitakoari polit iritziko diote umeeek.
3. Horrelakorik defendatzen dutenek ez diete zuzen irizten saio horiei.

➤ **Berridatz itzazue aurrekoa esaldiak *irudi* aditzaren bitartez:**

1. _____
2. _____
3. _____

➤ **Laburbil itzazue *iritzi* aditzaren funtzionamendu-arauak beheko galderei erantzunez:**

1. Nolako aditza da? Intransitiboa ala transitiboa?
2. Aditz trinkoa al da?
3. Zein aditz laguntzaile eskatzen du? Nor / nor-nori / nor-nork / nor-nori-nork
4. Polita iritzi ala polit iritzi?
5. Zertan dira berdinak eta zertan ezberdinak *iritzi* eta *iruditu* aditzak?

➤ **Ezagutzen al duzue *iritzi* aditzaren paradigma? Taldeka bilduta, saia zaitzte orainaldi eta lehenaldiko formak asmatzen!**

	ORAIN	LEHEN
Nik hari Hik hari Hark hari Guk hari Zuk hari Zuek hari Haiek hari		
Nik haiei Hik haiei Hark haiei Guk haiei Zuk haiei Zuek haiei Haiek haiei		

5 EMAKUMEEN DISKRIMINAZIOA


➤ **Zer uste duzue gai honi buruz? Taldeka zaudetela, komenta itzazue honako puntu hauek:**

1. Emakumeek diskriminatuta segitzen al dute?
2. Zertan aldatu da gizartea? Zertan ez?
3. *Emakumeen aldeko diskriminazio positiboa* delakoa ezagutzen al duzue? Zer uste duzue horretaz?
4. Diskriminazioaren aurkako eta berdintasunaren aldeko konpromisoa egunerokoan islatu behar da, kontu eta jokaera txikietan alegia. Zeintzuk dira hauek? Egizue jokaera ez-diskriminatzaileen zerrenda laburra.

ADIZU!

- Saia zaitetz beste ikaskideen txanda errespetatzen.
- Alferrikako eztabaida asko besteari ez ulertzeagatik gertatzen dira. Hau dela eta:
 1. Ziurta ezazu besteek esan dutena ulertu duzula, bai eta zeuk esanikoa ere ulertu dutela.
 2. Esan nahi duzuna ahalik eta ondoen zehaztu.

➤ **Emakumearen diskriminazioa zein arlotan gertatzen den argitu nahi du beheko eskemak. Taldeka segitzen duzuela, eman itzazue arlo bakoitzeko adibide zehatzak. Honez gero, taldeak desegin eta berriak eginda, zehaztutakoaren berri emango diozue elkarri.**



11 INTERNET. BESTE IKUSPUNTUA

Unitate didaktiko honetan:

- Testu baten asmo komunikatiboa igartzea ulerkuntzarako klabea da!
- Edozein gaik oso trataera ezberdinak izan ditzake

GAIA: INTERNET

INTERNET. BESTE IKUSPUNTUA

1 ZER DAKIZU *INTERNET*ez?

- **Taldeka jarri eta komenta itzazue beheko puntuak. Amaieran hamar bat lerroko laburpena egin beharko duzue komentatutako guztia jasotze aldera.**
 1. Zer da *Internet*? Nola funtzionatzen du?
 2. Zertarako balio du?
 3. *Internet*ekin konektatzeko nolako ekipoa da beharrezkoa?
 4. Azken boladan gero eta gehiagotan entzuten da *internet* hitza. Zer dela eta?
 5. Zer-nolako informazioa bidaltzen da *interneten* bitartez?

- **Elkarri pasa eginiko txostentxoa eta komenta ezazue besteek jarritakoarekin ea ados zaudeten. Saia zaitetze denon artean argien deskribatuko duen laburpentxoa egiten.**

2 ZEIN DA EGILEAREN ASMOA?

- **Julio Gonzalez Abascalek idatzitako testu hau (*Euskaldunon Egunkarian* 1996ko azaroaren 8an argitaratua) irakurriko duzu, honako zeregina duzula: zein da testuaren asmo komunikatiboa? Zer lortu nahi zuen egileak testuaren bitartez, hau da, zertarako idatzi du? Honi erantzuteko, erabil itzazu behean eskaintzen zaizkizun aukerak (bat baino gehiago izan daiteke posible).**

TESTUAREN ASMO KOMUNIKATIBOA

- ✓ Internet-i buruz bere iritzia adierazi nahi du.
- ✓ Internet-i buruz azalpen neutroa egiten du.
- ✓ Gertaturiko zenbait pasadizo kronologikoki narratzen ditu.
- ✓ Internet-ek nola funtzionatzen duen azaldu nahi du.
- ✓ Irakurlea konbentzitu nahi du.
- ✓ Gai honekiko desadostasuna adierazi nahi du.
- ✓ Ontzat edo onartutzat jo ohi den gai baten beste ikuspegia eman nahi du.
- ✓ Irakurlea informatu nahi du, falta izan ditzakeen datuak emanez.
- ✓ Ideia edo tesi baten alde jokatu nahi du, argudioak erabiliz.
- ✓ Beste bat. Zein?

INTERNET. BESTE IKUSPUNTUA

Dirudienez, hedabide guztiak Internet erlijio berriaren apologista bihurtu dira. Interneti buruzko berrien bonbardaketa liluraduratik dator gehienetan. Mezua hauxe da: «Etorkizunean sarean gertatuko da dena. *Cyber-nauta* ez bazara, *kanpoan* zaude». Erabiltzaile gisa aplikazio batzuentzat Internet oso tresna erabilgarria dela konbentziturik nago. Tresna horren abantailak ez dira hemen errepikatu behar, berri ugari izaten baitugu egunkarietan, irratietan eta telebistetan. Adibidez, denok dakigu Internet sarean sarea dela eta haren bidez munduko beste muturrean eskaintzen diren zerbitzu telematikoak erabiltzea edo beste edonorekin kontaktuan jartzea posible dela. Hala ere, askotan hainbeste goستن diren aukera berriak ez ditugu ondo ulertzen. Maiz *ederki*, *baina*... leloarekin geratzen gara horrelako berriak jaso ondoren. Gutxitan izanagatik, egia da Interneten alde problematiko batzuk ere aipatzen direla noizbehinka. Adibidez, pornografia/zentsura eta pirateria / segurtasuna bezalako arazoak azaldu izan dira, nahiz eta askotan analisisa oso sakona ez den izan eta Interneten mitoa sendotzeko besterik ez duten balio izan. Horrela, Interneten kontsumoa bultzatu da, moda bihurtu den arte. Edozein gertakizun sozialek (kontzertua, inaugurazioa ...) Interneten nabigatzeko terminalak eskaini behar ditu moderna izango bada.

Aditu ugari azaltzen dira munduaren aldaketak iragartzen Internet dela medio. Ez egunkaririk ez eta libururik ere ez omen da izango etorkizunean. Klaseetara ez da joan beharrik izango. Eskola, lana, aisia erosketak... etxetik egingo dira terminal telematikoen bidez. Etorkizun hori posible bada ere, gehienetan prospektiba horiek funtsezko oinarri gabeko uste pertsonalak besterik ez dira. Fikziozko zientzia bai, baina eragin handikoa gizartean. Psikologoek berez betetzen den profetia deitzen dutenaren antzekoa da (amak haurrari: «Erori egingo zara!», eta haurra erori egiten da). Prospektiben bidez, jendearen eskemak eta jokabideak norabide batera eramaten dira, emaitzak naturalak edo, gutxienez, onargarriagoak egiteko.

Baina, nire ustez, sare telematikoen fenomenoak analisi sakonagoak merezi

ditu. Badaude beste alderdi batzuk, ia inoiz aipatzen ez direnak. Hona hemen hausnartzeko gai batzuk:

- Alderdi soziologikoak. Nola izango dira lan-erlazioak eta harreman pertsonalak? Pertsonen isolamendua bultzatu al da? Urrun daudenekin elkartzeko ondoan daudenengandik aldentzea ekarriko al du? Iragartzen diren telefenomenoek (*tele-lana*, *tele-ikasketa*, *tele-erosketa*, *tele-aisia* eta abar) nola aldatuko dituzte gizarte egiturak?
- Alderdi psikologikoak. Hasierako abstinentzi sindromea gaundituko al da edo handiagotu egingo al da Internetekiko dependentzia? Gizartean integratu ezin direnak alienazio-fenomeno berri baten bidez *bizitza birtualean* murgilduko al dira?
- Alderdi politikoak. Nork kontrolatzen du Interneten dagoen informazioa? Orain arte, edozeinek jar zezakeen informazio-zerbitzari bat, bere iritzia eskaintzeko. Baina zentsuraren lehenengo seinaleak azaltzen ari dira; esate baterako, lege bereziak aztertzen ari dira Frantzia, Australia edo EEBBetan. Bestalde, informazioa kontrolatzeko zentsura ez da beti beharrezkoa, informazio-monopolioak badituzte eta zerbitzari oso erakargarriak eta ondo eguneratuak. Horiek dira iritzi-egileak eta orain arteko zerbitzari alternatiboak betiko buletina edo *fancinearena* besterik ez dute egiten.
- Alderdi geopolitikoak. Diotenez, herri ez-garatuentzat, Internet azken aukera da teknologiaren trenea hartzeko. Herrien arteko ezberdintasunak desagertuko dira automatikoki sarea erabiltze soilarekin? Kontuan eduki hirugarren munduko herriek ez dutela behar den azpiegitura Interneten abantailak profitatzeko. Hori lortzeko herri garatuen menpe egongo dira: beti haien atzean, gero eta urrunago.
- Alderdi teknikoak. Itxaropen handiak sortu dira jendearengan, baina

Interneten eraginkortasuna oso mugatua da erabiltzeko dagoen banda-zabalera nahikoa estua delako.

Telekomunikazio-azpiegitura hobetuko denean, abiaduraren arazoa konponduko dela esaten dute, baina egiten den marketing-ak bultzatuta, ez al die erabiltzaile-kopuruak aurrea hartuko baliabideei?

- Alderdi ekonomikoak. Ez dakigu zer interes dauden Interneten atzean. Orain arte izaten diren izugarritzko gastuak, telekomunikazio-azpiegituran gehien bat, gobernuak hartu dituzte bere gain. Unibertsitateek ez dute batere ordaintzen eta beste erabiltzaileek ordaintzen dutena kostuaren zati bat besterik ez da. Etorkizunean telekomunikazio-enpresa handiek kobratuko al dute zerbitzu osoa? Internet bi saretan banatzeaz ere hitz egiten da, bat publikoa eta bestea ordaindu beharrekoa.

Horiek horrela, teknologiaren aurreko gizarte- jarreraren gai orokorragoan kokatu

behar da Interneten tratamendua. Gaur egun, teknologiaren emaitzak eztabaidarik gabe onartzen dira. Gaurko gizartearen mentalitatean ezin da teknologiaren kontra jo, modernitatearen kontra joatea delako. Adibidez injinerutza genetikoaren saioak, konputagailuen bidezko gizarte-kontrola, eta abar gauzatu dira geu konturatu gabe eta eztabaidari heldu baino lehen. Giro honetan Interneten miraria onartu da batere kritikarik gabe. Teknologiak erabakitzen du, ez gizakiak. Hala ere, ez naiz ni zeharo ezkorra. Gizartea oso malgua eta moldagarria da. Fenomeno berrien aurrean jarrera berriak asmatuko dira. *Tele-lana* ezartzen bada, esaterako, *tele-sindikatuak* eta *tele-grebak* azalduko dira tele-langileen arazoei aurre hartzeko. Gizarte aurreratu batean, gizarteak berak erabaki beharko luke norantz doan etorkizuna eta ez teknologiaren eskuragarritasunak. Baina hori posible izango da soil-soilik Interneten aurrean jarrera kritikoak hedatzen badira eta alderdi guztiak aztertzen badira, Interneten aurrean aho zabalik geratu ordez.

3 BI IKUSPUNTU

- **Internet dela-eta hedabideetan zabaltzen ari den trataeraren beste ikuspuntu bat eman nahi Julio Gonzalezek artikulu honetan. Bi ikuspuntu horiek laburbilduko zenituzke? Nolako argudioak erabiltzen dira bataren eta bestearen alde? Bikoteka zaudetela, bete itzazue beheko taulak:**

INTERNET: JARRERA POSITIBOA
EGILEAREN BESTE IKUSPUNTUA

4 TESTUAREN INFORMAZIOA GUREAREKIN ALDERATZEN

- **Argitasunik eskaini al dizue testuak *Interneti* buruz? Hasieran eginiko txostena hobetu ote dezakezue geroago irakurritako informazioaz? Saia zaitezte bakarka beste idazki bat egiten. Izenburua *zer / zertarako da internet?* izan daiteke. Har itzazue kontuan beheko puntu hauek:**
 1. Zein da gure testuaren asmo komunikatiboa?
 2. Zein izango da gure testu-mota?
 3. Zein da gure testuaren egitura?

12 AIREAREN KUTSADURA

Unitate didaktiko honetan:

- Hitzak sortzeko bideak ezagutzeak ulermena erraztuko digu
- Hitz ezezagunak hitz ezagunekin erkatuz gero, esanahia asmatzeko moduan izango gara

GAIA: KUTSADURA

AIREAREN KUTSADURA

1 NOLA IKASTEN DITUZU HITZAK?

- **Zer egiten duzu hitz berriak ikasi behar dituzunean? Nola ikasten dituzu? Bakarka zaudela, erantzun iezaiozu galdetegi txiki honi:**

1. Nire ama-hizkuntzako beste hitzen batekin konparatzen ditut.
2. Ozenki errepikatzen ditut, baita idatzi ere.
3. Gaika sailkatzen ditut: sukaldea, etxea, eguraldia...
4. Hitz batek adiera bat baino gehiago badu, esanahi bakoitzarekin esaldi bana asmatzen dut.
5. Neure hiztegitxoia egiten dut.
6. Zein hitzen antza duen pentsatu eta ezberdintasunari erreparatzen diot.
7. Zeintzuk beharko ditudan pentsatzen dut, horiei bereziki erreparatuz.
8. Hitz batzuk erabiliz, istorio bat asmatzen dut.
9. Lehenbailehen erabiltzen ditut, ahoz, idazlanetan...

BAI	EZ

- **Hauetaz gain, zein beste estrategia erabiltzen duzue hitz berriak gogoratzeko? Komenta itzazue denon artean. Zein dira eraginkorrenak zuretzat? Zerrenda itzazu zeure strategiak, ikaskuntza erraztuko dizu-eta!**

2 ZEIN MOTATAKO HITZAK IZATEN DIRA EUSKARAZ?

- **Hemen dituzu euskarak hitz berriak sortzeko dituen bideetako batzuk (ez guztiak). Arretaz irakur itzazue:**

1. Maileguak: beste hizkuntzetatik harturiko hitzak dira. Normalean, euskal ahoskera eta itxura ematen zaie.

- Euskaraz tradizio luzea duten hitz mailegatuak. Adib.: *gauza* (lat. causa), *tradizioa*...
- Mailegu berriak: hauekin kontuz ibili beharra dago, agian euskaraz esanahi bera duten bestelako hitzak izan baitaitezke. Adib.: *ekilibrio*, *asiento*... (oreka, eserleku...)

2. Hitz sortzaileak

- Aurrizkiak (oinarri den hitz bati aurrean jarritako aurrizkiak esanahi ezberdina emango dio). Adib.: *ezberdin*, *berpiztu*...
- Atzizkidunak (oinarri den hitz bati atzean jarritako atzizkiak esanahi ezberdina emango dio). Adib.: *txapeldun*, *langile*, *kutsadura*...
- Hitz elkartuak (bi hitzen juntadurak esanahi ezberdina duen hitza sortuko du). Adib.: *seme-alaba*, *udaberria*...

3 ZUK ZEIN EZAGUTZEN DUZU?

- Taldeka zaudetela, saia zaitetze aurrekoak bezalako adibideak asmatzen.

Maileguak	}	- Tradiziozkoak
		- Mailegu berriak
Hitz sortzaileak	}	- Aurrizkiak
		- Atzizkidunak
		- Hitz elkarketa

4 IRAKURKETA

- Irakur ezazu arretaz Allande Sokarrosek 1996ko otsailaren 8an *Euskaldunon Egunkarian* argitara emandako testu hau. Zure lana testuan zehar agerturiko maileguak eta hitz sortzaileak azpimarratzea izango da. Behean, dena dela, aurrizki, atzizki edo hitz-elkarketa horiek aurkituko dituzu. Zerrenda horretan jarri beharko dituzu hitzak, beraz.

1. MAILEGUAK

Mailegu hauek ba al dute euskal ordainik? Izanez gero, eman itzazu.

2. HITZ SORTZAILEAK

- Aurrizkiak

- Atzizkidunak

1. -keta:	7. -kunde:	13. -tza:
2. -tasun:	8. -kor:	14. -dun:
3. -ka:	9. -gile:	15. -ro:
4. -era:	10. garri:	16. -ki
5. -gailu:	11. -gai:	17. -kide
6. -dura:	12. -pen:	

- Hitz elkartuak

Izena + izena: _____

Aditza + izena: _____

**AIREAREN KUTSADURAK HERIOTZA AZKARTU DIE
EHUNDAKA LAGUNI**

Aire kutsatuak arnasari eta bihotzari lotutako gaixotasunak zeuzkaten ehundaka lagun heriotza lasterrago eragin zuela agerian jarri du azterketa batek. Ibilgailuen erabilera da airearen kutsadura gehienik sortzen duen kausa.

Urtero Paris eta inguruetakoko 260-350 bizilagun arnasari edota bihotzari lotutako gaixotasunez epe laburragoan hiltzen dira, airearen kutsaduragatik. Lyon eta bere inguruan, berriz, 30-50 lagun hiltzen dira motibo eta gertaera beragatik.

Datu hauek Frantziako Osasun Publikoko Sozietatea (SFSP) ikerketa erakundeak plazaratu ditu eta Europako Batasunak (EB) agindutako azterketa baten emaitzetan dira. Paris eta Lyoni -Frantziako bi hiri nagusiak dira- dagozkien datu hauek EBko beste 13 hiri handitan bildutako datuekin alderatuko dira, Alpea izeneko azterketaren ondorio orokorrak moldatzeko asmoarekin.

Ikerketa egileek argi nahi izan dute utzi hiri handietako airearen kutsadura ez dela berez heriotza hauen eragile zuzena, elementu larriak baizik. Izan ere, faktore honi lotutako arnasaren eta bihotzaren gaixotasunek eragindako hiltzeak % 1,7 eta % 2,2 tarteak izan ziren Paris eta bere inguruan 1987tik 1992ra bitartean, eta Lyon aldeari dagokionez, % 4,5 eta % 5.6 tarteak 1985etik 1990era bitartean, aipatutako azterketa horren arabera. Nolanahi ere, Michel Aubier pneumologoaren iritzian, «gaixo hauek

hiltzekoak ziren eta aire kutsatuak egun bat eta sei aste bitartean besterik ez die kendu».

Alabaina, gutxi baldin bada ere, airearen kutsadurak zerikusirik badu, beraz, osasun egoeraren larritzearekin, eta autoen eta beste ibilgailu motoredunen monoxido karbonikoak du kalte handiena egiten. Inkesta baten arabera, bideetako garraioek dute gas kaltegarri honen % 87 ekoizten: gainontzekoa aire garraioek dute eragiten. Parisen eta Lyonen airearen kutsadura neurtzeko aparailuak dabilta azken urteotan eta hauen gehitzea aipatuta dago. Lyonen, esaterako, 14 neurgailu besterik ez dira gaur egun.

SFSPren azterketa honen emaitzek eztabaida bizia eragin dute arnasaren eta bihotzaren gaixotasunetan adituak diren medikuen artean, airearen kutsadurak eragindako ondorioen larritasunez nahiko iritzi aldenduak entzun baitira. Gobernuan ere oihartzunik izan dezakete ikerketa honen datuek, eta bereziki airearen kalitateaz moldatzekotan dagoen legegaiaren aurkezpena azkartu. Gai honi buruz gobernuakideen artean desadostasunik badela jakina da, eta horrek Corinne Lepage Ingurugiro ministroaren ardurapean dagoen dossier honen atzeratzea eragin du.

- **Taldeka jarrita, zuzen ezazue ariketa. Ba al da ezagutzen ez zenuten hitzik? Saia zaitez ikasten, unitate didaktiko honen hasieran komentatu ditugun estrategiak erabiliz.**

5 JOKAERA EKOLOGIKOAK

- **Taldeka zaudetela, saia zaitezte jokaera ekologikoak zein diren adierazten. Zer egin behar genuke? Zer ez? Honetarako zenbait orientabide emango zaizue.**

- | | |
|-----------------------|--------------|
| 1. Energia aurrezteko | 3. Garraioak |
| 2. Hondakinak | 4. (...) |

- **Zerrendak elkarri pasa eta aldera itzazue: zeintzuk ez dituzte beste ikaskideek jarri? Zeintzuk bai?**

6 KUTSADURAREN ERAGILEAK

- **Taldeka zaudetela, zerrenda itzazue kutsadura sor dezaketen faktoreak, gehien sortzen dutenetatik gutxien sortzen dutenetara ordenatuz. Halaber, eman itzazue balizko soluzioak:**

KUTSADURA GEHIEN SORTZEN DUTEN ARRAZOIAK	SOLUZIO POSIBLEAK
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	

13 ZEIN DIRA ZURE IDAZTEKO OHITURAK?

Unitate didaktiko honetan:

- Idaztean dituzun ohiturei buruzko hausnarketa egingo duzu
- Zer ikasi behar dugu idazten ikasteko?
- Zeren arabera ebaluatzen da testu bat?

GAIA: IDAZKETAREN PROZESUA

ZEIN DIRA ZURE IDAZTEKO OHITURAK?

1 NOLA IDAZTEN DUZU?

- **Nolako ohiturak dituzu idaztean? Nola enfokatzen duzu gai baten idazketa? Behean duzun galdetegiak baliatuta, pentsa ezazu idaztean zer egiten duzun eta zer ez.**

1. Idazten hasi aurretik nolako testua idatziko dudan pentsatzen dut.
2. Irakurlea nolakoa izango den hartzen dut kontuan, hau da, gaiaz zer dakien gaiaz, errespetuz idatzi behar diodan ala ez, e.a.
3. Boligrafoa hartu bezain pronto hasten naiz idazten, ezelako eskemarik egin gabe.
4. Idazten hasi aurretik, erabaki batzuk hartzen ditut, hala nola, idazlanaren asmo komunikatiboa zein izango den (zerbait azaldu, iritzia eman...), erabiliko ditudan ideia nagusiak...
5. Idatzi ondoren, testua berrikusi eta zuzentzen dut.
6. Laburregi idazten dut, ideiak askotan telegrama moduan emanez.
7. Aditz, adjektibo eta esamolde berberak errepikatzen ditut idazlan askotan.
8. Ikasgelan edo etxean irakurritako testuetan agertu diren hitz, esamolde, egitura edo ideiak neure idazlanetan tartekatzen saiatzen naiz.
9. Edonork irakur dezake nire lana "bere aldetik gauzak imajinatu gabe" eta azalpenak eskatu gabe.
10. Irakasleak aurreko idazlanean zuzenduriko erroreak ez egiten saiatzen naiz.

BAI	EZ

- **Komenta itzazue bikoteka aurreko puntuak. Zein ohitura aldatu behar zenuke idazterako momentuan? Zeini eutsi behar zeniokete?**

2 ZER DA IDAZTEA?

- Ezin uka daiteke idazketa-prozesuaren zailtasunak handiak direla. Sarritan zailtasun hauek prozesuaren beraren ezaugarriak eta edukiak ez ezagutzetik edo ez menderatzetik datozkigu. Irakur ezazue arretaz beheko eskema eta talde txikietan zaudetela, defini itzazue hor zerrendatutako kontzeptuak.



- **Definitu beharreko kontzeptuak:**

- | | | |
|-----------------|---------------|---------------|
| ❖ Planifikazioa | ❖ Kohesioa | ❖ Paragrafoa |
| ❖ Idazketa | ❖ Koherentzia | ❖ Testua |
| ❖ Berrikusketa | ❖ Egokitasuna | ❖ Testu-motak |
| ❖ Zuzentasuna | ❖ Estilistika | ❖ Testu-erak |

3 AZTER DEZAGUN IDAZLAN BAT!

- **Irakur ezazu bakarka beheko idazlana eta saia zaitetz aztertzen. Honetarako, erantzun izeaiezu eskuineko zutabeen dauden galderei. Koherentziari erreparatu nahi diogula, utz itzazu alde batera gramatika-erroreak.**

GAIA: TRAFIKO-ISTRIPUAK

Gaur egun trafiko-istripuak gure gizarteko arazo nagusienetarikoak dira. Egunero gertatzen dira trafiko-istripuak errepideetan sortzen diren higikarien metatzearekin eta gehienetan ugari izaten dira udan jendea kanpora doalako oporrak pasatzeko asmoz. Neguan ere gertatzen dira batez ere jendeak lanerako bidea hartzen duenean goizeko zortzietan, hiri handietan gehienbat.

Sarritan udan eta batez ere abuztuan urte osoan baino istripu gehiago gertatzen dira, abuztua oporraldien hilabete normalena delako. Hala ere jende askori ez zaio aglomerazioa gustatzen eta arazo hau sor ez dadin maiatzean hartzen ditu oporrak lasaiago izan daitezten. Abuztuan istripu ugari gertatzen dira eta gure gizarteko arazo larrienetariko bat bihurtzen ari da. Abuztuan, hainbat komunikabideetan istripuak izan ohi dira albiste garrantzitsuenetarikoak.

Askotan gure egunkarietan lehenengo planuan edo sarrera nagusian trafiko-istripuak izaten dira berri nagusiak. Udako ihardunaldietan ere telebista berri garrantzitsuenak teleberrian aipatzerakoan normalean beti dago baten bat trafiko istripuekin erlazionaturik.

Gaur egun gure gizartea nire iritziz dexente ohituta dago honelako berriak entzutera gure gizartearen dinamikaren barne daudelako eta sekulako istripuak gertatzen direlako eta ez bakarrik errepideetan, itsasoz eta airez ere gertatzen baitira.

Trafiko zuzendariak istripu gehiago gerta ez daitezten publizitate kanpainak egiten ditu gizarteak arazo honen berri izan dezan. Adibidez telebistan trafiko zuzendaritzaren iragarki ugari agertzen da eta bertan irudi penagarriak eta oso tristeak ikus ditzakegu. Baina nire ustez nahiz eta irudiak oso inpaktanteak izan, ez dira eraginkorrak izango

1. Zein da ideia nagusia?

2. Zein da gaineratzen duen informazio berria?

3. Ba al da gaiarekin lotzen ez den ideiarik?

4. Zein da gaineratzen duen informazio berria?

5. Zein da gaineratzen duen informazio berria?

6. Zein da gaineratzen duen informazio berria?

gutxienez zu istripu baten biktima izan arte.

Arazo honi aurre egiteko autopistetan abiaduraren murrizketa bat jarri beharko litzateke edo abiadura maximo bat eta honela ez lirateke egongo hainbat istripu. Baina nire ustez abiaduren murrizketekin eta abarrekin ez litzateke arazo hau konponduko istripuak beti geratzen direlako gure gizartean garraiobideak egongo diren bitartean.

Dena den gau egungo trafiko-istripuak gidarien erroreengatik gertatzen dira. Batzutan semaforoei paso egiteagatik edota stop baten aurrean gelditu ez izanagatik. Beste batzutan ordu txikietan gidatzeagatik gertatzen dira logurea dela. Beste batzutan batez ere gazteen kasuan alkohola edo drogak izaten dira istripu hauen kausa edo arrazoi nagusiak.

Hala ere nire ustez gaur egun trafiko-istripuen arazoei aurre egitea oso zaila da gizarteak bere garapenean bakarrik pentsatzen duelako. Gero eta errepide gehiago dago, hobeak eta modernoagoak egiten dira eta autoen abiadura tamalez igotzen da eta honen ondorioz autopistetatik bizkorrago joaten dira. Honen ondorioa istripuen kopuruaren igoera bat da biktima gehiago egonez gizarteak garapenean edota progresuan bakarrikan pentsatzen duelarik.

7. Zein da gaineratzen duen informazio berria?

8. Egokia al da soluzio posiblea eskaintzea eta segidan hori bertan behera uztea?

9. Zein da gaineratzen duen informazio berria?

10. Lehen soluzioa eskainita, zein da paragrafo honen funtzioa?

11. Nolako ondorioa ateratzen du?

12. Ba al da errepikatutako ideiarik?

13. Nolakoa da sintaxia?

4 ONDORIOAK

➤ **Ondorioak atera nahian, taldeka zaudetela, erantzun iezaiezue galdera hauei:**

1. Planifikazioa

- Testuaren asmo komunikatiboa zehaztu ote du idazleak? Zertarako idatziko zuen pentsatu ote du?
- Testu-motarik aukeratu al du?

2. Berrikusketa

- Planifikazio-aldian jarritako helburuak bete dituen berrikusi al du?
- Gramatika, puntuazioa, ideien kateamendua, estiloa... birpasatu al du?

3. Informazioa

- Nolakoa da testuaren egitura?
- Ideien ordenamendu logikorik ba al da?
- Ideien errepikarik ba al du testuak?
- Ideiak argiak eta ondo garatuak ote dira?
- Informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa ondo bereizten al da?

4. Testuaren kohesioa

- Puntuazio egokia erabili al du?
- Lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabili al ditu?

➤ **Aurreko puntuak hartu behar al dira kontuan? Zuek idaztean, honelakorik pentsatu edo aztertzen al duzue?**

14 IKASLEEN NAHASMENDU PSIKOLOGIKOAK

Unitate didaktiko honetan:


- Testua batasuna duen unitatea duzu:
 1. Ideien ordena logikoa behar du
 2. Ideiak baliabide linguistikoek lotu behar dituzte
- Aurreko ezaugarriak ezagutu eta identifikatzeak, idazten ez ezik, irakurtzen ere lagunduko digu

GAIA: IKASLEEN ARAZOAK

IKASLEEN NAHASMENDU PSIKOLOGIKOAK

1 TESTUEN EZAUGARRIAK

- **Testua** kontzeptuaren definizioa emate aldera, gutxieneko komunikazio-unitatea dela esan genezake, esanahi osoa duen ahozko edo idatzizko produkzioa, alegia. Testuak, beraz, gutxieneko batasuna duen entitatea duzu. Errepara iezaiozu honako eskema honi:



- **Ariketa honetan goiko bi alderdi horiek, koherentzia eta kohesioa, alegia, aztertzea proposatu nahi dizugu. Segi dezagun, bada, aurrera.**

2 KOHESIORAKO BALIABIDEAK

- **Testu batean kohesioa ziurtatzen duten baliabideak asko izan arren, unitate didaktiko honetan *testu-antolatzaileak*, *diskurtso-adierazleak* edo *lokailu* izenez deiturikoak aztertuko ditugu. Gainirakur ezazu Arin-arin I. Petxarromanek *Euskaldunon Egunkarian* 1996ko martxoaren 20an argitara emandako testu hau, eta egin itzazu lantxo hauek:**

1. Azpimarra itzazu testu-antolatzaileak.
2. Ager ezazu testuan antolatzaile hauek zein funtzio betetzen duten.,
3. Eta azkenik, testuinguru berean erabil litezkeen beste zenbait asmatuko al zenituzke?

TESTU-ANTOLATZAILEAK	FUNTZIOA	PAREKO ANTOLATZAILEAK
	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazioa gaineratzea ✓ Aurkaritza adieraztea ✓ Besteren esanari erreferentzia egitea ✓ Kausa adieraztea ✓ Ondorioa adieraztea ✓ Adibidea ematea ✓ Ideiaren bat zehaztea ✓ (...) 	

IKASLEEN NAHASMENDU PSIKOLOGIKOAK

Bizkaiko unibertsitateen laurdenek nahasmendu psikologikoak izateko arriskua dute Medikuntza fakultateko Neurozientzia Departamentuko zenbait irakaslek egin duten azterketaren arabera. Azterketa 5.234 ikaslerekin egin du Psikiatria eta Psikologia Ataleko irakasle talde horrek. Azterketaren arabera, Medikuntzako eta Odontologiako ikasleak dira nahasmendu psikologikoak izateko arrisku gehien dutenak.

Agurtzane Ortiz Medikuntza Fakultateko irakasle eta ikerketa taldeko partaidearekin izan da *EUSKALDUNON EGUNKARIA*. Irakasle honek azaldu duenez, ikerketa egiteko zenbait galdera sorta egin zizkieten ikasleei. Besteak beste, nortasuna ikertzeko galdera sorta, psikopatologia atzemateko galderak, alkoholaren kontsumoa neurtzekoak, eta zenbait datu soziodemografiko argitzekoak.

Egindako ikerketaren arabera, Medikuntza eta Odontologiako ikasleak dira, hain justu, arazo psikologikoak izateko arrisku gehien dutenak. Gutxien dutenak, aldiz, Soziologia, Enpresaritza eta Ekonomiako ikasleak. Horren arrazoia ikasleek duten presioa izan daitekeela azaldu digu Agurtzane Ortizek. Horren hitzetan, ikasketa plan berriarekin ikasleek duten presioa «izugarria» da: «Alde batetik, unibertsitatean sartzeko nota oso altua behar dute. Bertan mantentzeko ere emaitza onak erdietsi behar dituzte, ez baita nahikoa azterketa gainditzea: horrez gain, nota ona ere atera behar izaten da. Gainera

praktikako ordu asko dituzte, eta batez ere Medikuntzan ikasleek ordu asko sartzen dituzte Fakultatean bertan praktikak direla-eta. Beraz, presioa oso handia da».

Ikerketa 1, 3 eta 5. mailako ikasleekin egin dute Psikologia eta Psikiatria Ataleko irakasleek. Ildo horretan, konturatu dira ikasle gazteenek dutela arrisku gehiago arazoak izateko zaharrek baino. Horren arrazoia izan daiteke, ikertzaileen iritziz, oraindik ez dutela ohiturarik unibertsitatean izateko eta mugitzeko. Beraien aburuz, ohitu ahala, psikopatologia –hau antsietatea da gehienbat, Ortizek argitu duenez– jaisten doa. Hogeita bost urtetik gora, berriz ere, antsietate hori areagotu egiten da, lan merkatuan sartzeko adina iritsi baita adin horrekin.

Ikerketan atera duten beste ondorio bat da nesken artean antsietate kasu gehiago izaten direla mutilen artean baino. Datu hori, hala ere, testuinguru orokorrago batean sartu behar dela diosku Agurtzane Ortizek. Izan ere, neskek, normalean,

mutilek baino errazago adierazten baitituzte arazoak, ez dituzte ezkututzen. Medikuntzako irakasleak adierazi duenez, «ikerketan alexitimia ere neurtzen dugu. Alexitimia emozioak kanporatzeko gaitasun eza da, eta horretan, argi dago, mutilek alexitimia maila handiago dutela. Hau da, ez dituzte sentimenduak hain erraz adierazten».

Ikerketa egiteko eskaera EHUKo Erretoretzak egin zuen: izan ere, Unibertsitate horretako organo gorenak jakin nahi baitzuen ea laguntza psikologikorako zentro bat irekitzeko

beharra dagoen EHUUn. Horregatik, beharra dagoen ikusteko, lehenbizi ikertu egin behar da. Orain, Neurozientzia Departamenduko irakasle taldeak egindako ikerketaren emaitzak jendaurrean dira, tesi bat osatzen baitute. Horiek egin dute beren lana, orain Erretoretzaren esku dago neurriren bat hartu behar den edo ez erabakitzea.

Agurtzane Ortizek adierazi duenez, bi urte barru ikerketaren segimendua egingo dute, gaur egun 1. mailan dauden ikasleek 3. mailan daudenean zer bilakaera izan duten ikusteko.

3 INFORMAZIOAREN GARAPENA

- **Konturatuko zinenez, sarreraz gain, artikulua sei paragrafo du. Orain astiro eta arretaz irakurri, eta informazioaren garapena nola gertatzen den zehaztuko al zenuke? Honetarako, paragrafo bakoitzean zein informazio berri gaineratzen duen azaldu behar duzu. Gogora ezazu:**

Informazioaren garapena bi alderdi hauen arteko konbinaketatik dator:

1. Informazio ezaguna: irakurleak lehendik dakiena.
2. Informazio berria: irakurleak ez dakiena eta orain esaten zaiona. Berri den hori agertzeaz batera, informazio ezaguna bihurtzen da.

ATALA	INFORMAZIOAREN GARAPENA
Sarrera	Gaiaren laburbilpena: Bizkaiko unibertsitarioen laurdenek nahasmendu psikologikoak izateko arriskua dute
1. paragrafoa	Zein informazio berri ematen du?
2. paragrafoa	Zein informazio berri ematen du?

3. paragrafoa	Zein informazio berri ematen du?
4. paragrafoa	Zein informazio berri ematen du?
5. paragrafoa	Zein informazio berri ematen du?
6. paragrafoa	Zein informazio berri ematen du?

4 ARTIKULUAREN EBALUAZIOA

- Egin dezagun irakurri berri dugun artikularen ebaluazioa, unitate didaktiko honen hasieran azalduriko irizpideen arabera. Galdera hauei bakarka erantzundakoan, komenta itzazue denon artean emaitzak.

IRAKURRI DUZUN TESTUAK BA AL DU BATASUNIK?

- Ideien aldetik (koherentzia):
 - Informazio ezaguna eta informazio berria modu progresiboan agertzen al da?
 - Paragrafo argiak al ditu? Egokiak al dira? Ideia nagusi bana al daramate?
 - Egitura egokia al da?
 - Zer azaldu nahi zuen kontuan hartuta, testu-mota egokia aukeratu al du egileak?
- Lotura linguistikoen aldetik (kohesioa):
 - Hitz errepikarik ba al da? Sinonimoak, izenordeak... egoki erabiltzen al ditu?
 - Lokailu eta testu-antolatzaileek laguntzen al dute egitura eta mezua argiago ikusten?
 - Puntuazio egokia ote darabil?

5 ONDORIOAK ATERA NAHIAN

➤ Aurreko ariketak eginda, erantzun iezaiezu bakarka honako galdera hauei:

1. Neure idazlanetan koherentzia gordetzen saiatzen naiz.
2. Honetarako, informazio berria eta ezagunaren arteko oreka mantendu nahi izaten dut.
3. Paragrafoaren unitatea errespetatzen dut.
4. Lokailu eta testu-antolatzaile egokiak pasarte egokian erabiltzen saiatzen naiz.
5. Testu baten informazioa nolako ordenan emanda dagoen konturatzek hobeto ulertzen laguntzen du.
6. Lokailuen funtzioak ezagutzeak ere hobeto ulertzeko balio du: gero zer-nolako informazioa datorren jakingo dugu, nahiz pasarte hori osorik ulertu ez.

ADOS	AURKA

15 PARAGRAFOZ PARAGRAFO

Unitate didaktiko honetan:


- **Paragrafoaren garrantziaz jabetuko zara**
- **Paragrafo bakoitzeko ideia nagusi bana**
- **Idea osagarriak garatzeko moduak aurkituko dituzu**

GAIA: ZENBAIT GAI

PARAGRAFOZ PARAGRAFO

1 PARAGRAFOAREN EZAUGARRIAK

- Testuaren batasuna ziurtatzen duten elementuen artean paragrafoa da nabari eta nabarmenetakoa. Irakur ezazu arin-arin beheko eskemaren azalpena.



2 PARAGRAFOAK AZTERTZEN

- **Irakur itzazu honako paragrafo hauek eta erantzun izeaiezu beheko galderei:**

Ez da kasualitate hutsa gaur egun autoa baldin bada gizarte modernoaren sinboloetan lehen. Gizarte honen irudimenaren erdi-erdian dago, batetik, eta bere industri ekimenaren oinarrian bestetik. Berak jartzen ditu, neurri handi batean, bizitza ekonomikoaren erritmoaren zuinak, eta berak eragiten ditu orobat onerako ala txarrerako, baina XX. mende honen ezaugarri bihurtu diren arau, jarduera eta jokaera banakako zein kolektiboek osatzen duten alor zabala.

UNESCOren Albistaria, 71. alea

Zein da ideia nagusia?

- Autoak XX. mendearen arau, jarduera eta jokaera banakako zein kolektiboak ezarri ditu.
- Autoa gizarte modernoaren lehen sinboloa da.
- Autoak oso industria boteretsua sortu du.

Non dago ideia nagusia?

- Paragrafoaren hasieran.
- Erdian.
- Amaieran.

Nola garatzen du ideia nagusia?

- Arrazoiak ematen ditu.
- Konparazioen bitartez.
- Azalpena ematen du.

Europa guztian, ezkontzaren beherakadak

Zein da ideia nagusia?

elkarketa libreen gorakada ekarri du. Frantzia bakarrik, eta lurralde eskandinabiarren aldean kopurua apala izaki, bikoteen %10 (milioi bat inguru, beraz) elkarketa librea bizi da. Kopuru honek %50 egiten du Paris inguruan bizi direnen eta 25 urtetik beherako gizonen artean.

UNESCOren Albistaria, 56. alea

«Ardoa edanda, mozkortzen naiz» hitzekin hasten da herri-kanta ezagun bat eta ardoa edanda, hain zuzen, arazoak izaten dituzte auto-gidari askok gure artean alkoholemia kontrolak direla eta. Brasilen, aitzitik, alkoholak, etanolak hain justu, automobilien motoreak piztu egiten ditu.

Iñaki Irazabalbeitia
Elhuyar, 1993ko apirila

Gehientsuok, oporren oroimena ahantzita dugunean, estresaren arerioari egin behar diogu aurre. Harridura sortzen badu ere, gizarte garatuetan bizi garenok ez gara gaixotasun hau jasaten dugun bakarrak: herrialde afrikarretako ospitaletan egindako inkesta baten arabera, biztanlegoaren %90ek ultzera, hipertentsio arteriala, buruko mina ala antsietateak eragiten dituen hainbat gaitz jasaten ditu.

Argia, 1501. Zenb.

- a) Lurralde eskandinabiarretan dago elkarketa libre gehien Europan.
- b) Europa osoan gero eta ezkontza gutxiago dago eta gero eta elkarketa libre gehiago.
- c) Frantzia lurralde eskandinabiarretan baino elkarte libre gehiago dago.

Non dago ideia nagusia?

- a) Paragrafoaren hasieran.
- b) Erdian.
- c) Amaieran.

Nola garatzen du ideia nagusia?

- a) Ideia zehazten du.
- b) Adibideak ematen ditu.
- c) Datuen bitartez frogatu nahi du ideia nagusia.

Zein da ideia nagusia?

- a) Brasilen alkoholarekin erregaia egin nahi dute.
- b) Auto-gidari askok alkohol-kontrola izaten dituzte arazoak.
- c) Herri-kanta baten arabera, alkoholak mozkortu egiten du.

Non dago ideia nagusia?

- a) Paragrafoaren hasieran.
- b) Erdian.
- c) Amaieran.

Nola garatzen du ideia nagusia?

- a) Ideien arteko aurkaritza edo kontrakotasunaren bidez.
- b) Alkoholaren abantailak zerrendatzen ditu erregai modura.
- c) Erregaien arteko konparazioa egiten du.

Zein da ideia nagusia?

- a) Garatu gabeko herrietan ere estresa jasaten dute.
- b) Estresaren sintomak zerrendatzen ditu.
- c) Oporrak amaituta, lanera bueltatu beharrak sortzen du estresa.

Non dago ideia nagusia?

- a) Paragrafoaren hasieran.
- b) Erdian.
- c) Amaieran.

Nola garatzen du ideia nagusia?

- a) Datuak ematen ditu.
- b) Arrazoiak ematen ditu.
- c) Ondorioak aurkezten ditu.

- **Hirukoteka bilduta, elkarri zalantzak argitu eta aldera itzazue norberak emaniko soluzioak. Zein da zuzena? Zein ez? Zergatik?**

PARAGRAFOA IDATZI IDEIA NAGUSIA EMANIK

- Hemen dituzu zenbait paragrafo idazteko behar dituzun ideia nagusiak. Idatz ezazu paragrafo bana hauetako bakoitzarekin. Ez erantzun ideiari (*Bai, egia da...*), edo idazten hasi informazio hori jakintzat emanda.

- Adieraz ezazu ideia nagusia hasierako lerroan.

1. Zenbaitek hobeto tratatzen ditu animaliak pertsonak baino.

2. Futbol-zaletuen artean gatazka ugari gertatzen omen da.

- Adieraz ezazu ideia nagusia azken lerroan.

3. Itxura fisiko ona edukitzeko nahia obsesioa izateraino heltzen da sarritan.

4. Zarata artean bizi gara.

IDEIAK GARATZEKO ZENBAIT MODU

- Informazio gehiago gaineratu
- Ideia nagusia hobeto azaldu
- Arrazoiak eman
- Adibideak eman
- Ideia besteren batekin konparatu
- Ñabardura adierazi
- Gehiago zehaztu
- Ideia horren garrantzia azpimarratu
- (...)

4 IKASKIDEAREN IDAZKIA ZUZENDU

- **Bikoteka jarrita, pasa elkarri eginiko idazkiak. Orain ikaskideari zuzenduko diozue, baina honako irizpide hauei segituz:**

1. Paragrafoa ondo garatuta al dago?

- Ideia nagusia agindutako lekuan (hasieran / amaieran) garatu al du?
- Ideia osagarriak argiak al dira?
- Egokia al da erabilitako garapen-modua?

2. Paragrafo zuzena al da?

16 **INFORMAZIOA AURRERA**

Unitate didaktiko honetan:

- **Informazioaren garapena gauzatzeko zenbait bide ezagutuko dituzu**
- **Ideien garapenerako erabil daitezkeen antolatzaileak landuko dituzu**

GAIA: HEZKUNTZA

INFORMAZIOA AURRERA

1 ZENBAIT GARAPEN MOTA

- **Ideen garapena gertatzeko hainbat modu dugu aukeran. Behean hauetako batzuk aurkituko dituzu. Garapen-moduaz gain, definizio laburra ere izango duzu.**

MODUA	DEFINIZIOA
Informazioa gehitzea	Lehenago esandako ideiare beste zerbait gaineratu edo eransten zaio.
Aurkaritza	Lehenago esandakoari nolabaiteko kontrakotasuna ezartzen zaio (alabaina, aitzitik, berriz...).
Ondorioa	Idea bat aurrekoak baieztatzen duenaren ondorio dela aditzera emateko erabiltzen dugu garapen hau (hortaz, horrenbestez...).
Kausa	Hau aurrekoaren guztiz kidekoa da. Oraingoan, bigarren ideia aurrekoaren zergatia edo arrazoia dela adierazteko erabiltzen dugu (zeren, bada, izan ere...).
Adibidea	Sarritan aurrerago esandakoaren argigarri gisa erabiltzen da garapen-mota hau. Bertan, datu edo adibideren bat gaineratuko dugu.
Zerrendapena	Idea, prozesu, leku edo abarren alderdi desberdinak zerrendatzen dira.
Konparaketa	Hizpide dugun gaia edo ideia beste batekin konparatzen dugu, tesi nagusirako argigarria izango delakoan.

2 ZEIN DA ZEIN?

- **Testu-pasarte batzuk irakurriko dituzue segidan (*UNESCOren ALBISTARIA*, 102. alea). Zuen lana informazioaren progresioa nola gertatzen den zehaztea izango da, aurreko garapen-motak identifikatze aldera. Edonola ere, kontuan har ezazue hauetako modu bat baino gehiago ager daitekeela zati berean.**

1. Eskola bidegurutze batean da gaur: alde batetik, estatuak ez du hezkuntza finantzatu eta gidatu nahi eta, bestetik, eskolek eta tokian tokiko agintariek gehiago kontrolatu nahi dute hezkuntza.

GARAPEN-MOTA:

2. Erakunde estatikoa ematen du sarritan eskolak, mugitzen ari den unibertso baten erdian. Baina aldaketa sozial batzuek arras aldatuko dituzte, noski, hezkuntzaren sistema eta oinarriak.
GARAPEN-MOTA:

3. Ikasteko gogo antzinako ezaugarria dute Asiako kulturek. Konfuziok esana da, K.a. VI-V. mendeetan: hezkuntzak perfektzioaren bidetik eraman dezake gizona. Konfuzioren ustez, bitarteko ahaltzua da hezkuntza, bai gizakia eta bai gizartea hobetzeko. Hala, mendetan izan da hezkuntza Asiako bizitza politiko, ekonomiko eta kulturalaren oinarri.
GARAPEN-MOTA:

4. Afrikak hezkuntza-sistema berraztertu behar du, beste edozein kontinentek baino areago. Izan ere, garai kolonialean ezarritakoak dira gaurko hezkuntza-sistemak: orduan bezalakoxeak.
GARAPEN-MOTA:

5. Munduko hiri handienetan, baratzetarako erabiltzen dira lur-eremuak. New Yorken, adibidez, mila baratze komunitariotik gora daude; eta Berlinen, berriz, 80 milatik gora. Garabidean dauden herrialdeetan, hirietako nekazaritza diru-iturri da 100 milioi lagunentzat eta janari-sortzaile 500 milioirentzat.
GARAPEN-MOTA:

6. Oso herrialde gutxik hartu dituzte kontuan *Izaten ikasi* delako txostenaren iradokizunak nazio mailan: besteak beste, Kanada, Japonia, Suedia, Norvegia eta Argentinak.
GARAPEN-MOTA:

7. Dauzkagun datuen arabera, irakasleen soldata, herrialde aberatsetako salbuespen urriak salbu, maila bereko profesionalena baino askoz ere txikiagoa da. Guztiok ezagutzen ditugu ondorioak: badaezpadako irakasleak kontratatzen dira, irakasle onenek eta esperientziadunek utzi egiten dute lanbidea eta denen gogorik ezak pedagogia sortzailea baztertzea ekartzen du
GARAPEN-MOTA:

3 **BESTE HAINBAT TESTU-ANTOLATZAILE**

- **Hona hemen ideiak lotu eta garatzeko erabil daitezkeen hainbat elementu linguistiko (lokailu, juntagailu, menderagailu,...). Beheko eskeman ematen zaizkizun garapen-motekin lotuko al zenituzke bikoteka?**

- | | | |
|------------------|-------------------|-----------------------|
| 1. honenbestez | 14. gainera | 27. zeren |
| 2. hala | 15. besteak beste | 28. behinik behin |
| 3. era berean | 16. ordea | 29. bestalde |
| 4. ezen | 17. hortaz | 30. halaber |
| 5. antzeko | 18. berriz | 31. hala ... nola |
| 6. bada | 19. alegia | 32. orobat |
| 7. hona hemen | 20. bezala | 33. behintzat |
| 8. izan ere | 21. adina | 34. halatan |
| 9. kasu | 22. hots | 35. ostera |
| 10. dena dela | 23. hala nola | 36. konparazio batera |
| 11. honako hauek | 24. esaterako | 37. alabaina |
| 12. orduan | 25. aitzitik | 38. beraz |
| 13. alabaina | 26. haatik | 39. ere |

IDEIEN GARAPEN-MOTAK	TESTU-ANTOLATZAILEAK
GEHITZEA	
AURKARITZA	
ONDORIOA	
KAUSA	
ADIBIDEA	
ZERRENDAPENA	
KONPARAKETA	

4 PARAGRAFOA IDATZI GARAPEN-MODUA EMANIK

- Hemen dituzu zenbait paragrafo idazteko behar dituzun ideia nagusiak. Idatz ezazu paragrafo bana hauetako bakoitzarekin, baina eskuineko zutabea dituzun garapen-motetako bat aukeratu eta erabiliz.

	IDEIAK GARATZEKO ZENBAIT MODU
1. Gaur egun atzerriko hizkuntzaren bat ezagutzea behar-beharrezkoa da. _____ _____ _____	
2. Gaztaroa omen da gizakiaren sasoirik onena. _____ _____ _____	- Informazioa gehitu - Aurkaritza - Ondorioa
3. Umeei zaplastada ematea beharrezkoa ote da? _____ _____ _____	- Kausa - Adibidea - Zerrendapena
4. Irakurtzea kultur bidea ez ezik, plazerra ere bada. _____ _____ _____	- Konparaketa

5 IKASKIDEAREN IDAZKIA ZUZENDU

- **Bikoteka jarrita, pasa elkarri eginiko idazkiak. Orain ikaskideari zuzenduko diozue, baina batez ere, zeregin hau burutuko duzue:**

1. Zein garapen-modu erabili du?
2. Modu egokian erabili al du?

17 UMEAK

Unitate didaktiko honetan:

- **Testu baten egitura zein den igarriko duzu**
- **Informazioaren garapena nola gertatzen den konturatuko zara**
- **Antzeko garapena duen testua idatziko duzu**

GAIA: MUNDUAREN ARAZOAK

UMEAK

1 ADJEKTIBOEN BILA

- Irakur ezazu arretaz Juan Luis Zabalak *Euskaldunon Egunkarian* 1995eko ekainaren 7an argitara emandako testu labur hau. Irakurritakoan, bikoteka jarrita, zerrenda itzazue egileak munduaren deskribapena egiteko erabiltzen dituen adjektiboak. Bat edo beste ezagutu ezean, bila itzazue hiztegia.

UMEAK

Izutu egiten nau etorkizunean pentsatzeak. Ez dut gauza onik ikusten aurrera begira jartzen naizenean. Noiznahi leher daitekeen mundu hauskor batean bizi garelako irudipena izan dut aspaldidanik, mundua benetan nolakoa den ikasten hasi nintzenetik. Ez da mundua lehertu, eta ez da berehalakoan lehertuko beharbada; ia bertan dugun hirugarren milurtekoan sartu eta zahartzeko aukera eta guzti emango digu akaso, ibili-ibili eginda, gure mundu gizagaixo honek. Baina, lehertu ez arren, mundua gero eta injustu eta ankerragoa izango delakoan nago. Ez zait iruditzen oso mundu eder eta atsegina denik egungo haurrek bizitzeko dutena. Ez nuke nik behintzat egun eta hemen haur izaterik nahi.

Horretaz pentsatzen egoten naiz askotan umeak ikusten ditudanean. Egoera eder eta gozoan etorri dira mundura, ez zaie ezer falta, denetarik dute, zorientsuak dira; baina horixe da beharbada okerrera, mundua benetan nolakoa den jakitean kolpe ikaragarria hartuko baitute, guk geure garaian hartu genuena baino are handiagoa seguru asko, aurkituko duten mundua askoz ere gogor eta itsusiagoa izango denez.


“Ez zagok hain ezkorra izan beharrik”, esango didazue. “Bizitzari aurre egiteko eta etorkizunari esperantzaz begiratzeko adorea izan behar duk”. Beharbada. Adore horren iragarkiak maiz ikusi izan ditut telebistan, baina ez dut inoiz non arraio saltzen duten jakiterik izan.

ADJEKTIBOAK

- Nolakoa da, bada, mundua Zabalaren iritziz? Adjektibo hauetaz baliaturik, egizue artikulu honetan eskainitako munduaren deskribapena lerro parean.

2 NOLA DOA AURRERA INFORMAZIOA?

- Testuen interpretazioa beti zaila eta subjektiboa bada ere, badirudi testu honen informazioa honela doala aurrera:



- Zehaztuko al zenukete aldi edo atal hauetan nolako ideiak ematen dituen egileak? Honetarako beheko taula bete, baina gogora ezazue ariketak ez duela zertan soluzio bakarra izan.

BAIEZTAPENA	
ONDORIOA	
ARRAZOIA	
AMAIERA	

3 IRITZIA EMATEKO BALIABIDEAK

- Zein baliabide linguistiko ezagutzen duzue iritzia emateko? Beheko esaldiak baieztapen-itxura du. Zuen lana beheko esaldia beste hainbat modutan berridaztea izango da, baina beti ere iritzia emateko funtzioa izanik. (Testuko egiturak erabil ditzakezue)

BIHAR EURIA EGINGO DU

1. Ad.: *Nire ustez bihar euria egingo du*
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.

4 ZEIN DIRA MUNDUAREN ARAZO NAGUSIAK?

- Zein dira, gaur egun, munduak dituen arazorik larrienak? Hona hemen zenbait arazo eta kezka biltzen dituen zerrenda. Irakurri eta larrienetatik hain larriak ez direnetera sailkatuko al zenituzke? (Larrienari 1 ipini, garrantzi gutxien duenari, ordea, 10)

SAILKAPENA	MUNDUAREN ARAZOAK
------------	-------------------

- Aberastasuna eta pobrezia
- Ingurugiroaren hondamendia
- Biztanleriaren neurrigabeko hazkuntza Hirugarren Munduan
- Demokraziaren iraupena
- Europako Batasunaren eraikitzea: euroa,...
- Islamdar fundamentalismoa
- 2.000. urtean sartzea
- Arrazakeria / xenofobia
- Neurrigabeko aurrerapen zientifikoa (genetika,...)
- Gerrak

- ADIZU!**
- Ariketa honetan zuzentasunari eman nahi diogu garrantzia, batez ere. Hau dela eta, mintzaldian zehar arreta gramatika-arauen erabilera egokian ipiniko duzu.
 - Bakarka zaudela, geroago esango duzunaren plangintza egingo duzu:
 - 1. Arazoak sailkatzean, saia zaitez geroago zer esango duzun ondo prestatzen.

SAILKAPENA	ARAZOAK GURE ARTEAN
------------	---------------------

- Ustelkeria
- Indarkeria
- Droga
- Delinkuentzia
- Biztanleriaren hazkuntza eskasa
- Emakumearen diskriminazioa
- Langabezia
- Etorkizun ekonomikoa
- Hezkuntza-maila baxua
- Ekologia

- 2. Gutxieneko prestaketa eginda, hitz egin bitartean formari eta zuzentasunari erreparatzeko moduan izango zara.
- Iritzia emateko baliabideak beharko dituzu. Saia zaitez lehenago zerrendatutakoak erabiltzen.

- **Taldeka bildu eta saia zaitezte sailkapen bakarra ateratzen.**

5 EGIN IDAZKETARI

- **Aukera ezazu aurreko gaietako bat eta egizu idazlan laburra. Honetarako, kontuan har ezazu ematen zaizun gida:**

**TESTUINGURU
KOMUNIKATIBOA**

Egunkari edo aldizkariren bateko *Irakurleak mintzo* delako sailera bidaliko duzu eskutitza. Erregistro formala erabili beharko duzu, beraz

IDAZKIAREN ASMOA

Eskutitzaren bidez arazo larriren batez ohartarazi nahi dituzu irakurleak. Halaber, zeure iritzia defendatuko duzu

IDAZKIAREN TONUA

Kritikoa, arazoarekiko kezka azaldu nahian

TESTU-MOTA

Argudioa

TESTU-EGITURA

1. Baieztapena
2. Ondorioa
3. Arrazoa
4. Amaiera: iritzia, komentarioa, ironia...

18 PRINTZESAK ETA MARINELAK

Unitate didaktiko honetan:

- **Testu baten egitura zein den igarriko duzu**
- **Informazioaren garapen kronologikoa nola gertatzen den konturatuko zara**
- **Antzeko garapena duen testua idatziko duzu**

GAIA: JAUNARTZEAK

PRINTZESAK ETA MARINELAK

1 IRAKURKETA

- Irakur ezazu *Euskaldunon Egunkarian* Jone Larrañagak 1995eko maiatzaren 9an argitara emandako testu labur hau. Ikusiko duzunez, oso ordena kronologiko argia duen narrazioa da. Lehenik eta behin, denbora adierazteko baliabideak azpimarratu eta beheko taulara ekarriko dituzu.

PRINTZESAK ETA MARINELAK

Aspaldiko urte hauetan mila bider entzun nuen jaunartzeak ezkontza handienen pareko bihurtzen ari zirela, baina herenegun arte ez nuen halakorik zuzen-zuzenean ikusteko paradarik izan. Goizean goizetik hasi nintzen aluzinatzen. Jeiki eta egunkaria erostera nindoala, ez nuen ba auzoko ilepaindegia zabalik ikusi! Nahastuta nengoela pentsatu nuen hasieran, oraindik larunbata zela, baina kia. Berehala ikusi nuen handik printzesaz jantzitako neska bat irtetzen, eta kabitu ezinean zegoen ama atzetik.

Mezetakoa ere ez zen kapitulu makala izan. Aldarera atera eta zegoen giroa ikusita, apaizak bost minututarako sakristian sartuko zela azaldu zuen haserre, eta tarte hori baino ez ziela emango senitartekoei argazkiak ateratzeko. Hara

non gerturatzen den aldarera sekulako jende oldea, guztiak korrika lehen lerrotik printzesen eta marinelen (koronel baten bat ere bazen artean) irudiak hobeto hartuko zituztelakoan.

Bazkaria gero. Sukalde pareko atean eseritzea egokitu zitzaidan. Handik atera ez zituztenak! Mahairik xumeenera ere eraman zituzten gutxienez zortzi plater. Goxo amorratuak guztiak, garesti amorratuak denak.

Ikuskizuna amaitu zelakoan nengoen, baina oraingoa ere inuzentea ni. Pastelarena etorri zen gero. Eta gizonentzako puroa eta emakumezkoentzat erregali horteroena gero. Noraino iritsiko ote dira hurrena ondokoarena baino handiagoa egiteko!

DENBORA ADIERAZTEKO BALIABIDEAK

2 DENBORA-SEKUENTZIAK

- Testuaren gertaerak zenbait atal edo sekuentziatan garatzen dira. Hona hemen sekuentziak. Hauetako bakoitzean zer gertatzen den zehaztuko al zenuke?

SEKUENTZIA	ZER GERTATZEN DA?
Aspaldiko urte hauetan	
Goizean goizetik	
Meza	
Bazkaria	
Bazkari ostekoa	

3 ESTILOAZ ZERTXOBAIT

- Irakurri duzuen testua narrazioa da. Hala ere, ekintza edo gertaera jakin batzuk kontatzeaz gain, bestelako asmoa sumatzen da testuan. Erantzun galdera hauei:
 1. Zein da egilearen benetako asmo komunikatiboa?
 2. Egilea jaunartze-mota hauen alde ala aurka dago?
 3. Egileak bere iritzia edo jarrera defendatzen duela uste al duzu?
 4. Argudio zuzenik erabiltzen al du?
 5. Testua efektiboa al da iritzia defendatzen?
 6. Tonu ironikoa da ez bairik gabe. Zertan nabaritzen da?
- Nola adierazten du harridura egileak? Nolako esamoldeak azaltzen dira honetarako? Azpimarra itzazu.

4 ORDENA KRONOLOGIKOA

- Nola markatzen du beheko testuaren egileak garapen kronologikoa? Azpimarra itzazu honetarako erabiltzen dituen baliabideak. Azpimarratuta duzu lehen adibidea.

UMEEN AGRESIBITATEA

Umearen agresibitate handiena *bi urteren bueltan* agertzen da, ondoren baretzeko. Lau urte aldera gauzak txikitu eta besteak umiliatzeko saioak gutxitu egiten dira. Bost urtetik aurrera umerik gehienek ez dituzte negatibismoa, errebelioa edota erretxazoko ekintza fisikoak ordura arte bezala erabiltzen.

Sexuaren araberako diferentziak ere onartzen dira: bederatzi urtetik aurrera, mutikoen erdiak-edo haserraldi gogorrek eduki ohi dituzte, nesken artean proportzioa % 30era jaitsiz. Frogatua dago, gainera, mutilek beren agresibitatea fisikoki adierazten duten bitartean, neskek hitzez egiten dutela.

Jabier Agirre
ARGIA, 1997ko apirilak 20

- **Azpimarratutako baliabideak erabiliz, idatz ezazu garapen kronologiko argia izango duen antzeko testu bat. Gaia edozein izan badaiteke ere, hona hemen zenbait adibide:**
 1. Umea jaio eta heldutasunera heldu arteko prozesua: aldiak eta zereginak
 2. Euskalduntze-prozesua: urratsak eta gertaerak
 3. Azken urteotako gertaera historikoren bat
 4. Azken boladan gizaratean izan den arazo korapilatsuren baten historia laburra
 5. Zure herrian luzaroan iraun duen hirigintza-proiekturen baten deskribapen kronologikoa
 6. Gogokoa duzun besteren bat

5 IRITZI-MIRITZI

- **Komenta itzazue honako puntu hauek denon artean:**

1. Jaunartzeak ezkontza txikiak ote dira?
2. Zein da jaunartzearen funtzioa?
3. Ospakizun erlijiosoak ala sozialak ote dira?
4. Merezi ote du hainbesteko dirutza gastatzea honelakoetan?
5. Umeek jaunartzea egiteko edota horrela ospatzeko beharra sentitzen dute ala guk sorrarazten diegu?
6. Epaitegitik ezkonduetako askok seme-alaben jaunartzeak ospatu izan ditu. Zer deritzozu honi?
7. Kontaiezaguzu zeure jaunartzea. Non eta nola ospatu zenuen?

ADIZUE!

- Ariketa honetan jarioa landu nahi dugu. Beraz, saia zaitez ahal denik eta arinen hitz egiten.
- Orain gramatika-erroreek ez dute hainbeste garrantzirik: jarioak izango du lehentasuna.

19 ZERK KEZKATZEN ZAITU?

Unitate didaktiko honetan:

- Azalpenezko testuetako ideien antolaketan trebatuko zara
- Idatzitakoaren berrikusketa egitea zeharo garrantzitsua da!

GAIA: KEZKAK

ZERK KEZKATZEN ZAITU GEHIEN?

1 KEZKAK UGARI

➤ Behean denok kezkatzen gaituzten gaiak aurkituko dituzue.

- | | | |
|---|----------------------------|------------------------------|
| - Adiskidetasuna | - Dirurik eza | - Egunean baino egunean |
| - Nire kultura hobetzea | - Lankideekiko harremanak | - pertsona hobea izatea |
| - Igoera soziala lortzea | - Sufrimenduz hiltzea | - Lanik ez topatzea |
| - Zahartzea | - Nire itxura / edertasuna | - Zoriontasuna |
| - Nire arimaren salbazioa | - Langabezian izatea | - Ideologia |
| - Gaixotasun larriak | - Plazerra, ondo pasatzea | - Langabeziarako aseguruak |
| - Sukaldaritza ona | - Erljioa | - bermatzea |
| - Trafiko-istripuak | - Arrakasta sexuala | - Etxean hobekuntzak egitea |
| - Arrakasta lanean | - Sasoian egotea | - Arazorik gabeko jubilazioa |
| - Bakartasuna | - Nire zaletasunak | - Ezkontzea |
| - Askok lan egin eta bizimodu eskasa izatea | - Familia | - Zergak |
| | - Etxebizitza lortzea | - Hondamendi naturalak |

2 ZERK KEZKATZEN ZAITU?

➤ Zu kezkatzen zaituenik topatu al duzu? Bakarka, sailka itzazu gai hauetako batzuk, zuretzat duten garrantziaren arabera. Gerora, komenta itzazue denon artean.

GEHIEN KEZKATZEN NAUTEN ARAZOAK

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____
7. _____
8. _____
9. _____

ADIZU!

- Oso errore tipikoak dira honako hauek. Kontuz ibil zaitez!
1. * *Niri langabezia kezkatzen zait*
 2. * *Ez dit arduratzen*
 3. * *Zuri hori komenitzen zaizu*
- Bestalde, erratzen bazara, saia zaitez auto-zuzenketa egiten:
1. Esan eta segituan errepika dezakezu esaldia, baina zuzenketa eginda.
 2. Ideia errepikatu, baina beste formulazio batez. Bigarren formulazio honek zuzena izan beharko du.

GUTXIEN KEZKATZEN NAUTEN ARAZOAK

3 IDEIEN ANTOLAKETA

- Azalpenezko testuetan ideien antolamendurako prozedura bat baino gehiago daukagu. Orain, hauetako batzuk baino ez ditugu aztertuko. Irakur ezazue arretaz nola gara genezakeen *jubilazioa* gaia zenbait modutan. Hauetako bat aukeratu eta idatz ezazue testu laburra taldeka.

GAIA: JUBILAZIOA

GARAPENA	INFORMAZIOAREN GARAPENA	ZEUEK IDATZI
1. Kausa / ondorio antolaketa	<input type="checkbox"/> Jaiotze-tasa ikaragarri jaitsi da <input type="checkbox"/> Populazioaren piramidea behealdean estutu eta goialdean zabaldu egin da <input type="checkbox"/> Etorkizunean langile gutxi baina pentsionista asko izango da <input type="checkbox"/> Gaur egungo langileen etorkizuneko pentsioak arriskuan daude	
2. Arazoa / konponbide antolaketa	<input type="checkbox"/> Etorkizunean pentsioak ordaintzeko arazoak izango dira: jaiotze-tasa baxua, populazio zahartua, langile gutxiegi jubilatuen pentsioak ordaintzeko... <input type="checkbox"/> Nork bere pentsio-plana eratu beharra <input type="checkbox"/> Gobernuak hartu beharreko neurriak: <ul style="list-style-type: none"> ◆ Segurantza sozialari aportazio handiagoak egin beharra ◆ Segurantza sozialaren aurrekontuetan galerak ezabatu ◆ Gastuak murriztu 	
3. Konparazio- antolaketa	<input type="checkbox"/> Gaur egun <ul style="list-style-type: none"> ◆ Populazio-piramide orekatua: oinarri zabala eta goialde estua ◆ Lanean gaudenon aportazioekin pentsioak ordaintzen zaizkie jubilatuei <input type="checkbox"/> Gure zahartzaroan <ul style="list-style-type: none"> ◆ Populazio-piramide desorekatua: gizarte zaharkitua ◆ Lanean egongo direnen aportazioekin ez da nahikoa izango gure pentsioak ordaintzeko 	

- **Taldeen artean garapenak trukatu eta idazkiak zuzendu elkarri. Zuzenketarako irizpideak honako hauek izango dira:**

1. Informazioaren garapena errespetatu al du?
2. Ideiek elkarren loturarik ba al dute (kohesioa)?

4 EKIN IDAZKETARI

- **Unitate didaktikoaren hasieran zeuen kezka komentatzen aritu zarete. Har ezazue hauetako bana eta gara ezazu idatziz aurreko puntuan landu dugun prozeduretako baten bitartez. Lehen ez bezala, orain nork bere idazkia burutuko du.**

ZEIN DA ZURE...?

GAIA	_____
ASMO KOMUNIKATIBOA	_____
HARTZAILEA	_____
TONUA	_____
TESTU-MOTA	<u>Azalpena</u> _____
GARAPEN-MOTA	_____
INFORMAZIOAREN GARAPENA	_____

5 GURE IDAZLANARI TXEKEOA EGITEN

- **Idazlanetan gertatutako erroreen zuzenketan jarrera aktiboa hartu behar duzu derrigor. Zuzenketa aktibo hau aurrera egiteko modu bat eskaini nahi dizugu fitxa honen bidez. Idazlana amaitu duzula eta irakasleari eman baino lehen, egiozu txekeoa, bada!**
- Nabarmen itzazu idazlaneko aditz guztiak biribil batez. Aditz hauek nolako konkordantzia eskatzen dute subjektua eta objektuaren artean? Egiazta ezazu ondo egin duzula. Dakizunez, hiru konkordantzia-mota dira:
 - *NOR: joan, etorri, egon...*
 - *NORK: eduki, ekarri, eraman, hartu, eskatu...*
 - *NORI: gustatu, ekarri, eskatu, ekin...*
 - Singular / plural konkordantzia ondo egin al duzu? Akatsa izango lukete, adibidez, hau bezalako esaldiek: *gauza batzuk esan dut*
 - Mugagabea ondo erabili al duzu? Bila itzazu mugagabea eskatzen duten hitz hauek: zein, zenbait, asko, edozein, zenbakiak...
 - Elkar* eta *X-ren burua* egiturak ondo erabili al dituzu? Esaldi hauek TXARTO egongo lirarteke:
 - *Atzo elkar jan genuen jatetxe batean.*
 - *Mikel errekarra bota zen.*
 - *Zu ez zara ondo ezagutzen.*
 - Ematen duzun informazio berria, aditzaren aurrean ipini al duzu? Berrikus itzazu mintzagaia, galdegaia eta hitz-ordena. Honako hauek txarto daude:
 - *Da gauza bat oso polita.*
 - *Nik Mikel etorriko dela lagunarekin uste dut.*
 - Konpletiboa eta zehar-galdera zuzen erabili al dituzu? Begira zein aditzek zer eskatzen duen:
 - *-(e)LA: esan, uste, pentsatu, badirudi, aipatu, jakin...*
 - *-(e)NIK: esan, pentsatu, uste,... baina EZEZKOAN*
 - *-(e)N: galdetu, jakin,...*
 - Erlatiboa, zer? Ekidin itzazu era honetako esapideak:
 - *Mutil bat ezagutzen dut Mikel deitzen dela.*
 - *Ekarri dudak liburuak oso interesgarriak dira.*
 - Aditz-aspektua ondo erabili al duzu? Esaldi hauek TXARTO leudeke.
 - *Bihar Mikel zer ordutan etortzen da?*
 - *Lanera joan nintzen baina greba zegoela ezin nuen lan egin.*
 - Erabili duzun lexikoan ba al da erdarazko hitzik? Hauek onar badaitezke ere, hiztegiaren bidez egiazta ezazu ia euskarazko ordainik duten. Bestaldetik, ez erabili "*manifestazioa*", "*rekomendazioa*"... baizik eta "**manifestazioa**", "**gomendioa**"...

20 OZONO-GERUZA, BABESEAN ERE ZULOA

Unitate didaktiko honetan:

- Testuinguru komunikatiboaren osagaiei buruz egingo duzu hausnarketa
- Testu baten hartzailea, erregistroa eta gaiaren nolakotasuna zein diren igarriko duzu
- Gaiari eutsita, testua berridatziko duzu, hartzailea eta jarrera aldatuz

▼

HONDAMENA

OZONO-GERUZA, BABESEAN ERE ZULOA

1 AURRE-EZAGUTZAK

- **Taldeka zaudetela, ipin ezazue amankomunean beheko puntuei buruz dakizuena. Hau egindakoa, komenta itzazue erantzunak denon artean.**

1. Zer eta zertarako da ozono-geruza?
2. Zergatik sortzen ari da zuloa ozono-geruzan?
3. Zein neurri hartu behar lirateke ozono-geruzan zulorik izan ez dadin?

- **Errepara iezaiezu hitz hauen definizioei (Elhuyarren *Hiztegi Entziklopedikoa* delakotik atereak), irakurriko duzuen testuan behin baino gehiagotan azalduko baitira.**

klorofluorohidrokarburo. iz. KIM. Hidrokarburo halogenatu, kloro eta fluorodunen izen generikoa. Garrantzi industrial handia dute, batez ere hozkailuen hozte-sisteman eta aerosolen propulsaizaile moduan erabiltzen direlako. Uste denez, atmosferako ozono-geruzaren hondatzearen errudun nagusiak dira.

halogeno. iz. eta izenond. KIM. Taula periodikoko VIIb zutabeko elementuetako bakoitza: fluoro, kloro, bromo, iodo eta astatoa.

2 NOR DA TESTU HONEN HARTZAILEA?

- **Jakin aldizkariko 81. zenbakian agerturiko Iñaki Irazabalbeitiaren artikulu bat duzu behean. Irakur ezazu arin-arin eta saia zaitetz honako galdera hauei erantzuten:**

1. **Zein irakurle-motari zuzenduta dago testua?**

- a) Gai honetan aditua den bati
- b) Gai honetaz zerbait dakien bati
- c) Gai honetaz ezer ez dakien bati

2. **Nolako gaia da?**

- a) Orokorra, arrunta
- b) Espezifikoa, baina dibulgazio mailakoa
- c) Oso teknikoa, zientifikoa

3. **Hizkuntza dela eta...**

- a) Bizkaiera darabil
- b) Erregistro formala
- c) Erregistro informala, lagunartekoa

4. **Nolako jarrera du egileak testuan zehar?**

- a) Objektiboa
- b) Ironikoa
- c) Kritikoa

OZONO-GERUZA, BABESEAN ERE ZULOA

Montrealgo Protokoloa ozono-geruza babesteko nazioarteko hitzarmena izan zen, antza. Horrela saldu ziguten, behintzat. Alabaina, hitzarmena egiatan merkataritza arautzeko baino ez da.

Hitzarmena egin zenean, industria kimikoak ozono-geruza hondatzeari uztea oso gogoko zuela esan zuen, baina zera azpimarratu zuen, inongo industriak ez zuela abantailarik hartu behar eta produktu kimiko zaharrak debekatzeko legeak toki guztietan aldi berean jarri behar zirela indarrean. Beraz, hitzarmena industria kimikoari planetaren oinarrizko baliabide bat ez hondatzea errentagarria gerta zekion joko arauak ezartzeko egin zen.

Zinismo hutsa da, ezta? Hala ere, merkatu librearen garai honetan beste aukerarik ez zegoen. Ozono-geruza hondatzen duten produktu kimikoak baztertzeko datak ez ziren jarri ozono-geruzarentzat onena zein zen kontuan harturik, baizik eta industriak aldaketa kalte ekonomikorik jasan gabe egin zezan ziurtatuz.

Azken-data oso gertu dago eta horrekin batera maula egiteko tentazioa ere agertu da. Industriari batzuek klorofluorohidrokarburoen (CFC) merkatu beltza oso begi onez ikusten dute, beren teknologia egokitu ezin izan duten horiek hain zuzen ere. Ikus ditzagun bi adibide.

Europako Elkartean su-itzalgailuetan erabiltzen diren haloiak 1995eko urtarriletik aurrera ezingo dira baliatu eta CFCen kontsumoak 1986koaren %15 izan beharko du. Baina, joan den otsailean Europako Elkarteak 1995ean 2.000 tona halo eta 26.000 tona CFC inportatzen utziko duela iragarri du. Produktu horiek birziklatzeko eta lehengai moduan usatzeko inportatuko omen dira. Horrek 1995eko CFC-kantitatea 1986koaren %24 izatea ahalbideratuko du.

Elkarteak Montrealgo Protokoloak ekoizpena ez, baizik eta erabilpena mugatzen duela dio. CFC eta haloien ordezkioak sortzen inbertsio handiak egin dituzten konpainiak kexu dira, inportatuko diren produktuak benetan zertarako erabiliko diren kontrolatzerik ez dagoelako beren ustez eta CFC eta haloien merkatu beltzak beraien interes ekonomikoak kalte ditzakeelako. Esaten denez, hozkailu-fabrikatzaile asko ez omen dira CFCren ordezkioak oraindik erabiltzen hasi eta merkatu beltzaren tentaldian egon litezke.

Japoniak bestetik, Montrealgo Protokoloko zenbait punturen aplikazioa atzeratzea eskatu du, bere industria pobregia "omen" delako ozonoa babesten duten produktuak erabiltzen hasteko. Gainera osasun-aplikazioak eta ikerketa ere aipatzen dituzte aitzakitzat.

Azken finean, hainbat sektoreren epe motzeko interes ekonomikoitsuak baino ez dira zaindu gura.

3 HIZTEGIA

- Ekar itzazu hona erregistro formalekotzat jo daitezkeen hitzak. Saia zaitetz antzeko esanahia duten beste hitz batzuk asmatzen.

ERREGISTRO FORMALEKO HITZAK	ANTZEKO ESANAHIA DUTEN HITZAK

4 ALDA DEZAGUN HARTZAILEA!

- Irakurri berri duzun testuari hainbat aldaketa egiteko proposatu nahi dizugu. Gai berari eutsita, hartzailea eta tratamendua aldatuko dituzu. Beraz, berridatz ezazu testua testuinguru berriari egokituz.

TESTUINGURU BERRIA

GAIA Ozono-geruza babesteko arazoak zertan diren azalduko duzu, baina zehaztasun larregitan sartu gabe.

GAIAREKIKO JARRERA Neutroa eta objektiboa. Ez agertu zeure iritzia.

HARTZAILE BERRIA Gai honetaz ezer gutxi dakien pertsona. Beraz, ez erabili hitz teknikorik, edota erabiliz gero, kontzeptua ondo azaldu

5 BERRIKUS EZAZU ZEURE IDAZKIA!

- Behin idazketa amaituta, egizu berrikusketa. Berriro irakurri testua eta har itzazu kontuan beheko irizpideak:

EDUKIA

- Zuk diozuna interesgarria al da irakurle helduarentzat?
- Gaia ondo mugatu al duzu?
- Argi eta garbi azaldu al duzu zeure xedea?
- Gaiarekin lotuta al daude idazlaneko ideia guztiak?

EGITURA

- Paragrafoak era logikoan antolatu al dituzu, ideia nagusiei jarraiki – sarrera, garapena, ondorioak – ?
- Logikaz lotu al dituzu esaldiak? Esaldi orok argitzen al du paragrafoaren esanahia?
- Esaldien, paragrafoen trantsizioak zuzen egin al dituzu?

21 AZTERKETAK

Unitate didaktiko honetan:

- **Idatzi aurretiko planifikazioaren beharraz jabetuko zara**
- **Planifikazioaren osagaiak eta prozesua zertan diren ikusiko duzu**

GAIA: AZTERKETAK

AZTERKETAK

1 INFORMAZIOA JASOTZEN

- Demagun azterketei buruz artikulua bat idazteko eskatu dizuetela herriko aldiakari batean argitaratzeko. Hau dela-eta, informazioa biltzeari ekin diozue. Hemen duzue Peru C. Sabanek *Euskaldunon Egunkarian* 1996ko maiatzaren 29an argitara emandako artikulua bat. Bertan azterketak direla-eta, Xabier Aierdi soziologoaren iritziak azaltzen dira. Saia zaitez Aierdiren bost baieztapen garrantzitsuenak ateratzen. Ez kopiatu, ordea, hitzez hitz: ahal dela, formula itzazu beste modu batez baieztapen horiek.

XABIER AIERDIren USTEAK	
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	

AZTERKETAK

Heldu da ikasleen artean azterketak madarikatzeke ordua. Urduritasuna han eta hemen sumatzen da. Fotokopia dendako ilaran, liburutegiko gela beteetan... unibertsitarioen egonezina *in crescendo* doa ekaineko hilabete erabakigarriari aurre egin behar diotelarik. Inor gutxik maite du, ikasle zein irakasle izan, azterketak egin beharra. Haatik ba al dago bestelako aukerarik? Minbizia bera ala botika dira azterketak? Xabier Aierdi soziologo eta EHuko irakaslearekin mintzatu gara horretaz guztiaz.

Azterketak beti azterketa, ikasturte osoaren muin bilakatzen direnean sortzen dute enbarazua. Xabier Aierdiren ustez «azterketen atzean askotan dilema faltsu bat ezkututzen da: azterketak ala lanak, azterketak edo beste dinamika partizipatiboago bat». Bere ustez horien artean ez dago kontraesanik, «bai ordea orokorrean dagoen antolamendu eran. Gakoa ez da azterketak bai / azterketak ez, baizik eta zein irakaskuntza mota nahi dugun. Kurtso osoa azterketetan zentratzeak hutsune bat egiten du irakaskuntzari buruzko debatean».

Irakaskuntza eredu bat proposatzerakoan argi du Aierdik non den gakoa: «Klase partehartzaileek lan handiagoa eskatzen

dute ikasle zein irakasleen aldetik. Askoz errazagoa da klase magistralen eredu; alde batetik zein bestetik ahalegin eta esfortzu ekonomiarekin funtzionatzen da: ahal duen neurrian inork ez du eskatzen den gutxienekoa gainditzeko baino ahalegin handiagorik egiten; etekinik handiena ahalegin minimoarekin, alegia». Eta gaur egun hori gertatzea logikotzat dauka irakaskuntza dagoen bezala muntatua egonik, baina gero ikasle horretxek ezin dio inolako kritikarik egin daukagun hezkuntza sistemari, berak ere parte hartzen baitu sistemak bere horretan jarrai dezan. Norberak ezin dizkio norberaren erantzunkizunak beste bati leporatu. Gurrpil zoro batean sartzen gara ikasle eta

irakasleek elkarri botatzen badiogu besteen pasibitatearen errua. Amaitzen ez den soka hori norbaitek apurtu behar du, eta hori norberak egin behar luke, ikasle zein irakasle».

Ardura norberari dagokiona argi du soziologia irakasle honek: «Masifikazioa klase partehartzaileak egiteko eragozpen tekniko bat da, bai, baina aitzakia bat ere izan daiteke lan hori sekula ez egiteko. Norberaren borondateaz gaindi daitekeen eragozpena baita klase partehartzaileena, erantzukizuna bereganatu eta ikasleek irakasleak horretara behartuz, edo alderantziz».

IKASTEAN LANA DELA

Horixe argitu nahi luke, ordea: «Zabaldia dago ikasteak dibertimendu izan behar duela, eta izan daiteke, baina gehienetan ahalegin bat da». Jakina, gustura egiten diren ahaleginetan ez da nabaritzen lan bat ere egiten ari zarena. «Sukaldari bat oso gustura egon daiteke plater berriak asmatu eta jendeari jaten ondo emanda, baina azken finean agian hamabi lan ordu egin ditu. Gauza bera gertatzen da unibertsitatean geure gustuko gaiekin, baina lan bat ere bada eta sofrimendu neurri bat dauka, ordu batzuk sartu beharra».

«Azterketei buruzko auzia benetan gailendu nahi bada onartu egin behar da lan gehiago egin beharra». Kontua argi ikusten du Aierdik: «Klase partehartzaileak egiteak alde aurreko lan handia eskatzen die irakasle zein ikasleei, zentzu batekin egindako lana izan behar baitu. Azterketa, ebaluatzeko beste modu bat gehiago izango da orduan, eta azterketek neurtu egiten dute ikasleak dakiena. Hala, gainera, ikaslea behartu egiten da ahalegin intentsibo bat egitera. Azterketarik nahi ez duen ikasle askok ahalegin hori saihestu gura du funtsean».

AZTERKETEK BALIO AL DUTE NEURTZEKO?

Azterketen arbitrarietateaz ere hitz egiten da maiz, baina arazo mugatua dela deritzo honi Aierdik: «Azterketek ondo neurtzen dute kasu gehienetan ikasleak dakiena. Badaude muturreko kasuak: izaera berezia daukaten irakasleak, ikasleen gainetik geratu nahi dutenak, gogorraren ospea izan nahi dutenak... edota, aldiz, ikasleekin harreman ona izatearren edo bistatik kentzearren oso gutxi eskatzen dutenak azterketan». Kasu marginalak dira horiek, ordea, irakasle honen aburuz.

Bestalde, memoristikaren aldekoa da Aierdi. Irakaskuntzan egon den modu tradizional honek oso ondo balio du bere ustez zenbait eduki oso ondo gorde eta sekula ez ahazteko: «Inteligentziarentzako onuragarria da gimnasia bat den heinean. Ez dut esan nahi dena buruz ikasi behar denik, baina maila kolektiboan esan ohi da memoriarik gabeko pertsona historiari gabeko pertsona dela, eta hori oso ederki aplikatu daiteke irakaskuntzara. Izpiritu kritikoa berdin-berdin landu daiteke asko ikasiz, gutxi ikasiz, nota onak zein txarrak atereaz. Ez dut uste ikastetik sortzen denik, beharbada eztabaidatik bai, baina ezta halabeharrez ere».

Izpiritu kritikoa beharrezko hori bestela eraikitzen da. Zera dio Aierdik: «Ikasleak sumatzen badu gairik latzena ere irakasleak oso gustura irakasten duela, gai horrek interesa baduela jasoko du; eta, alderantziz, gairik atseginena gusturik gabe azalduta gaiaren hilketa izan daiteke». Bere ustez «ez da gehiegi eskatu behar, baizik eta irakasteak berak uste duen ezagutza nahikoa eskatu, eta horretan sujeritu eta horretara gonbidatu ikasleak. Jendea jarretan sozializatzea garrantzitsuagoa da nire ustez edukietan zentratzea baino».

2 ADOSTASUNAREN BILA

- Ados al zaude Aierdik aipaturiko puntuekin? Taldeka zaudetela, eztabaida itzazue. Gero bozeramale bat izendatu eta beste ikaskideei eztabaidatutakoaren berri eman.

3 ZERTAN GAUDE ADOS?

- Denon artean eztabaidatu, eta aukera itzazue gutxieneko adostasuna lortu duten zenbait baieztapen.

1. _____
2. _____
3. _____
4. _____
5. _____
6. _____
7. _____
8. _____

4 IDAZLANERAKO PLANIFIKAZIOA

- Berriro ere taldeka jarririk, egizue idazlanerako planifikazioa. Zenbait erabaki hartu beharko duzue:

TESTUINGURUA	- Herriko aldizkarian argitaratzeko artikulua da
GAIA	- Azterketak
ASMO KOMUNIKATIBOA	- Gai honi buruz zeure iritzia adierazi nahi duzu - Gai honi buruz azalpen neutroa egin nahi duzu - Gertaturiko zenbait pasadizo kronologikoki kontatuko dituzu - Azterketen sistemak nola funtzionatzen duen azaldu nahi duzu - Irakurlea zerbaiten alde konbentzitu nahi duzu - Gai honekiko desadostasuna adierazi nahi duzu - Ontzat edo onartutzat jo ohi den gai baten beste ikuspegia eman nahi duzu - Irakurlea informatu nahi duzu, falta izan ditzakeen datuak emanez - Ideia edo tesi baten alde jokatu nahi duzu, argudioak erabiliz - Beste bat. Zein?
TESTU-MOTA	- Azalpena (gai honi buruzko datuak eta informazioa ematen)

saiatuko zara)

- Argudioa (gai honi buruz zeure iritzia defendatzeko idatziko duzu)
- Narrazioa (gertaerak edo pasadizoak kontatuko dituzu)
- Instrukzioa (tresna edo prozesuren baten funtzionamendua deskribatzekoa)
- Eskutitza (helburu jakin batekin – konbentzitu, zerbait kontatu, azaldu... – norbaiti bidaliko diozun testua)
- Deskribapena (leku, egoera edo pertsonaren baten nolakotasuna ematekoa)
- Testu-sekuentzia bat baino gehiago batera erabiliko ditut. Zeintzuk?

TESTUAREN TONUA

- | | | |
|---------------|---------------|------------------|
| - Serioa | - Kritikoa | - Dramatikoa |
| - Barregarria | - Objektiboa | - Tonu bat baino |
| - Neutroa | - Subjektiboa | gehiago batera |
| - Ironikoa | - Exageratua | erabiliko ditut. |
| | | Zeintzuk? |

INFORMAZIOA

- Erabil itzazu aurreko atalean adostutako ideiak.
- Nolako ordenatan agertuko dituzu aurreko ideiak idazlanean zehar? Egin ezazu eskema laburra.
- Saia zaitetz informazio ezaguna eta berria ondo uztartzen.
- Errespetatu ezazu paragrafoaren unitatea

HIZKUNTZA

- Zein hitz edo esamolde beharko duzu garatuko duzun gairako? Agian lehenago irakurri duzun testuan aurkituko dituzu. Har itzazu handik!
- Erabil itzazu informazioa lotzeko beharrezko lokailu eta testu-antolatzaileak.

5 EGIN IDAZKETARI!

- **Har itzazu kontuan planifikazio-aldian erabakitako puntuak eta ekin iezaiozu idazketari. Dena dela, gogora ezazu idaztean beharrezko izango zaizula erabakiren bat edo beste martxan aldatzea, planifikazio-helburuek ere malguak izan behar dute-eta!**

22 TABAKOA

Unitate didaktiko honetan:

- Idazkien planifikazioa egiten jardungo duzu
- Helburu jakin bat edukita, informazioa aukeratu beharko duzu
- Idatzitakoaren berrikusketa egingo duzu

GAIA: TABAKOA

TABAKOA

1 ZERTARAKO IDATZIKO DUZU?

- Demagun erretzeari buruz idazlana egin behar duzula. Lehenik eta behin, erabaki ezazu testuaren asmoa zein izango den:
 - └ Azalpenezko testua idatziko dut, gai honi buruz dauden iritzi eta jarrera ezberdinak komentatuz.
 - └ Argudiozko testua idatziko dut, eta gainera, tabakoaren aurkako jarrera hartuz.
 - └ Argudiozko testua idatziko dut, baina tabakoaren alde eginez.

2 TESTUAREN EGITURA

- Aukera ezazu testu-egitura hauetako bat zeure idazlanean erabiltzeko.

AZALPENEZKO TESTUAK		
1. Sarrera 2. Garapena 2.1. Alde onak 2.2. Alde txarrak 3. Ondorioa	1. Sarrera 2. Arrazoiak 3. Ondorioak 4. Konponbideak 5. Ondorio nagusia	
ARGUDIOZKO TESTUAK		
1. Sarrera: gaia azkar azaldu 2. Tesia agertu 3. Tesiaren aldeko argudioak 4. Ondorioa	1. Sarrera: gaia azkar azaldu 2. Tesiaren aldeko argudioak 3. Tesia agertu 4. Ondorioa	1. Sarrera: gaia azkar azaldu 2. Tesia agertu 3. Aurkako tesia aipatu 4. Kontrako ideiei buelta eman 5. Ondorioa

3 NOLAKO INFORMAZIOA ERABILIKO DUZU?

- **Hona hemen gai honi buruzko ideia-zerrenda bat. Zeure lana komeni zaizun informazioa aukeratzea izango da. Beraz, gogora ezazu informazio-aukeraketa bi irizpideren arabera egin behar duzula:**

1. Batetik, zure asmo komunikatiboaren arabera egin behar duzu, hau da, zertarako idatziko duzun (azaltzeko edo argudiatzeko) kontuan hartuta.
2. Bestetik, lehenago aukeratu duzun testu-egiturarekin koherentea izan behar du informazio horrek.

IDEIA POSIBLEAK

1. Azken sei urteotan 200.000 lagunek utzi diote erretzeari Euskal Autonomia Erkidegoan.
2. Hainbestek erre gabe pozik bizitzerik ez dagoela uste du.
3. Nahiz eta erretzeari uzteko ahalegina inoiz egin, asko dira uztea lortzen ez dutenak.
4. Tabakoa erretzea gaixotasuntzat jotzen da: tabakismoa edo tabakozaletasuna, alegia.
5. Nork bere bizimodua aukeratzeko libre izan behar du.
6. Leku publiko guztietan erretzea debekatuta egon behar litzateke, hala nola, tabernetan, supermerkatuetan, autobus zein trenetan, eta abarretan.
7. Dirudiezez, minutuko sei pertsona hiltzen dira tabakoa dela kausa, hau da, hamar segundoko pertsona bat.
8. Ez erretzea arestian modan jarritako ohitura baino ez da.
9. Hainbeste gaixotasunen sorrera tabakoagatik gertatzen da.
10. Tabakoari uzteko, borondatea baino ez da behar.
11. Ez-erretzaileen eskubideak errespetatu behar dira leku eta egoera guztietan.
12. Gaur egun tabakoaren aurka egiten ari den borroka inozoak ez ditu erretzaileen eskubideak errespetatzen.
13. Erretzaileek ez dute inolako errespeturik ingurukoekiko.
14. Tabakoa iragartzeko publizitatea, debekatu behar litzateke, alkoholarena bezala.
15. Zigarro bat patxadaz erretzea ekintza lasai eta atsegina izan ohi da.
16. Osasun-zerbitzu publikoan erretzaileei ez zaie zenbait ebakuntza egin behar, azken batean sendatzea zaila eta garestia izango baita.
17. Askotan erre eta erre egiten da, baina inolako plazerrik izan gabe.
18. Tabakoa droga legala da.
19. (...)

4 IDEIAK EGITURAN TXERTATU

- **Gogora ezazu aukeratu dituzun ideiek bat etorri behar dutela ariketa honen hasieran zehaztutako asmoarekin (tabakoaren alde / aurka egin...). Hauek honela, ekar itzazu ideia horiek beheko eskemetako batera.**

AZALPENA	IDEIAK
1. Sarrera	
2. Garapena	
2.1. Alde onak	
2.2. Alde txarrak	
3. Ondorioa	

1. Sarrera	
2. Arrazoiak	
3. Ondorioak	
4. Konponbideak	
5. Ondorio nagusia	

ARGUDIOA	IDEIAK
1. Sarrera: gaia azkar azaldu	
2. Tesia agertu	
3. Tesiaren aldeko argudioak	
4. Ondorioa	

1. Sarrera: gaia azkar azaldu	
2. Tesiaren aldeko argudioak	
3. Tesia agertu	
4. Ondorioa	

1. Sarrera: gaia azkar azaldu	
2. Tesia agertu	
3. Aurkako tesia aipatu	
4. Kontrako ideiei buelta eman	
5. Ondorioa	

5 IDAZKETA

- **Planifikazio-aldia egina duzula, ekin iezaiozu idazketari. Gogora ezazu askotan idazketa-prozesuan zehar lehenago jarritako helburuak ezin direla beti bete (idazteak berak gaia beste moduren batean ikusarazten dizulako-edo). Hau dela-eta, malgua izan zaitez planifikazio-aldian zehaztutakoarekin.**

6 BERRIKUSKETA

- **Idazketa amaituta, idazkia berrikusteko teknika bati segitzeko proposatu nahi dizugu orain.**
 1. Idazlana behin baino gehiagotan irakurrita ere, sarritan ez dugu errorerik aurkitzen. Honek, jakina, ez du beti esan nahi errorerik ez denik, geuk ikusten ez dugula baizik.
 2. Honetarako, oso gomendagarria izaten da besteri ozenki irakurtzea, idatzitakoa gurea ez balitz bezala hartzea dakarrelako. Honela, isilean irakurrita baino errore edo hutsegite gehiago aurkitzeko moduan izan gaitezke.
 3. Taldeka jarrita, irakur iezaiozue elkarri idazlana, baina gogora ezazue honen helburua izan litezkeen erroreak atzematea dela.
 - Egitura- eta garapen-erroreak
 - Gramatika-erroreak

23 FUTBOLA ETA DOPING-A

Unitate didaktiko honetan:

- Testu batek zer-nolako argudiaketa darabilen igarriko duzu
- Nola arbuiatu besteren tesia?

GAIA: KIROLEAN DOPATZEA

FUTBOLA ETA DOPING-A

1 ETA ZUK ZER USTE DUZU?

➤ **Komenta itzazue honako puntu hauek talde txikietan bilduta:**

1. Bada doping-a kirolarien artean oso zabalduta dagoela dioenik. Ados?
2. Zein dira kirolari batek dopatzeko izan ditzakeen arrazoiak?
3. Arrakastak dena zuritzen duela uste al duzu?
4. Taldekako kirolean dopatzeak, zure ustez, ba al du zentzurik?

2 ZEIN DA DEFENDATUTAKO TESIA?

➤ **Segidan Florentino Alargunsorok *Elhuyar* aldizkarian argitara emandako argudiozko testua gain-gainetik irakurriko duzu, artikuluan zehar defendatzen duen tesi edo iritzi nagusia identifikatze aldera.**

ARTIKULUAREN TESIA

FUTBOLA ETA DOPING-A

Futbolarietara, entrenatzaileei, kirol-medikuei eta klubetako arduradunei futboleko dopingaz galdetzen bazaie, erantzuna berdintsua izan ohi da: inoiz ez dute horrelakorik ikusi, inoiz ez dute horrelakorik entzun, futbolean ez dago dopingik eta inoiz ere ez da egon.

Gainera lehiaketetako kontrolak beti negatiboak dira, drogek kirol kolektiboetan ez dute laguntzen, eta kirol-kazetariak zain-zain egoten dira nor harrapatuko.

Urtero izaten dira futbolean hildakoak. Izan ere, anfetaminak, kokaina, efedrina, analgesikoak, narkotikoak, anabolizatzaileak eta abar erruz baitabilta estadioetan.

Substantzia horiek farmazietan gaitzak sendatzeko agertu bezain laster hasi ziren beste arlo batzuetan ere erabiltzen. 1960. urteaz geroztik, anfetaminak eta androgeno anabolizatzaileak erabiltzen dira dopatzeko. 1992. urtean globulu gorriak hazteko eritropoietina izeneko giltzurrun-hormona

merkatuatu zen, eta mediku italiar batzuek aitortu dutenez, urte hartantxe egin zituzten saiakuntzak kirolari profesionalekin.

Futbolarien artean jende famatuak eman du positibo dopingaren kontrako azterketetan. Hona hemen izen batzuk: Pascal Olmeta (SC Toulon), Franz Beckenbauer (Municheko Bayern), Hans Josef Kapellmann (Kolonian eta Bayern), Willie Johnston (West Bromwich Albion), Pierre Littbarski (Matra Racing)...

François Ruff fisiologoak dioenez, dopingak ez du kirol bat bera ere alde batera uzten. Trebetasuneko izan ala ez, iraupen handikoa ala txikikoa izan, ez dio axola. Izan ere, dopatzeko erak aukeratu egin daitezke, lortu nahi diren efektuen arabera dosiak behin eta berriz hartuz edo produktu desberdinak nahastuz.

Futbolean ez dopatzeko dagoen arrazoi bat, nahi diren emaitzak lortzeko kaltegarria dela dioena da. Batzuek, analisisietan ez dutela ezer

harrapatzen argudiatzen dute, baina, aurrez, dopatzeko substantziatzat zein har daitezkeen definitu beharra dago. Anfetaminak, esteroide anabolizatzaileak eta kafeina, adibidez, dopingeko substantziatzat hartzen dira, baina dopatzeko beste sistema batzuk ere badaude: odol-autotransfusioa, oxigenoa hartzea edo presio baxuko geletan egonaldiak egitea. Nazioarteko Batzorde Olinpikoak beste substantzia asko ere baditu zerrendan sartuak, baina argitu egin behar da zerrenda sarritan aldatzen dutela, produktu berriak (giza hazkunderako hormona, eritropoietina, gonadotropina korionikoak, etab.) noiznahi agertzen direlako.

Dopatzeta debekatzen denean, kirolariak isilpean eta tranpatan ibiltzen dira. 1986an Austriako altuera-jauziko marka zuen Markus Einbergerrek onartu egin zuen entrenamenduetan dopatu egin zela. Honela zioen: Dopinga enpresa barruko sekretua bezalakoa da. Barnean denek dakite zer gertatzen den, baina kanpoko inork ez du ezer jakin behar. Eta futboleko ere, gauza bera da. Harald Schumacher: «futbolak ez du dopingaren atzaparretatik ihes egin. Diferentzia puntu batean dago: ez dela ezertarako aipatzen; estatu-sekretua da, tabua».

Batzuek diotenez, futbolerako buruko argitasuna eta bizkortasuna behar dira, eta hori dopatzearekin ez dator bat. Dena den, drogak alde batera utzita, buruko argitasuna jaitzarazten duten faktoreak asko dira: estresa, antsietatea, motibaziorik eza, etsaiarenganako gorrotoa edo mina, adibidez. Baina droga desberdinek (lasaigarriek, psikoestimulagarriek, antaldikoez, estupefazianteek) elementu negatibo horiek moteldu edo desagerrarazi egiten dituzte.

Dena den, futboleko ongi jokatzeko trebetasun handia behar da, eta batzuek argudiatzen dutenez, dopingarekin trebeziak behera egiten du. Argudio horrek ordea, badu erantzuna: dopingak jokalaria kontzentrazioa hobe dezake eta horrekin trebeziak gora egiten du. Anfetaminek eta beste zenbait

estimulatzailek, nekearen sentsazioa saihestu egiten dute. Horrez gain, esteroide anabolizatzaileek eta hazkunde-hormonek muskuluak indartu egiten dituzte, teknikoki jokalaria indarra eta abiadura hobetu egiten zaizkiolarik. Bestalde, jokalaria zauritzen denean, antalgikoak, anestesiko lokalak eta minaren sentsazioa ezabatzen duten kortikoideak har ditzake entrenamenduetara lehenbailehen itzultzearen.

Garai batean futbolari internazionala izandako Joël Bats-ek dioenez, futbola ez da bakarkako kirola talde-lan garrantzitsua duen kirola baizik. Eta talde-lana hain garrantzitsua duen kirol honetan jokalaria dopatuak mesede egin dezakeela ezin esan daiteke. Gainera, positibo ematen duen kasu bakoitzeko oso ugari dira negatibo ematen dutenak: Talde-kiroletan, beraz, dopatzeak ez dakar mesederik.

Horiek horrela izanik ere, aipatutako muga bakoitza dopatzeko produktuak behar bezala aukeratuta gaindi daiteke. Testosterona edo androgeno anabolizatzaileak injekzio bidez hartuta, 90 minututan berebiziko "martxan" joka daiteke, nahiz eta gero hormona eta muskuluetan ondorio kaltegarriak izan. Odol-transfusioak, kokaina eta efedrina ere hortxe daude. Norbere buruaz konfidantza handiagoa izateko eta ausardia areagotzeko, anfetaminak erabiltzen dira.

Futboleko dopingik ez dagoela argudiatzeko beste arrazoi bat kontrolak aipatzen dituen da. Hala ere, kontrol gutxi egiten dira.

Badakigu kontrolek, eraginkorrak izan daitezkeen, uste gabekoak eta gutxienez %5 proportziokoak (%10 hobe) izan behar dutela. Aitzitik, kontrolak askotan ez dira uste gabean egiten. Bestalde, dopingaren kontrako kontrola prozedura jakin bat zorrotz beteta egin behar da, iruzurrik eta erreklamaziorik egon ez dadin. Praktikan, ordea, prozedura hori kasu askotan ez da beteko.

Florentino Alargunsoro, in *Elhuyar, zientzia eta teknika*, 91 zk. (Testu egokitua)

3 TESTUAREN EGITURA

- Hona hemen testu-mota honen egitura. Atal bakoitzak zenbat paragrafo hartzen duen zehaztuko al zenuke?
 1. Sarrera
 2. Egilearen tesia agertu
 3. Aurkako tesia aipatu
 4. Kontrako ideiei buelta eman
 5. Ondorioa

4 ALDEKO ETA AURKAKO ARGUDIOAK

- Orain astiroago irakurriko duzu testua, bi lantxo izango dituzula. Batetik, zerrenda itzazu egileak aurkako tesia aipatzean erabiltzen dituen arrazoiak eta berauei aurkajartzen dizkien argudioak. Bestetik, esapide modalak (*Urliak esaten duenez...*) eta kontzesiboak (*hala ere..*). Amaitutakoan, bikoteka zaudetela, komenta ezazue bilduriko informazioa.

ARGUDIAKETAREN EGITURA	
FUTBOLEAN DOPINGIK EZ DAGOELA FROGATZEKO ARGUDIOAK	NOLA ARBUIATZEN DITU ARGUDIO HORIEK?

5 AHOZ ERE IGUAL

- **Behean badituzue zenbait gai. Minutu bakar batzuetan prestatu ondoren, egitura bereko hitzaldia prestatuko al zenuke? Kontuan har ezazu zenbait egoera formaletan honako egitura hori erabilgarria izan dakizukeela.**
 1. Umeak jo ala ez. Horra hor auzia
 2. Familia ezinbestekoa da edozein gizartetan. Ados?
 3. Baserrian bizi / kalean bizi: zein nahiago?
 4. Eskola publikoa / eskola pribatua

6 ETA IDATZIZ?

- **Demagan idazlana egiteko honako gai hau eman dizuetela:**

Autopistak erabiltzen dituenak debalde nahi ditu, baina behar diren autopistak eraikitzea karga ekonomiko handiegia omen da Estatuarentzat. Bestalde, zergatik ordaindu behar dugu denon artean batzuek baino erabiltzen ez dutena? Ez al dira autobusak eta trenak ere ordaintzen, publikoak izan arren?

- **Zer diozue zuek? Autopistak eta autobusak ordaindurik ala dohainik? Autopistak bai baina autobusak ez? Taldeka jarri eta zeuen iritzia eman. Erabaki ezazue zein izango den defendatuko duzuen tesia.**

GURE TESIA

7 ARGUDIOEN BILA

- Edozein gai dela, iritzi kontrajarriak aurkitu ohi ditugu, errealitate beraren aurpegi ezberdinak, azken batean. Taldeka zaudetela, saia zaitetze bataren eta bestearen aldeko argudioak zerrendatzen.

ZUEN TESIAREN AURKAKO ARGUDIOAK	AURREKOAK ARBUIATZEKO ARGUDIOAK
1.	1.
2.	2.
3.	3.
4.	4.
5.	5.
6.	6.

- Denon artean, aldera itzazue adierazitako argudioak. Zein dira egokienak? Ba al da gaiarekin lotzen ez den argudiorik? Aukera itzazue onenak eta egin ezazue bi jarrerak biltzen dituen beste zerrenda bat.

8 EKIN IDAZKETARI!

- Orain bakarka egingo duzu idazlana. Har itzazu kontuan ondoko puntuak:
 1. Taldeka eginiko planifikazio-lana.
 2. Idaztean beharko dituzun esapide linguistikoak (modalak, kontzesiboak eta kausa adieraztekoak).
 3. Ideia bakoitzeko paragrafo bana idatzi.

24 ENTZIKLOPEDIA ETORKIZUNEAN

Unitate didaktiko honetan:

- **Idatzizko laburpenak egiten
trebatuko zara**
- **Idatzizko laburpenak beste
konposizio bat egitea dakar**

**GAIA: LIBURUGINTZA ETA
TEKNOLOGIA BERRIAK**

ENTZIKLOPEDIA ETORKIZUNEAN

1 ZER DAKIZU HONETAZ?

➤ **Taldeka komenta itzazue honakoak:**

1. Zer da CD-ROM delakoa?
2. Zertarako erabiltzen da? Nola funtzionatzen du?
3. Liburu elektronikoak direlakoek paperezko liburu tradizionala ordezkatu dezaketela uste al duzu?

2 ARIKETA

➤ **Segidan 1994an IVAP-HAEEk 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketa batean jarririko irakurmena ebaluatzeko froga egingo duzu. Bertan irakurritako testu baten idatzizko laburpena egiteko eskatu zuten. Hona hemen kontsigna:**

1. Egin ezazu ondorengo **testuaren laburpena**.
2. Kontuan izan **gehienez ere 30 lerro** eduki behar dituela eta ezin jar ditzakezula jatorrizko testuaren zatiak elkarri lotuta.
3. Aitzitik, **konposizio berria** egin behar duzu, nahitaez.

3 LABURPENA: TEKNIKA BEREZIA

➤ **Laburpena egiterakoan, kontuan har itzazu puntu hauek.**

1. Lehenbizi testuaren **ideia nagusiez jabetu**.
2. Ideia nagusi horien inguruan gorpuztu laburpena bera. Testu berria sortzerakoan, ez zaitez subjektiboa izan.
3. Honez gain, testuak **murritza** izan behar du, **koherentea eta argia**; bertan erabiliko diren kontzeptu teknikoak erraz ulertzeko moduan eman beharko dira.
4. Beraz, laburpen horrek jatorrizko testutik **autonomiaduna** beharko du izan, gramatika aldetik **zuzena** beharko duen heinean.

➤ **Ondoren eskaintzen zaizun gidaz baliatuz, egizu testuaren ideien eskema. Saia zaitez testuaren formulazio bera ez erabiltzen.**

IDEIA NAGUSIAK	IDEIA OSAGARRIAK
Entziklopediaren definizioa, zertarakoak	
Ohiko entziklopedien gabeziak	
Disko optikoa: entziklopedia tradizionalen berriztatzailea	
Disko optikoaren ezaugarri teknikoak	
Disko optikoaren abantailak	
Adibide bat: Grolier International Encyclopaedia	
Teknologia berrien aurrean mentalitatea aldatu beharra	

ENTZIKLOPEDIA ETORKIZUNEAN

Etxean duzun entziklopedia oso ondo bereizten da izan ditzakezun beste liburuetatik. Liburu-sorta batez osatuta egongo da, azal gogorra izango du eta dagoen armarioan ornamendu-funtzioa ere beteko du. Hala ere, entziklopedia erostean munduko kulturaren zati baten jabe izatea izango zen zure helburua eta, beraz, hitz bat nola idazten den, hitz baten esanahia hau ala bestea den edo pertsona, leku zein gertakizun baten berri jakin nahi izan duzunean entziklopediara jo izan duzu.

Entziklopedian informazio bila aritu zarenean, batzuetan nahi zenuena azkar aurkitu duzun bitartean, bestetan oso neketsua gertatu da edo agian etsi egin behar izan duzu. Beraz, eskuratu nahi den informazioa, oro har, entziklopedian egongo bada ere, bilaketa-sisteman dago gakoa.

Demagun bilatu nahi den informazioa aurkitu dugula eta guztira hamar milaren bat karaktere dituela. Informazio hori ordenadorean lantzen ari garen testuaren zati bat baldin bada, teklatu bidez edo eskaner bidez ordenadorearen disko finkora sartu beharko dugu. Beraz, bilaketa-fasea ez ezik informazioaren prozesaketa ere astuna izan daiteke eta, liburuen euskarri fisikoa papera dela kontuan hartuta, ez dirudi paperean gauza daitekeen informazioak asko aldatzerik izango duenik datozen urteetan.

Bestalde, azken urteotan etengabe entzuten ari da "teknologia berriak" deritzona. Jakina da teknologia berrien eraginez gizartearen ohiturak eta funtzionatzeko era aldatzen ari direla.

Entziklopedia osatzen duen liburu-bildumako informazio osoa 120 mm-ko diametroa duen disko batean egotea; disko horren edukia ordenadoreko pantailan ikusteak; bilaketa-sistema arestian aipatu arazoa gaindituko duena izatea; aurkitutako informazioa, agindu baten bidez, ordenadoreko disko finkoan gordetzea. Hau guztia ez da ametsa, oraina baizik. Aipatu ezaugarriak dituzten produktuak jada merkatuan daude.

Bi teknologia berri elkartu behar izan dira entziklopediagintzaren mugak apurtzeko: informatika eta laserra, hain

zuzen ere. Horrela, disko optikoa sortu da. Tamaina asko dago disko optikoaren alorrean eta oraindik estandarizazioa ez da erabat lortu. Hala ere, badago besteen ondoan indartzen ari den disko optikoen mota bat, hots, CD-ROMa. (CD-ROM edo "Compact Disc Read Only Memory" esaldi ingelesaren laburpena dena "Irakurri besterik ezin daitekeen disko konpaktua" esango genuke euskaraz.)

Musikarako lehen disko konpaktua 1983an sortu zuten PHILIPS eta SONY etxeek eta horretarako erabilitako teknologia izan zen CD-ROMen jatorria. Bi urte beranduago lehen datu-basea disko optikoz merkaturatu zen. Disko optikoetan laser bidez grabatzen eta irakurtzen da informazioa. Disko magnetikoetan ez bezala, datuak fisikoki grabatzen dira eta grabatu ondoren ezin dira ezabatu edo aldatu.

Disko optiko batek jaso dezakeen informazioaren hainbatekoa litzateke:

- 150.000 orri inprimatu, han da, 250 liburu handi.
- 15.000 merkataritzako dokumentu.
- 1.200 disketeren (5, 25 hazbetekoak) edukia.

Emandako datu horiek kantitatearen ideia ematen dute: hala ere, ezin aipatu gabe utzi kalitatea. Testuak eta irudiak dira entziklopedia baten ohiko elementuak, baina zergatik ez sartu soinua eta animazioa? Gaur egun edozer gauza digitaliza daitekeenez, edozein tresnaren soinua, pertsonaren ahotsa edo edozein film-zati sar daiteke ordenadorera edo disko optikora. Txorien datu desberdinekin batera, beren kantua eta hegan egiteko modua eduki daiteke disko optikoan. Hau liburu-bilduman ezinezkoa da.

Entziklopedia bat egitea lan mardula eta luzea da. Orain dela gutxira arte entziklopediarik gehienak eskuz landu dira, baina joan den hamarkadaz geroztik, gero eta bitarteko informatiko gehiago erabiltzen da, horrek produkzio-prozesua laburtzea ekarri duelarik.

Entziklopedia, liburu-bilduma izan aurretik, nolabait antolatutako datu-base informatikoa baino ez da. Datu-base horretatik liburu-bildumara igaro beharrean

disco optiko batera igarotzeko lan osagarri batzuk besterik ez dira egin behar, lanik mardulena jada eginda baitago. Beraz, oinarrizko datu-basea osatzeko kostuak, liburu-bertsioan zein disco optikoaren bertsioan, antzekoak dira. Edizio-unean, oster, kostuak erabat desberdintzen dira. CD-ROMean argitaratutako entziklopedia baten kostua paperezko oinarrian argitaratutakoaren erdia, herena edo laurdena izan daiteke, entziklopediaren tamainaren arabera.

Kostuak eta salmenta-prezioak erlazio zuzenean daudenez, disco optikoetan jarritako produktuen salneurria oso interesgarria da eroslearentzat. Gainera, gero eta disco optiko gehiago saltzen ari denez, salneurriak hilez hil merkeagotzen ari dira.

Bestalde, CD-ROMa non eta nola erabili behar den galderari erantzun behar zaio. Berez, etxe zein lantegietan gero eta ugariago diren ordenadorei CD-ROM irakurgailua konektatzea besterik ez da behar.

CD-ROM formatuan orain arte argitaratu den entziklopediarik ezagunena den Grolier International Encyclopaedia-ren azalpena egingo dugu. Produktu hori liburu baten tamainako pakete batean saltzen da.

Hiru aurkibide nagusi ditu. Bat artikulu-izenburuen arabera, beste bat hitzen arabera eta azkenik, argazkien arabera.

Artikulu-izenburuak 30.000 dira guztira, eta alfabetikoki ordenaturik daude. Hitzak ere alfabetikoki ordenaturik daude eta hitz bakoitzaren ondoan azaldutako zenbakiak, hitz hori zenbat artikulutan eta zenbat aldiz azaltzen den adierazten dute. Argazki eta irudiak gaika daude ordenatuta, eta alfabetikoki eta zuri-beltzean zein koloretan ikus daitezke monitorean. Beraz, bilaketa hitzen arabera egiten bada, ahalmen handiko aukera dauka erabiltzaileak, aldi berean hitz desberdinen arabera bilaketa egitea, alegia. Esate baterako, "Frantzia" eta "errege" hitzak idatziz Frantziako erregeei buruz dagoen informazio guztia azalduko da.

Informazioa pantailan dugunean inprimatu edo ordenadoreko disco gogorrera pasatzeko aukera dugu. Erabilera-modu horiek pantailan azaldutako mezuak jarraitzea besterik ez du eskatzen; beraz, erabilera errazekoa dela ezin ukatu.

Une oro entzuten da informazioaren gizartean gaudela. Beraz, edozein jardueratan etengabeko informazio-bilketa gertatzen ari da eta, aldi berean, teknologia berriei esker informazio-multzo erraldoi horietan zehar nabigatzea errazagoa da. Baina, teknologia berrien abantailez baliatzeko, geure ohiturak eta mentalitatea berri behar ditugu.

JOXERRA AIZPURUA, *Jakin*. 72 zk. 1992
Testu egokitua

4 IDAZKETA

➤ **Ekin iezaiozu, bada, idazketari. Dena dela, gogora itzazu honako puntu hauek:**

1. Ez duzu testuaren ideien ordenari zertan segitu. Egizu, zure ustez, garrantziaren arabera ordena berria. Beroni segitu idaztean.
2. Tartekatzen dituzun kontzeptu teknikoak ondo azaldu.
3. Zuzentasunari erreparatu.

ZENBAIT

ARIKETAREN

EBAZPEN-ORRIAK

08. EUSKARAREN BIDE LUZEA

Irakurriaren ebaluazioa

1. d) ez baitzuten eskuartean hizkuntza bizitzen laga baino gehiago egingo zukeen politikarik.
2. a) makina bat ibili omen da Joana Albretekoak egindako idazlanei buruzko asmakizunetan.
3. b) Zenbaiten ustez, protestantismoa Euskal Herrian sustraitu izan balitz onuragarri zatekeen euskararentzat.
4. d) adimena trebatzeko eta erudizioa erakusteko bakarrik balio dute.

12. AIREAREN KUTSADURA

MAILEGUAK

Aire, kausa, motibo, datu, elementu, faktore, pneumologo, motoredun, gas, kalitate, gobernu, gobernakide, dossier,

AURRIZKIAK

Desadostasun

ATZIZKIAK

-keta: azterketa, ikerketa	-gile: eragile, egile
-tasun: gaixotasun, osasun, batasun, larritasun, desadostasun	-garri: larrigarri, kaltegarri
-ka: ehundaka	-gai: legegai
-era: erabilera, egoera	-pen: aurkezpen
-gailu: ibilgailu, neurgailu	-tza: heriotza, emaitza
-dura: kutsadura (beste zenbait: harridura, ubeldura, sinadura)	-dun: motoredun
-kunde: erakunde	-ro: urtero
-kor: orokor	-ki: bereziki
	-kide: gobernakide

HITZ ELKARKETA

- Izena + izena: ikerketa-erakundea, ikerketa-egile, Osasun-egoera, aire-garraio, ingurugiro-ministraria
- Aditza + izena: Bizilagun

15. PARAGRAFOZ PARAGRAFO

Ez da kasualitate hutsa gaur egun autoa baldin bada gizarte modernoaren sinboloetan lehena. Gizarte honen irudimenaren erdi-erdian dago, batetik, eta bere industri ekimenaren oinarrian bestetik. Berak jartzen ditu, neurri handi batean, bizitza ekonomikoaren erritmoaren zuinak, eta berak eragiten ditu orobat onerako ala txarrerako, baina XX. mende honen ezaugarri bihurtu diren arau, jarduera eta jokaera banakako zein kolektiboek osatzen duten alor zabala.

(UNESCOren Albistaria)

Europa guztian, ezkontzaren beherakadak elkarketa librean gorakada ekarri du. Frantzia bakarrik, eta lurralde eskandinabiaren aldean kopurua apala izaki, bikoteen %10 (milioi bat inguru, beraz) elkarketa librean bizi da. Kopuru honek %50 egiten du Paris inguruan bizi direnen eta 25 urtetik beherako gizonen artean.

(UNESCOren Albistaria)

«Ardoa edanda, mozkortzen naiz» hitzekin hasten da herri-kanta ezagun bat eta ardoa edanda, hain zuzen, arazoak izaten dituzte auto-gidari askok gure artean alkoholemia kontrolak direla eta. Brasilen, aitzitik, alkoholak, etanolak hain justu, automobilen motoreak piztu egiten ditu.

Iñaki Irazabalbeitia
Elhuyar, 1993ko apirila

Gehientsuok, oporren oroimena ahantzita dugunean, estresaren arerioari egin behar diogu aurre. Harridura sortzen badu ere, gizarte garatuetan bizi garenek ez gara gaixotasun hau jasaten dugun bakarrak: herrialde afrikarretako ospitaletan egindako inkesta baten arabera, biztanlegoaren %90ek ultzera, hipertentsio arteriala, buruko mina ala antsietateak eragiten dituen hainbat gaitz jasaten ditu.

(Argia, 1501. zenb.)

Zein da ideia nagusia?

b) Autoa gizarte modernoaren lehen sinboloa da.

Non dago ideia nagusia?

a) Paragrafoaren hasieran.

Nola garatzen du ideia nagusia?

c) Azalpena ematen du

Zein da ideia nagusia?

b) Europa osoan gero eta ezkontza gutxiago dago eta gero eta elkarketa libre gehiago.

Non dago ideia nagusia?

a) Paragrafoaren hasieran.

Nola garatzen du ideia nagusia?

c) Datuen bitartez frogatu nahi du ideia nagusia.

Zein da ideia nagusia?

a) Brasilen alkoholarekin erregaia egin nahi dute.

Non dago ideia nagusia?

c) Amaieran.

Nola garatzen du ideia nagusia?

a) Ideien arteko aurkaritza edo kontrakotasunaren bidez.

Zein da ideia nagusia?

a) Garatu gabeko herrietan ere estresa jasaten dute.

Non dago ideia nagusia?

b) Erdian.

Nola garatzen du ideia nagusia?

a) Datuak ematen ditu.

16. INFORMAZIOA AURRERA

1. Ariketa

TESTU-ZATIA

GARAPEN MOTA

- | | |
|---|--|
| <p>1. Eskola bidegurutze batean da gaur: alde batetik, estatuak ez du hezkuntza finantzatu eta gidatu nahi eta, bestetik, eskolek eta tokian tokiko agintariek gehiago kontrolatu nahi dute hezkuntza.</p> | <p>INFORMAZIOA GEHITZEA</p> |
| <p>2. Erakunde estatikoa ematen du sarritan eskolak, mugitzen ari den unibertso baten erdian. Baina aldaketa sozial batzuek arras aldatuko dituzte, noski, hezkuntzaren sistema eta oinarriak.</p> | <p>AURKARITZA</p> |
| <p>3. Ikasteko gogoia antzinako ezaugarria dute Asiako kulturek. Konfuziok esana da, K.a. VI-V. mendeetan: hezkuntzak perfektzioaren bidetik eraman dezake gizona. Konfuzioren ustez, bitarteko ahalsua da hezkuntza, bai gizakia eta bai gizartea hobetzeko. Hala, mendetan izan da hezkuntza Asiako bizitza politiko, ekonomiko eta kulturalaren oinarri.</p> | <p>ONDORIOA</p> |
| <p>4. Afrikak hezkuntza-sistema berraztertu behar du, beste edozein kontinentek baino areago. Izan ere, garai kolonialean ezarritakoak dira gaurko hezkuntza-sistemak: orduan bezalakoxeak.</p> | <p>KAUSA</p> |
| <p>5. Munduko hiri handienetan, baratzetarako erabiltzen dira lur-eremuak. New Yorken, adibidez, mila baratze komunitariotik gora daude; eta Berlinen, berriz, 80 milatik gora. Garabidean dauden herrialdeetan, hirietako nekazaritza diru-iturri da 100 milioi lagunentzat eta janari-sortzaile 500 milioirentzat.</p> | <p>ADIBIDEA</p> |
| <p>6. Oso herrialde gutxik hartu dituzte kontuan <i>Izaten ikasi</i> delako txostenaren iradokizunak nazio mailan: besteak beste, Kanada, Japonia, Suedia, Norvegia eta Argentinak.</p> | <p>ZERRENDAPENA</p> |
| <p>7. Dauzkagun datuen arabera, irakasleen soldata, herrialde aberatsetako salbuespen urriak salbu, maila bereko profesionalena baino askoz ere txikiagoa da. Guztiok ezagutzen ditugu ondorioak: badaezpadako irakasleak kontratatzen dira, irakasle onenek eta esperientziadunek utzi egiten dute lanbidea eta denen gogorik ezak pedagogia sortzailea bazterteza ekartzen du</p> | <p>KONPARAKETA</p> <p>Konparazioa egin eta gero, egoera honen ondorioak zerrendatzen ditu.</p> |

2. Ariketa

IDEIEN GARAPEN-MOTAK	TESTU-ANTOLATZAILEAK
EMENDIOA EDO GEHITZEA	Ere, gainera, bestalde, halaber, orobat, behintzat, behinik behin

AURKARITZA	Ordea, berriz, ostera, aitzitik, alabaina, haatik, dena dela
ONDORIOA	Beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez, halatan, hala
KAUSA	Ezen, izan ere, alabaina, zeren
ADIBIDEA	Alegia, kasu, hots, esaterako,
ZERRENDAPENA	Hala nola, besteak beste, hona hemen, honako hauek, hala ... nola
KONPARAKETA	Era berean, antzeko, bezala, konparazio batera, adina

18. PRINTZESAK ETA MARINELAK

➤ Harridura adierazteko espresioak atera:

1. Ez nuen, ba, auzoko ileapaindegia zabalik ikusi!
2. Handik atera ez zituztenak!
3. Mezetakoa ere ez zen kapitulu makala izan
4. Hara non gerturatzen den aldarera sekulako jende-oldea.

20. OZONO-GERUZA, BABESEAN ERE ZULOA

2. ariketa

1. **Zein irakurle-motari zuzenduta dago testua?**
b) Gai honetaz zerbait dakien bati
2. **Nolako gaia da?**
b) Espezifikoa baina dibulgazio mailakoa
3. **Hizkuntza dela eta...**
b) Erregistro formala
4. **Nolako jarrera du egileak testuan zehar?**
c) Kritikoa